atara miñe '04

EUSKAL ERREPRESALIATU POLITIKOEN
LITERATURA KOADERNOAK

atara miñe

EUSKAL ERREPRESALIATU POLITIKOEN
LITERATURA KOADERNOAK

AZALAREN IRUDIAREN EGILEA:

Joseba Arregi Erostarbe

Lege gordailua
Depósito legal
Dépot légal
BI-2882/04

atara miñe 2004

Aurkibidea:

Sarrera: "Hitzaurrea" **5**
Joseba Arregi Erostarbe: "Isolamendua", "Eustakio 'Txikia' Mendizabal" eta marrazkiak **9**
Eustakio Mendizabal Benito: Bertso eta poemak **15**
Izenik gabe: "Arima" **29**
Aitor Fresnedo Gerrikabeitia: "Akelarretarako hauxe abestitxuau" **33**
Angel Figueroa: "Gaur bezala", "Ametsak" **63**
Aratz Estonba: "Taberna bazterrean bada andra bat" eta bestelako lanak **65**
Iñaki Gonzalo Casal: "Una tarde de fiesta con K. M." **69**
Andoni Cabello: "Cunda" **75**
Igor Letona: "Isolamenduko kronika" **79**
Galder Bilbao: Bertsoak **91**
Xabier Aranburu: "Zure gatibu gatibutzan" **101**
Inés del Río: "Rasgando silencios" **109**
Iñaki Rekarte: "Karramarroa eta sorgin bertsolaria" **113**
Jokin Urain: "Joxe Txurtxa" **119**
Aritz Saez: Poemak **137**
German Urizar: "Historia de esta carta", "Dora", poema eta marrazkiak **151**
Joseba Garmendia: Poemak eta "Idiek oroipenetatik tiratzen dute" **157**
Joxe Luis Blanco: "Mariñe eta Gosotsoa", "Ziega hutsari begira" **165**
Julen Larrinaga: "La Fortaleza Imperial" **171**
Karlos Apeztegia: "Giltzapean euskara ere legez kanpo" eta bestelako lanak.. . . . . **181**
Joel Sistiaga: Marrazkiak **197**
Juan Ramón Rojo: Marrazkiak. **201**
Xabi Larrea Bolivar: "Gernikara !!!" **207**
Xabier Balerdi: "Jon Irri Urdin" **215**
Oskar Barreras: "Al mal tiempo, mala cara" **221**
Josetxo Etxeberria: Poemak **239**
Peru Fdez. de Mendia: Poemak. **245**
Xabier Lazkano: "Nunca preso", "Tic-tac" eta bestelako poemak. **251**
Joana Nuñez: Poema eta marrazki bat **255**
Aitor Lorente: "Angel, Gotzone eta zenbait aingeru zeruetatik at... zeruetatik out" **257**
Manu Azkarate: "La Reme" **271**
Olatz Caminos Uribe: "Bakarlekuko bakarhizketa" **275**
Naiara Maiabia: Poemak **283**
Sergio Garcia Razkin: "Epailearen aurrean" eta poema **289**
Estanis Etxaburu: "Espejo mágico ceutí" **291**

Sarrera
Olatz Caminos Uribe

Hitzaurrea

Liburu hau esku artean baduzu, hitz hauexek irakurtzen ari bazara, preso edo ihesean izango duzu norbait, akaso. Baliteke neska laguna kartzelan izatea, edo anaia. Edo aspaldiko lagun mina. Liburu dendan egon zara, edo Durangon, edo lagunen baten etxeko liburutegian kuxkuxean, eta errepresaliatuen mundua ezagun izanak eraman zaitu libururaino. Hautatu literario soilak baino, esan genezake zera korapilatsuagoak bultzatu zaituela liburua irakurtzera, errepresaliatuen munduaren beste alde bat ezagutu nahiak, esaterako.

Liburu hau esku artean baduzu eta kartzelarekin inolako harremanik ez baduzu, hots, inolako emozio gordinik –onik edo txarrik- sorrarazten ez badizu, jakizu, lagun, salbuespena zarela. Hautu ausarta eta bitxia egin duzu; agian pertsona kuriosoa zara

eta han-hemendik edatea duzu gogoko. Literatura estalki potolo eta urrezko letrarik gabe ere idazten dela sinistuta zaudela esango nuke. Baina ezin zaizu oharkabean pasa presoek sortutako literatura edo artea debaluatua dagoela eta aintzat hartzen ez dela. Aitortu nahiko luketen baino gehiagok pentsatuko du presook idatzitakoak ez duela kalitaterik, pertsona zurrunak, muturrekoak, sinpleak eta herrikoiak garelako. Esku handiak, zantarrak ditugula, kailuz beteak eta ez daudela edertasuna sortzeko eginak.

Presook idazten dugun literaturak, ordea, badu kalitaterik, kalean idazten den literaturak duen neurri berean. Zilegi da, beraz, eskatzea euskal literaturaren eta sormenaren makineriak kartzelan sortutakoa aintzat har dezan eta inolako aurreiritzik gabe hurbil dakion. Aurreiritzia baita gutxituen edo zokoratuen literaturak aurkitzen duen oztoporik nagusiena eta hala suertatzen da hizkuntza gutxituen literaturarekin edo emakumeek sortutakoarekin, baita kartzelan egiten denarekin ere. Obra begi zorrotz eta lerrokatuagoarekin ikuskatzen da eta arrazoi sinple bezain indartsua erabilita gutxiesten, isilarazten edo zokoratzen da: “Emakume batek idatzi du” edo “euskaraz dago” edo “preso batek idatzi du” bestela. Hiru baieztapen horiek nahikoa dira, berez, obraren kalitateari zalantza-izpia gaineratzeko.

Kartzelan idaztitako literatura debaluatua dagoela esan dugu. Ez hori bakarrik; presoak bere lanak argitara emateko zailtasun handiagoa ditu, ohiko argitaratze bide gehienen eta idazleen zirkuluetatik at dagoelako. Iheslarien kasuaz mintzatzen bagara, are zailagoa da argitaratzea. Ikusi besterik ez dago iheslarien kolektibo zabalak zenbat idazle eman duen. Horregatik da hain garrantzitsua esku artean duzun liburua eta atzean duen proiektua, errepresaliatuaren ahotsari bide berriak zabaltzen dizkiolako eta idatzitakoari Literatura izena ematen diolako, letra larriekin eman ere.

Idazteko baldintzei buruz ere halabeharrez hitz egin behar dugu, kartzelan edo erbestean idaztea erditze mingarri baten gisakoa

delako, ohiko baldintzetatik oso urrun egiten den lana. Presoa bortxaz, oihuz, miseriaz, probokazioz inguratuta bizi da eta askotan biziraute soilarekin nahikoa du. Sarrionandiaren poematan itauntzen den legez, *G.K. Chesterton-ek* La Salve bisitatu ote du inoiz? Edo bestela, zer axola zaio mutil torturatuari poeta "*um fingidor*" den?

Presook asko dugu esateko, baina norberaren oreka mantentzeak indar handia xahutzen digu. Idazteko zer kontatu eduki behar omen da, hori ei da funtsezko baldintzetako bat. Eta presook soberan dugu hori, barne mintzaira aberatsa baitugu. Baina zein leku du literaturak Gernika bonbardatu baten erdian, begien bistan etxe eraitsiak eta suntsituak besterik ageri ez direnean? Zein harritzarretan edo koska txikitutan jesarri munduaz hausnartu eta literatura sortzeko? Nondik atera adorea atzamarra haga erreen hautsarekin zikindu eta zoru pitzatuan poema bat idazteko? Virginia Woolf-ek esango liguke munduak ez diola inori poemak, nobelak edo historia liburuak idazteko eskatzen, behar ez dituelako. Munduak ez du gure gorazarrerik, ezta gure dolurik ere behar; are gutxiago mundu latz eta gordinak, berez elikatzen baita.

Hori horrela izanik, itxuraz erantzun kontraesankorra duen itauna bururatzen zaigu: zerk bultzatzen du orduan presoa ziega zuloan idaztera? Galderak askotariko erantzun-sorta dauka eta ez genuke bidezidor ezezagunetan barneratu nahi. Nork bere arrazoiak izango ditu; hala ere, motore komun baten hotsa entzun daiteke airean. Askotan esaten da norbait espetxeratu eta goiz ala berandu bere alde artistikoa garatzen duela ezinbestean. Edo, bestela esateko, preso guztiek egiten dugula zerbait, idatzi edo eskulanak egin edo pintatu. Hori ez da horrela ezinbestean, baina topiko horrek egia handia ezkutatzen du. Izakiok mugimenduan bizi gara, eraldaketari atxikiak; ez da ulertzen ahal izaki biziduna mugimendurik eta denborarik gabe, estatiko. Eta, hala ere, presooi bizitza era estatikoan bilakatzen zaigu, gutxi egiten dugu, ekintza itzalpeko mundutik at dago. Eraldaketak barne–prozesuen

ondorio dira gehienetan. Intentsitate neurrigabearekin bizi gara, sakontasun handiarekin, sentimenduak borborrean, baina aldi berean estuturik, prentsaturik, gaseosa irabiatu eta botila hozkailuan beti irekitzear gordeko bagenu bezala. Preso orok itsaso zabal bat du barnean, erraietan instalaturik, apurka, ur–tantaz tanta, betetzen doakiona. Hasieran putzu bat baino ez da, geroxeago errekasto. Azkenerako ozeano bihurtzen da, eta ez Pazifikoa, hain justu ere. Desiren, ametsen, bizipenen itsasoak behin eta berriro gainezka egiten digulako idazten dugu gehienetan presook. Beharrezkoa zaigulako, orroa delako, mugimenduaren seinale, bizitzaren lekukotasun gordin, katarsi, desafio. Horrela uler daiteke, akaso, Gernika bonbardatu baten erdian espresio-bide landuak bilatzeko dugun joera hori.

Liburu honetan aurkituko dituzun poemak, ipuinak, bertsoak, istorioak edo pinturak tentuz eta txeraz sortuak dira, ahalegin irmo eta sakon baten ondorioz. Altxor txikiak dira eta urrunera hedatzen den argi propioa dute.

Joseba Arregi Erostarbe
1946
Oñati

1992. urtean atxilotu eta espetxeratu zuten..

C.P. Jaén II
Ctra. Bailen-Motril, km. 28
23.009 Jaén

berria

Isolamendua

Tori! Nire "mundu erreala";
aislamendu zokoa,
gartzela bazterreko ziega,
hau da logela, jangela edo amesleku, ilusio bila
dabilen liburutegia,
hiru metro karratuetan dudan espazioa.
Itxaropen mingotz eta "plazer" laburrak
"difuminatzen" diren isolamendua.
Hauxe da nire mundua,
Gatzarena edo Garratzena.
Gauez txori eta egunez preso.
Batak horrela darama hogei ta lau urte,
besteok berdin jarraituko dugu
norbaitek askatu arte.
Tori! Nire "mundu erreala";
isolamendu zokoa,

non da ate hau
irekitzeko gakoa?
Ez da izanen burdinazkoa,
konponbide lanetan egindako
sakoneko erabaki politikoa baizik.

Hau da gure mundu subrealista,
etsaiari beti
aurre egiten gabiltza,
Justizia eskatzeak bakarrik ez digu
sekula emango giltza.

Nori axola zaion!
Ez da gauza berria,
hogei ta hamar urtez egon behar badugu
petrala izanen da gure zoria,
baino zertarako balio dit aske izateak
libre ez bada gure herria?

Eustakio "Txikia" Mendizabal

Nahiak zituen ugari eta
mendi gailurrak zabal.

Txikian txiki, handian libre,
Euskal Herrian aske, tiroz kendu zioten arte,
mendian zehar erne,
maldan gora bizkor,
kideekin gogor, tontorrik tontor.

Arin, tinko, gailurreko txori;
holaxe zen gure gizontto hori.

Lagunartean "sasi-bertsolari",
artzaien alboan sarri,
Maka, Axakarte, Rufo edo Azkaotxiki,
holako lagunak zituen ugari.

Urretxindor "Mutua",
hirian beti galdua,
mendia zen bere mundua.

Txepetxa hil zuen
zakurra maltzur,
ostegun "santuan" utzi gintuzten
ez zeru eta ez lur!
Geroztik Oriko txoriak ugaldu dira,
Iratiko oihanean dabiltza
gira eta bira,
askatasun bidea nondik har begira.

Jaen 2004.



Eustakio Mendizabal Benito
1944 Itsasondo
1973 Algorta

1973. urtean poliziak hil zuen.

("Hitz etena. Eustakio Mendizabal TXIKIAren olerkiak".
Jon Arano. Susa 1992)

Ama, txukatu malkoak
Amets bat. (1967)

1

Aralar mendi txit gandorrean
Ama Euskera nekusan,
arratsa bezin goibel, negarrez
umetxo bateren gisan:
biotz-barrengo negar-zotiñak
ezin zituala jasan...
"Zer duzu, Ama?" galde-
tutzean,
onelatsu zidan esan:

2

"...Zeruetako Jainkoak naita
milla urte anitz dira
Euskal-erriko lur done ontan,
sortu nintzala argira.
Ainbat gizaldi ondorenean,
gaur-egun seme, begira...
Seme-alaben burla-ixekak
naramate il-obira!

3

Ikastol eta eliz askotan
atea didate itxi:
atzerritarrak ta seme askok
lapur bat antzo ezetsi!
Nere izena apaldu arte
iñoiz ezin dute etsi...
Zer egin diet etsai bezela
ainbat nazaten gaitzetsi?!

4

Izkuntz arrotzak dira nagusi
mendi, enparantz, kalean...
irrati eta aldizkariak
datoz erdera elean.
Euskera ortxe baso, sukalde,
txoko apalki batean...
Mamur ta mintzul, ezin
besterik
ke, negar, zotin artean.

5

Azken gudate ondorenengo
hogei ta sei urteetan
erderak arro dabiltz, erronka,
zazpi Euskal-errietan.
Ni berriz emen, sorterri
bertan,
bizi-arnas azkenetan...
sukal-txokoan negar egiñaz
aiton-amon mingaiñetan!

6

Euskal-erriko bazter denetan
atzerrian antzo nabil...
ez-ezagunen artean aur bat
beziñ apal eta ixil!
Ene burua gara ez dediñ
ba-ditut milla maratil...
Gaiztagiñai lez, arrano begiz,
etsaiak so ditut urbil!

7

Erdaldun dira mendi-zaliak,
eta amaika sukalde!
Bereaz aztuz erdal-izkuntzaz
asko itsuturik daude.
Aberri eta euskal-izenak
guziz zaie arrobide...
ta antziñako oitura zarrak
oro nai lituzke gorde!

8

Euskal-erria gorde nai dute,
eta nik damaiet lotsa...
Seme-alabak ola ikustea
Amarentzat zein mingotsa!
Aberri-muiña galdu ezkeroz,
zertarako dute kutxa,
azalez eder izanda ere
barrendik bai dago utsa?

9

Euskal odola daramazu ta,
zeranez ene soin-atal...
aur-adiñetan artu zendunez
neregan atseden-magal...
ainbat oztopoz etsai artean
bein betiko ez nadin gal...
ai, seme laztan, lasterren laster,
enegaz zaitez urrikal!

10

Aberriaren muiñ ta oiñarri
ni naizela zaitez oroi,
ta ez nazazu luzaro utzi
izkuntza arrotzen morroi!
Ene burua goratutzea
ziñez nai ba duzu, otoi,
buru-belarri biur lanera,
oraintxe bai duzu sasoi!"

11

"...Ai! Ama kutun! erantzun nion,
itzali zazu negarra!
Ortz-illunean ñirñir bai dago
oindik itxaron-izarra!
Askok baztertu ba zaituzte re,
zu zaitugu, izkuntz zarra!,
ele denetan, biotz niniaz
maitatzen dugun bakarra!

12

Etzazu geigo zure negarraz
samindu euskal gogoak...
Negu otzari jarraiz bai datorz
denbora obeagoak!
Zeru goi-goitik esku luzatuz
oro dezaken Jainkoak,
loraz jantziko zera berriz ta
AMA, TXUKATU MALKOAK"

Erri zaarraren udaberri
Lazkau: 1967'ko Jorrailla'k 4

Zentzu berri,
gogo gazte,
Aberri-miñ...
Oi, gaurko Euskal-Gaztedi!

Guda itsuak
bere erio-segaz,
mendi-ibarretan,
askatasun oñazetan,
lurrera
jaurti zun
belaun-aldiaren
len-kimu
zera.

Kimu bakan,
bañan,
kimu berri,
kimu gizen,
arrotzen menpen
datzan
erri ertsituaren
itxaropen...
nork-bere
sakela beste
buru-auste
ez dun
erriaren
txertu
ta
osasun.

Gezur kiratsez,
kirol antzuz,
futbol merkez,
-zure ondamiñez,
etsaiak asmaturiko
opio-belarrez-,
lo-arazi nai izan zaituzte.

Bañan ez!
Ez dute ori lortu,
etzaitu
loak artu,
baizik,
opioaren gozoa
garratz,
mingain-zuriaren
betiko
loisints-leloa
gezur
ta
iruzur,
iduritu zaizu,
eta
begi-klixka-itsu
baño len,
atsi egin duzu,
eta zuzpertuz,
gose senti zera:
berdintasun gose,
eskubide zapalduen gose,
jakintza-gose,
erri-gose,
askatasun-gose,
mende laurdena
lo-zorro iraun dunaren
gose
eziñ
ase.

Erriaren ixiltasuna,
illen eremu zabaleko
ixiltasun
itun
iduritu
zaizu.

Pakea...
bere izate
ta
nortasun
galdu ditun
ajolakabekoaren
pake-illun.

Gizartea...
bere naikerietan
itoa,
itsu...

Aberria...
gaur daño
-doi-doi, baño-
bizirik diraun Sorterria,
Zu ta guziok galtzeko
asmoz
etsaiak
azpi-jokoz
gertuturiko
illobi-zoko.

Bañan ez duzu etsi!

Erriaren inka larrian,
zere lo-zorrotik
esna

zera
esna
eta
erioaren urbillak
asaldaturik,
kanposantuko illak
ere
entzungo luketen
deadarrez,
indarraren-indarrez,
oiu
egin duzu,
oiu,
obeki
esan,
karraxi-samiñ
galtzear doan
erria esna dediñ.

Bañan ai!
bai zorigaiztoko erria,
jakintza-kulturak
baño
ardantegi ta
futbol-zelaietako
bilkurak
gogozkoago
ditun erria,
bere buruaren
problema larria
ikusten ez dun erria,
zure dei negargarria
entzun nai ez dun erria.

Zuk ordea,
usteak-ustel,

esanak-esan,
ez duzu etsi,
ta ez duzu etsi nai,
zure deia ezetsi
dun erria,
bere lo-zorrotik esna dediño,
arrotz zapaltzallearen
atzaparretatik
aske dediño.

Eta len baño
ozenkiago,
bein ta birritan,
eun ta millatan,
karraxi dagizu,
karraxi
lan-oletan,
karraxi
aldizkarietan,
karraxi
erria bere buru-jabe izatera
erakarriko dun karraxi,
abesti-solasetan,
eleiz, etxe-kaleetan.

* * *

Zentzu berri,
Gogo gazte,
Aberri-miñ...
Oi, Gaurko Euskal-Gaztedi berri!
Erri zaarraren udaberri!

Nekeen seme!

1
Aste guziko izerdi-truke
sari esker-beltz, apurra
jaso ezinik zabiltzan langil,
mnpeko buru zuurra,
guzien bizi ta onagatik
damazu bizitz-laburra...
ta zenbat jauni egiten zaion
zuri zor zaizun agurra!

2
Zu zera gure oraingo eta
geroko itxaropena;
zuri zor zaizu jaten dan ogi,
ta soñean degun dena.
Bañan lurrean goratuena
izan behar zendukena
arkitzen zera apalenetan
apal eta txikiena!

3
Goizean-goizik utzi oi dezu
sukalde bakar, ixilla,
eta or zoaz puska-legorraz
sari pitiñaren billa.
Zuk beziñ ongi iñork ez daki
zenbat neke, katramilla
pasa ondoren irixten dezun
eguneroko opilla.

4
Uda naiz negu, otz edo bero,
or zabiltza goiz ta arrats,
keak eta autsak ongi beltztua,
aurpegia izerdi-pats...
soñean jantzi zikiñ-illuna,
urratua eta narrats...
Ai! guzien gañetik zuk izan
bear zenduke aberats!

5
Ainbat izerdi ta neke gabe,
zu baño erosoago
ogia jaten duan amaika
alper munduan ba-dago.
Bañan noiz arte, menpeko gaxo!,
noiz arte zera izango
aintza ta ospe gabeko txiro,
guzien azken-urrengo?

6
Ondasun-diruz ongi beteak
ta neke-gabe eroso
bizi diranai oroit-arriak
non-nai dizkiegu jaso.
Zu bitartean aize zakarrak
nun-naitik zaitu eraso...
Ai! Noiz arte iraungo du lurrak
itxu, eta begi-lauso?

7
Eten gabeko lanean ari
dan txingurria bezela
txanpon pitiña bildu eziñik
zabiltzan langil apala,
denen gañetik aupa nai zaitut,
eta eskuan txapela,
begirun aundiz esku zartatu
oiek muinka ditzadala!

8
Lurrean azken-urrengo zeran
behartsu ez-ezaguna
batzuei iguin bazaie ere
zu zaitut jaun denen jauna.
Eta ainbeste neke ondoren
etorriko da eguna
orain arteko naigabe oro
poz biurtuko zaizuna!

Eustakioren bertso batzuk

Gizonen pausoak itsasora
dijoazen urak dira...
bizitzaren gurpillak garamaz
illunpetako obira,
argia gautzen eta bizia
finitzen dan ur haundira.

Egun-xintak gaua dakar,
biziaren gau gordiña!
Bainan eriotz guziak
ez dute erranai berdiña.

Goiz-intzak sortutako lorea
arratsean iltzear dago...
Hala, gu ere erio segak
denok gaitu eramango...
Bainan eriotz batzuk ditugu
besteak baino pisuago.

Egun-xintak gaua dakar,
biziaren gau gordiña!
Bainan eriotz guziak
ez dute erranai berdina.

Erri-interesengatik iltzeak
mendien pisua dauka,
bainan fazisten morroi bizi ta
zapaltzallentzat iltzea
xoriñoen luma grisa baino
pisu gutiagokoa da.

Egun-xintak gaua dakar,
biziarengau gordiña!
Bainan eriotz guziak
ez dute erranai berdiña.

Ideal gabe morroi iltzeak
ez du deus ere balio...
Erriagatik il danak aldiz
bizitzari argi dagio...
Ur guziak ez dira gaziak
erio denak ez erio.

Egun-xintak gaua dakar,
biziaren gau gordiña!
Bainan eriotz guziak
ez dute erranai berdiña.

Esazu itz erdi!

Zer duzu nai, Aberri!
Atxillotuen Erri!
Zer duzu
deiaren-deiez
neri
deika negarrez!?
Zergatik gau ta egun
zaude zu begi illun,
nere
aldamenean
beti
negar batean!?

Gau ixillean ere
or zaduzkat nere
oe-
buruan, beti

beziñ
zurtz, ta negarti...
ene atseden loa
urratzen dun leloa
beti
zure aoan
dezu-
la gau osoan.

Zertarako nai nauzun
esan zaidazu egun,
eta
zure aldean
nauzu
"amen" batean;
prest bai-nago, zugatik
naizen guzia gaurtik
eman,
ta neke oro
kemen
guziz jasateko.

Itz erdi bat esan ba,
eta or nauzu Ama,
seme
zintzoenak dun
txera
ta maitetasun
beroena baño askoz
anaitasun areagoz,
zure
mende-joputza
lotzen
duan estuntza
apurtzeko, zainetan

nik irakiten detan
euskal
odol-ogrria
(erri-
zaleen azia!)
noiz-nai ixurtzeko prest.
Ezer gutxi dezaket...
Bañan...
gazte naiz, eta
maite-
miñez beteta
nago. Iskillu onen
suak, indar ta kemen
damait
naizen uts oro
zure
alde galdetzeko!

Esazuba itz erdi...
ta or nauzu Euzkadi!

Izenik gabe
1979
Algorta

2002. urtetik geroztik bahitua

Arima

(Hitz hauek 2002ko neguan argitaratzeko intentzio barik idatzi ziren. Txikia eta eroritako beste burkideak omentzeko edizioa dela eta publikatzen dira. Zenbait eskutitzen eta 1973ko apirilaren 29an Zokoako elizan P.Larzabalek esandako Txikiaren hil-mezaren pasarteak dira. Kontatutakoak gertaera konkretuak dira, ez ederrenak ez latzenak, ez berezienak. Kontziente izanez horma hauen bi aldetara askok bizipen latz eta gordinagoak izan dituztela eta bizi dituztela, eskatu ta eskertuko nuke egun guztiak horrela dirala ez pentsatzea, gutako bakoitzarengan modu ezberdin baten eragiten duelako egoera bakoitzak, eta zentzu horretan lerro hauek ez dutelako holako ezer argituko. Esaldiren bat egilearen izena aipatu barik geratu bada barkatu aldez aurretik. Izenbururik ez zuenez, arima hitza aukeratu dot, nolabait lerrootan adierazitakoa biltzen duelako. Sentimen ta desioen gunetzat dekogu arima. Herri baten gogo, nahi ta muina da. Adimena ta sentikortasuna ere arima deitzen doguz, agertzen omen dan hildakoen argi edo itzala ere arima ei da, ta armen kanoiaren barrunbeari arima esaten zaio. Zuri, sendi ta etxekoei, dana. Nsktx, "izeko" A-k, J-A, J-P, A-O, Tx-Ab, 2Tx, Tkll, Grd, ta zuzenean edo zeharka ere agertzen diren beste danei.)

Edonon, edonoiz eta edonola. Euskal Herria bizi dadin erori diren guztiei.

Atzo, egun ta biharko gudariei.

Heien izenak abestuko dituztenei.

Ixilpean zuzen eta xuxen gure egunak alaitzen dituzuen kideei, itsaso bat maitasun.

Kantauri-itxaso zabal-neurgea, Euskal miñen ataria: Zure erraietan zer dezu itota. Ugarteren bat? Uria? Kanpai-ots miña entzuten degu deika-deika, urrutia... "Boga, boga mariñela; Joan behar degu urrutira...!

...Atea zabaldu dabe, -bonjour!- esan eta berehala itxi. Deliriumen Boga Bogan bezala egun bat, eta beste bat, eta beste bat... ziega honetan. Hiru liburu, koadernoa, azalak, boligrafoa, zigiluak, tabakoa ta poxpoloak... fisikoki. Besterik ez. Leihorik ez, aulkirik ez, kideak ikusterik ez, aldatzeko erroparik ez, barrukoa ere ez. Zenbait hilabetetako kontua da, zelda normaletara itzuli arte, beste batzuk urteak egiten dabez hola ta askoz txarrago, beraz txantxa gabe askoren ondoan ez garala txarto bizi esango, ezta?. Zoriontsu, itxaropen ta bizipozez. Hori ei gure eguneroko garaipena. Solaskiderik ez, musikarik ez, txistuka gogoratu behar norberaren abesti kutunak, soilik sarrail ta kisketen hotsak eta oihu galdu batzu entzuten diren pasabide honetan. Egunean ordubeteko bakarkako paseoa. 28 pausu, zortzi aurrera, sei ezkerrera, zortzi aurrera, sei ezkerrera, patioari bira osoa, Ruperren abestian bezala buruz ikasia, etxalderako bidea lez. Hemen ere buelta ezkerrera, erlojuaren orratzen norabidearen kontra, erlojuaren orratzen kontra ibiltzen da ezagutu dodan patio guztitan, korrontearen kontra doan arrainaren antzera...

Itsasoz munduari bira emon zion lehena euskalduna zala esan ziguten ikastolan. Askatasunak gurean ez deko New York-eko Upper badian bezala estatuarik. Halakorik nahi ere ez. Monumentuak mugiezinak dira eta oraindik ehunka urte geroago, euskaldunok biraka jarraitzen dogu ardatz txiki edo handiagoaren inguruan. Egunkarian irakurri dot gu bisitatzeko senideek egindako kilometro kopuruarekin munduari hamaika itzuli emon ahal zaizkiola ta urtean ilargira joan etorri bat. Euren munduko birek ere ez dute kale izenik.

Hamabostean behin, trenez edo autobusez honainoko bidaia egiten dabe. Elkano kaletik gertu urteten da autobusa, marina komandantzia atzean utzi, haizea alde edo kontra. Norbaiten bulego grisean hilabetean ordubeteko bi bisitekin nahikoa dekogula erabaki dabe, ta itsasgora. Itsasgora esaten dotsut, hemen barnekoa etengabeko gorabehera bat dalako, ta oraingoan itsasgorak ekarri gaitu zigor ziega hauetara. Badakizu zelakoa dan hau, 23 ordu ziegan, leiho barik ta ordubeteko bakarkako paseoa, abestian bezala nik ere etxeko egongela dekot buruan, gogoan

ageri zaidan parajia, betiko paseo honetan, paseoaren oroimina. Zeldara bueltan mahai gainean lau-bost eguneko atzerapenagaz heldutako izparringian irakurri dot urperatu dan petroliontziarena, dana baltz dagola. Irakurriko zendun.

...Badakizu zelako eguna izan dan, hilabete ta gero lehendabizikoz kideak berriz ikustea, norbaitekin oihukatu beharrik gabe mintzatu ahal izatea, aire freskoa, freskoagoa behintzat, hartzea, leihotik begiratu ahal izatea, zerue sare barik ikustea, hilabete bat iragan ostean erropa aldatu ahal izatea edo aurpegia ispilu batean barriro islatua ikusi ahal izatea. Ez dakit niri bezala gertatzen bazaizun baina sentsazio arraroa da hilabete baten ondoren norberaren aurpegia barriro ikustea, nahiz eta gauza sinplea dirudien. Zenbatek ez dute besterik ez bada pasabidearen bestaldean, oihuka, hitz egiteko laguna eukiko? Ta zer izango dira gure hiru hilabeteak beste batzuen urteen alboan... Maite dot kastigu ziega deitzen dienetatik danok kopeta gora atara eta txakurren aurrean besarkatu ta umorez elkar zirikatu eta txantxak egitea. Gogorraren aurpegia jartzen dabe baina badakit odola sutan jartzen diela horrek. –Detenue, gaur ataratzen zara quartier disciplinairetik-, ta ezetz, ataratzea ukatzen duzula esaten diozunean bezala. Ez dakit ze gorrotatzen dodan gehiago, "detenue" deitzea edo nire izena esatea.

Zenbat gauzataz berba egiten dogu patioan, ezta? Gaur patioko elkarrizketa azken hilabetearen ingurukoa izan da, ta noski, "aktualitatea" baita, ormaz bestaldera atzeratutakoa, baina datorren asterarte ez dot telebista berreskuratuko eta irratia ez dostie bihar arte emongo, beraz aktualitatea, hemen behintzat.

Hesiak, oztopoa, barreak, langak, sareak... zenbait arau ta ordutegiz gain, inposatutako bizitoki honen eguneroko paisaia dira, baina gaur etengabe hortaz berba egin dogu eguneko patioko hiru ordu eskasetan. Petrolioaren kontuetan murgildurik, petrolioaren "transbasea", hormigoizko bunker bat eraikitzea, zirrikituak soldatzea... ta irakurri dogun espainolen azken ideia, F18 pare bat bidali, misil bina bota ta dana erretzea, flipata dauz.

Konturatu gabe bozgorailuetatik gu deika hasi dira, azken abisua, -promenade termine, vous remonte, dernier appel-, ontziratu ezean amarrak askatu ta itsasoratu litzatekeen itsasontzi baten moduan. 9m^2-ko konpartimentura heldu, postontzitik izparringiak hartu ta mahai gainean zabaldu, zure eskutitzik ez. Berehala irakurri, gaur espetxeratu daben kideari lehen bait lehen pasa ahal izateko. Modulura bueltatu ta kide berri bat aurkitu dogu. Antzina ozeanoa gurutzatzen zutenek portuetan koarentena pasa behar zuten, hemen antzera arrivant moduluan, egonaldi laburragoekin. Zortea izan du eta ez da ingresotatik igaro. Atzerriko portu handi baten arrotz, iritsi berri. Gartzelaratu berri. Denok izan garan hori. Afaria utzi diguten arte Euskal Herritik datozen berripaperak gainetik irakurri ostean, gure moduluko PCE(r)-ko presoak, bi patioak partitzen dituen paretako zirrikitutik pasatako egunkari madrildarrari begirada bat. Kartzelariek guk pasatako izparringiekin ikusten dabenean miaketa egiten diote –euskaldunak eman dizun journala delako-, ta guk lasai lasai daramagu zeldara "El Pais", txakurrak deus esan gabe, badakizu, gurearen edukia arriskutsuagoa edo.

Ez da bakerik askatasunik gabe. Ez da bakerik zuzentasunik, ez eta egiarik gabe. Badakigu gaurko egunean egia dutela beren gisarat lantzen, aldatzen eta berdin sortzen, lantegi berei batzuetan: radio-telebixta-etxe, berri biltegi, kazeta moldatei eta holako lekuetan. Gobernua otsoago eta gezurtiago izaten da berrien zabaltzeko. Guztiz geienek egi sakratutzat hartzen dituzte, gobernuaren iturri bakarretik entzuten dituztenak. Ahatik zorionez badira, berri zabaltzaileetan ere, egiari jarraikitzen direnak, hortakotz beren bizipidea galduko badute ere.

"7000 soldados toman la costa", berehala lerro artean irakurri dot herriko hondartzetan ehunda hirurogei soldadu erregimentua ezarri dala, ta dolorea emon dit. Koarto honetako orman ditudan herriko hondartzetako argazkiak begiratu dodaz, ta gaueroko kartan lez present izan dodaz. Han, maitemindu ginan lekuan; 1912ko abuztuan ekaitzak itsasoan 143 euskal arrantzale hil zituan bezalako egun berean, izar euri azpian, maitasuna ta guda gaba batez lotu ziran lekuan, han ilargitan lo ta izarretan jaikitzen ginan tokian. 160. Gaueroko ohe ondoko argazkiari muxua emotean segur 160 hoiek be burura etorriko zaizkidala ta

pentsako dodala ie emoten badautsoen.

7:00-tako kontrolean lehen bisita txanda dodala esan dostie. Katxeo bat, 6 ate, identifikazio txartela erakutsi, eskua makinan sartu, eskuan seilua, beste katxeo bat, itxarongelan pilatuta itxoin ta azkenean lokutorioa: besarkadak, muxuak, beste dana, badakizu, nola kontatu ezta? Ezin, baina badakizu ze esan gura dodan. Itsasgizon bat entzun neban behin esaten lurragaz dituzten kontaktuak laburrak dirala, eta guk telefono deirik egiteko aukerarik gabe, eskutitzak ta hogei ta hamasei bisita ordu urtean; marinel hori bezalakoak baginen pentsatzen hasi nintzen, nahiz eta lurrarekiko lotura hori sekula ez eten.

Konta dostie ejertzitoarena. Herriko jendea hara doala eta sarrera debekatua dagola. Haiek ez dabe maitasun berdinarekin garbituko, garbituko dabe? Bost axola eurei lurra. Lemoiz nuklear bihurtzearen aurkako herri borrokak zirauen artean "segurtasunagatik" kuartelaren inguruko basoko zuhaitz guztiak moztu zituzten kuartel berekoak dira. Basoaren beldur, nonbait, euren kasernatatik kanpo ere, irakasten zalako eta ikasten jarraitzen dalako, aurreneko Sten MK2 zaharretatik egungoak arte. Marietta. Cetme-C, H&K, G3, AK-47, MAT 1949, UZI, M16 edo beste batzu, desmuntatu, garbitu, olioztatu, muntatu, kargatu ta haiekin tiratzen. Carlomagnoren biografoak idatzi zuen Orreagako erasoa mendeku barik geratu zala atakatu ostean gure arbasoek lurra alde zutela desagertu ziralako. Irlandaren sartaldean txikituta bukatu zuen Espainiako armada garaiezina eraikitzeko Bardeetako basoak ere moztu zituzten. Euskal Herriko basoei beldurra aspaldiko zeozer da.

Ez ginen gu gerrari lotu. Bainan espainol jeneral bat zen oldartu. Eta hura zitzaikun gure lurretan sartu... Gerla bizkar gainera etorri zitzaikun eta, oraino ere, hor daukagu. Alabainan etsaia dugu gaur oraino agintari...

Gogoratzen igande arratsaldeetan automobila hartu eta Basordasko kala gainean zentral nuklearrari so orduak geratzen ginela? Ez dakit nola adierazi, baina zirrara berezi bat sortzen dau bertan geratzeak. Ezin deskribatzeko hitz egokiak elkartu. Han geratu ziran, hil ala herio borrokatu ziran batzu, ta umetatik gordetzen dodan gomuta garbienetako

bat hori da, gaurkoa bezalako abenduko goiz batez bertan pikoloen Land Rover edo patrolarekin topo egin zuenaren, edo askatasunak eskuan lehertu zionaren omenez portuko ureko koro ta lore sortei begira nengoela aita eta amaren artean bakotizari esku bana emonda, txikitan, oraindik olatu batek hondarrean egindako gaztelua suntsitzen zidanean haserretzen nintzenean. Egun batez lore hoiek bueltatuko dauz itsasoak baina bitartean baga handiaren zain jarraituko dabe jitoan. Herriak olatu hori noiz altxa zain.

Ordua joan, atea giltzatu, pasillotik bi oihu ta azkenez banaketa, fisikoa. Bakoitzak bere bidea. Guk itxarongela, biluztea, eurek itzulera bidaia, taguk bidaiaren kezka. Marinel hura bezala baginan pentsatu nuenean konturatu nintzen beharbada baleen antza gehiago dekogula. Bale batek Faroe irlen ekialdetik, irlen mendebaldean dagoen beste bale batekin komunikatzerik baduelako, eta guk antzekoa nonbait. Ixiltasunez egindako hitz ixilez bada be. Paketea hartzerakoan galdetzeko nebazan gauzak oroitu dodaz, betiko lez ahaztu eta ateratzerakoan gogoratu, ez zan garrantzizko ezer baina azken hiru bisitatan ahantzi dot, kale izkinan orga txiki, balantza herdoildu eta zurezko kutxekin arrainak saltzen zebilen andrak bertan jarraitzen duen, herria egunean irudikatzeko noizbehintza halakoak galdetzen dodaz.

Ziegara bidean chefarekin egin dogu topo korridorean, "berria" bakarrik dagola goian eta arropa pasatzen uzteko, kidearen eta nire zelden leihoen kristalak apurtuta dauzela ta elurra ari duela esan dotsegu. Leihorik ez eukitzetik, kristaleko zuloa egunkariekin estali behar izatera. Barriro protestatka hasi ezkero ezinezkoa izango dala danok elkarrekin jartzea, ta ea zergatik arduratzen garen leihoaz berehala zigor ziegetara bueltatu behar badugu. Protesta egin gabe danak banatuta gaude, beraz debalde erre du polbora, ez dogu ezer galduko eta kideak hitzari eusten geniola esan dionean ta jarki zaionean, karramarroen moduan atzeraka hasi da, ta bere huhukeriaz –Gabonak lasai pasa, pentsa ezazue familietan- esan dau. Familiatan pentsatzeko... Putakumea! Ez da erabat konbentzituta joan barrezka entzun gaituenean. Ahoa zabaltzeagatik egun pare bat barru, mutik esaten ez dostien egun hoiek, gabon zaharra, urte berria eta, zigor zeldetako itzalean pasatuko doguz, sendietan pentsatuz ta

modulu guztietako kideek batera.

Arratsaldeko patioan betiko berriketa, bakoitzari kontatu diotena, goraintzi trukaketa, trasladatu zutenaren berriak, azken atxilotutakoenak, beste modulokoen mobidatxoak... Begiztatu ta berehala aljeriarra hurbildu zaigu, atzo hankaz gora utzi zioten zelda, Fado portugaldar CD bat niri pasatzen ikusi eban baten batek eta "badaezpada" miaketa. –"Mes amis les basques-, eguneroko berdina, eskua estutu, bestea bularrean jarri, marinel zalarik behin Santurtziko portuan egon zala esan eta bera ez dela GIAkoa ez ezer, bera arma saltzailea zala. Hilabete batez bistatik galdu, ta berriro ikusi eta segituan berdina errepikatuko du egunero, beste hilabete batez "desagertuko" garen arte. Ea herrira petrolio asko heldu den galdetu dau lagunak. Asko? Ze ostia, ba ez dakit zenbat dan asko ta zenbat gitxi. Galizakoaren aldean beharbada jendearentzat gitxi izango da, baina edonola gehiegi, ez? Kide batek bakartasun fisikoan zenbat denbora daraman galdetzea bezala izango da, beti larregi.

Zigor ziegetan 23 ordu zeldan itxita, hemen 21, beraz gauero tertulia leihoan. Ilunaurrera aurreratu dogu orain, edonork atarako du leihotik ispilua beste lagunak ikusteko egiten duen hotzagaz. Gure azpian betikoa. Mikak, txolarreak, usoak eta zozoak jendeak botatako janariarengatik burrukan, edo futbol zelaiko putzuren baten sartuta hegoak astinduz garbitzen; egunkariko azaleko argazkian petrolioa gainetik ezin kendu, itsasertzean zebilen ubarroia lez, ubarroi hura bezain beltz, belea, betiko lez be, leku altuenean, talaiari uniforme eta fusildunaren gainean, garitaren teilatuan txakurra bezala dena gerizatzen. Geroz eta gehiago maite ditut, ez dakit baltz baltz diralako edo beti leku altuan dauzen arren maiz oinak lurrean jartzen dituztelako. Bo, kideak agurtu, aulkitik jaitsi, leihoa zarratu, ta idatzi edo... Larunbat ta igande gabetan badakizu, irratian futbola eta telebista loak hartzeko. Hasieran uste neban giltzapean egonda egunak aingura bezain astun behar zutela, baina konturatu gabe hegaz doaz egutegiko orriak, niri behintzat, ta noski, oraingoz behintzat...

Argazkiari muxu emon ta –Ondo lo ein, maitxe!-, kamiseta azpian sartu, burua bular gainean lokartzen jarraitzeko, burua bestearen bularrean jartzen duenaren bihotzak hamalaugarren taupadatik aurrera bestearen

erritmo berdina hartzen duelako. Biharkoan kontatuko dotsut gaurko ametsa, espero esnatu eta derrepente ahazten ez diren horietakoa izatea.

7:10. -Bonjour- esanez zabaldu dabe atea, ordu gitxi lokartu nazela, eta ordu hauetan petrolioa itsasoratzen jarraitu dau, hau idazteko erabiltzen dodan luma izara zurien gainean utziko banu bezala, gitxinaka beltzunea zabaltzen. Telediarioa jarri dot, soinu gabe, eta irratia piztu, nire maniak. Bilbaon 5º, San Sebastianen 6º, Vitorian 2º ta Pamplonan 3º. –Cielos muy nublosos con precipitaciones moderadas, heladas nocturnas, brumas, nieblas matinales y temperaturas en ligero descenso-. Berri handirik ez, Asturiesko portu baten "los cubos de la memoria" estaltzen ari direla beltzez ez zikintzeko. Pikutara! Hori bai, estali beharra, arraina pasa eta saera bota, nahiko pozoindu dabe kubo horiek dagoeneko, laster ahaztu dabe pintura kutsakorraren marraztuak zituztela. Gaueko "telediarioan" bai, trumoi hotsa barnealdetik, ta goxo goxo lokartu, batera bizitako holakoak buruan. Goizean txakurrak atea zabaltzean –prestatu, epaitegira zoaz- esango balu... Gehiengoarentzat ulergaitza izengo da, ondo legoke notifikazio bat, estradizio epai bat, galdeketa bat... Furgoitik hainbestetan ibilitako kaleak begiztatu ordutxo batez, eta beharbada zugaz. Gabean begiak ixterakoan askatasun fisikoan elkarri emondako azken muxua dekot gogoan, kotxe haren barruan, hurrengorako, bost minutu beranduago bustitako lurrean geunden RIPen abestiaren protagonista lez, un cañón acaricia tu espalda, un temblor se apodera de ti, una voz te dice no te muevas...milaka protagonista dituen abestia. Harrezkeroko auzitegiko kalabozoak fisikoki zu ikusi, entzun ta zorte pixkatekin muxu bi emon eta besarkatzeko aukera bakarra.

7:08tan –bonjour, promenade premier tour- lehorra besterik ez. Zure eskutitzik ez gaur, seguraski epailearen bolanta sareetan egongo dira noiz askatu zain, baina zu bai, beti. Lagunenak eta etxekoenak, ta postal baten atzean markagailu baltzarekin egindako tatxoi batez kolegak: "hola dau hondarra". Beltz, garita gaineko belea lez. Gu epaitegian ikusteko etorri ta bueltatzen zirala lagunak bahitu, tortutatu eta audientzia nazionalean entregatu zituzten tratularien txakur-serbitzarien uniformeak bezala.

...Ez ditake bakerik askatasunik gabe, ez eta ere zuzentasunik gabe.

Gobernuak nausiago eta nausikeria geiagoz, gaztigatzen ditu, berari oldartzen zaizkionak. Badakigu nola, gu Euskaldunak (eta gurekin zen Eustakio) zoin gaizki berrikitan erabili gaituen frantses gobernuak, bere auzitegien bidez ere, bainan bereziki bere enpleguko dituen esku-makilen bidez. Ez zen hor zuzentasunik, buruzagi batzuen burukeria baizik.

Juxtu gaur kide berriak janzkeragatik galdetu dosta, ea beti doluz nagon. Ohituko da. –Kalearen hasieratik ikusi dot labezomorro bat ta banekien nor zan, ea koloredun zeozer janzten dozun noizbait, larruzko eskularruak beltzak ere, nahiko da...-. Baina tira, baltza kolore guztien nahasketa da, ez?

Ez dot ahantzi. Gogoratzen pozik jartzen ginela kalearen hasieratik maletagaz hurbiltzen zenean? Leonenaren antzekoa agian, sasiko lanak obratzeko behintzat gauza bereziegirik gabe. Beharbada egun, han topatuko bagina baltzez jantzita hondartza garbitzetik gentozen galdetuko eban. Nahi bai. Plano artean pasatako egunak, mapa orman iltzatu edo lurrean zabaldurik, konspiratzen. Maite dodazen pertsonek erabilitako hitzak hartzen noa ta "konspiratu" berari "hartutakoa" da, jendea presente eukiarazten dau besteek erabiltzen dituzten berbak hartzeak. Berandu arteko elkarrizketak... Norbaitek arrazoi handiz idatzi eban hori zala zoragarriena, konpromisoagaz bat egitearen betetasuna ta batez be kideen arteko lotura kuttun hori. Telebista piztuta, auzokoak belarria orman itsatsia balu ez ulertzeko. Bat-batean isiltasuna, sarri ikusitako filma, ez naz aspertuko. Leonek Matildari helduago denean ze izan gura duen galdetzen dio, -Nettoyeuse- erantzuten dau. Mugimenduei oso sentsible zaion merkurioz betetako hodia beti ez da barometro edo termometro. Xahutasuna ere ez da beti erratz eta lanbasarekin lotzen. Matilda txikiak ez zuen eskobagaz egiten dan garbiketaz berba egiten. Astiro zapalduz oheratu, 45 bat berun dosi ohe bakoitzaren alboan, aurikular bat belarrian, ta baxu baxu txutxu-mutxuka, egongelako txokoko itzalpeko besaulkian Leon bere betaurreko ilunekin dena zelatan bagenu bezala, Leonek ez du inoiz ohean lo egiten... Goizeko seietan –Itsaski handia eta zakarra, hondoko itsasoak bi metroko olatuak jasoko ditu, haizeak iparraldetik joko du lau-bost arteko indarrez-, radio Miami, irratia piztuta lo, beti lez, berdin jarraitzen dot espetxean e! Ohe ondoan

irratia, paper bat ta luma, coca cola bat, tabakoa. Linternatxoa ta bestea falta, zu bazaudelako. Gitxika, banatzeko momentuak heltzen ziran, kalexka artean norabide desberdinetan galdu arte. Batzu eskumara, besteak ezkerrera, gora edo behera. Kezka, bisitak bukatzean bezala, itsasontziak itsasoratzean lez, joaten den senidearentzat eta geratzen den familiarrarentzat. Joaten danarentzako eta geratzen denarentzako. Azkenengoan, joan aurretik itsasontziek daukaten konpas moduko bat utzi zizun opari, bitakora antzeko giltzaria edo. Zuk niri egindako lehen oparia ere hori izan zan, iparrorratz bat. Norantza sekula ez galtzeko.

Ahatik, egiazko bakerik ez ditake, ez baditugu haren oinarritzat hartzen askatasuna, zuzentasuna, egia, anaitasuna. Askatasuna diogularik, erran nahi dugu gizonen eta populuen askatasuna.

Françoisek eskutitz baten hola deskribatzen ebazan kideegaz banaketak: "Badatoz kamioetan. Batzu eserita, besteak zutik. Ta euren atzamarrek "garaipena" diote... – ez dogu sekula amore emongo-. Beiruten itxaroten genuen Israel. Haiek ta guk. Badoaz. Eta gu, negarrez, oihuka, muxuak bidaliz, nola badoazen begira... Eurek, ixiltasunean. Guri irribarrez. Gu animatuz. Hortzak estu. Guk –laster arte- esaten diegu. Eurek, bueltatuko gara-. Baina eurek kamioetan daude, eta gu kalean. Badakigu apurketa honek suposatuko duen oinazea. Bide zati bat oraindik, gero begiradak soilik lagunkide... Joan dira". Agurtu, ta bakoitzak bere ibilbidea, hautu berdina, itsasontzi iguala, portu berdina helburu, marinelak moilatik agurtzeko bezala ezin eskua astindu, burua itxuli gabe bakoitzak bere itilbidea. Hemendik ez oso urrun duela gitxi ziega bateko atean txarteltxo baten bere abizena jarri dabe ta bere argazkia kartel batetik bestera pasa da, ta jaso dodan bere lehen kartaren azken lerrotara heltzeak elkartze eta banatze hoiek ta Françoisek idatzitako gutunak gogorarazi dizkit, horregatik kontatzen dotsut zer esaten zuen banatzeetaz, ta oroitzen dot zelan jarraitzen eban: "hemen emakumeek barre egiten dute, beti. Nola egiten dute? Seme alabak galdu, senarrak, gurasoak, lagunak, senideak, etxeak galdu zituzten, aberri bat. Mundua maite dute. Ta esaten didate, -zenbat gustatuko litzaidake Frantziara joatea!- Ta lotsa sentitzen dut. Lotsa, etxea ez delako denontzako gotorleku. Kartzelak daudelako. Hiltzeko denborarik

gabe hiltzen diren gizon, emakume eta umeak egoteaz lotsa. Lotsa, Palestinako herriari bere herria lapurtu ziotelako. Eta lotsa, Frantsesek ixiltzen direlako... Munduaren bihotzaren taupadak Palestinan daude. Palestina okupatuan. Palestina exiliatuan. Palestinak borroka egiten du. Palestina bizirik dago. Palestina ohorea da. Palestina umez betea dago. Umez betea, ta ume bakoitza Palestina da''.

...borrokan ari diren euskaldunek, ez dute guduka egitren bakarrik beren alde, bainan ere eskuideetaz bagetuak dauden gizon guzien alde.

Umeak. Izaparringiko azken orriko errekortea bidaltzen dotsut. Kirmen Uribek kontatzen eban txikitan portuan barkuen kez belztutako bandera espainiar txiki txikiari begira harro harro sentitzen zirala ikurrina handiagoa zalako ta gainera aurreko mastan zegoelako, jakin gabe nabigazio arauetan garrantzitsuago bestea zala, baina pikutara arau hori. Guri berdin gertatzen zitzaigun. Gu be harro sentizen ginen. Ikastolan, Vasco da Gamak esperantza oneko lurmuturra aurkitu zuela esan zigutenean ere, harro harro uste izan genduan hura euskalduna zala ta harro sentitzeko gauzak zirala, Lope de Aguirre ta holakoenak. Kaian ''vascoak pikutara! Gora euskaldunak!'' pintada egin eben arte. Arrainak noiz tenk egin zain geunden, udaletxeko langileak kaiko horma zuritzera etorri zirenean. –Turistek ez irakurtzeko da- esan ziguten aterpeko betiko zaharrek, brina, kulubiz, salabardo, arpoi edo sare artean potxerekin tretzetan amuak jartzen berriketan zeudela. Ta zerikusirik ez bazuen ere orduan hartu genion susmoa Vasco horri, ta konturatu Vasco da Gama ez zala euskalduna izan behar. Baina ez ginen gehiegi larritu, itsasgainean boteak egiteko harriak botatzen edo sartzen ziren ontzi handiek sortutako olatuen txapak hartzen pasatzen genituen arratsaldeak. Arratsalde ederrak, asteko edozein egun, txakurren patroia kaian, gu txalupa baten, arraun taldekoak erramuekin gu defendatzeko prest, andrak leihoetan elkarri esaka –honen semea, bestearen iloba, haren lehengusua eta zure alabarena, gaur bebai-. Txakurrak euren onetik aterata burua galtzen moilan garraxika, ezin deus egin. Nor eta elizmutila txakurrei kristonak esaten eta gu kamiseta sudurreraino igoa ta eskua ahoan barrea ezkutatzen. Txakurrak sutan: -Niñatos el puerto no es vuestro, dejar de hacer el indio-, -Claro que sí, es nuestro, y tuyo no, koreano!-. Ulergaitza zen guretzat, herriko ez zen

norbaitek egin behar genuena agintzea. Ez zan posible, ezinezkoa zen, gure buruan ez zan holako ezer kabitzen, ontzi handien txanpak hartzea edo hondartzara gehiegi hurbiltzea zen gure "delitua", lematu ezin genuela ontziak iparra galtzea ta ontziaren branka haizaldera zuzentzen ez jakitea ziren iskanbila horren arrazoia, kabotajea sabotajea balitz bezala. Nola ikasiko genuen ba? Norbaitek, momentu batez denok pentsatu genduna esaten zuen –cortate, agian ixildu ia tio, fijo berotuko dauskuela-. Goiko plaza ta kaleetan portuan mobida zegoela bost minututan zabaltzen zan baina, ta danak elizmutila gehiago animatzeko jeistean berehala aukera hori baztertuta geratzen zan, ta zizaña gehiago sartu: -Esaiozu txakurrari ea uger egiten dakien.- Arraroena, txakurrak ta elizmutila ezagututa gehiagotan egurtu ez euskuela. Nik uste zaharrek nahita uzten zizkigutela hainbeste maitasunez zaindutako txalupak, arraunean gure dorpeziaz ta "desastreaz" barre egiteko, ta arratsaldeari saltsa emoteko. Urteak beranduago egunez zaharren aterpea zana eta aspaldiko kofradia-eskola nautiko-sasiudaletxe ondoko ganbara ta txokotxoa edo hormatxoa iluntze eta egunsentiaren eskola bihurtu gendun, ehundaka goizetan, iluntze eta gau gehiagotan.

Hurrengo arratsaldean pintatzeko lehorrean zegoen txanel baten txopa, karel ta tostatan edo bildutako sirgatan eserita pipak jaten, praktikoa ikusi eta sartuko zan hurrengo kargaontziak kontainerrak, mineralak edo petrolioa garraiatzen zuen asmatzera jolasten ari ginela arras ase sentitu ginan, gure aurrean, zuritutako orman "This is not Spain" idaztera jaitsi ziralako hiruzpalau.

Gutatik bakotxa girena gero populu bateko haur, gure eskubideak eta gure populuarenak elkarri tink lotuak dira. Hortakotz ez ditake euskaldun seme bat libro izan, berea duen euskal populua ez bada libro. Zonbat zituen maite bere etxekoak, haurrak, jende apalak!

Egun hartan, gure aurrean pintada egin eta pikoloen Land Roverra kostaldeko errepidetik barriro euren bila hurbiltzen ikusi genuenean, guretzako normala zan arren, bezperan zaharrek esandakoa egie zala ulertu gendun ta horregatik kaiko horma postal eta argazkietarako nahiko "garbi" mantendu nahi zuten arren goiko kalexka estuetako ormek

"policía asesina" ta beste gauza hoiek oihukatzen zutela. 1969an indio amerikarrek Alcatraz uhartea hartu eben, ta gisa hartara mundu guztitik heldutako ontziak Golden Gatera heltzean ikusten eben lehena behinolako indio libre eta arroen lurra zan barriro. Nazio haren benetako historia gogorarazi eban beti preso euki daben herriak porturatzen zan orori. Aspaldi euren lurra izan zan irla hartatik, ondoren espetxe bihurtu ta ofizialki inork ihes egiterik izan ez zuen Alcatraz uhartetik. Eta gure kaiko horma ere nolabait "porturatzen" direnekiko leiho, eta herriaren gogoen erakusleiho bihurtu nahi zuten gure aurrean pintada egin eben nagusi haiek, indioek Alcatraz bezala. Txakurrek indioarena ez egiteko esaten zigutenez, gu pozik, nahi gabe edo akaso nahita "onen taldean" sartu gintuztelako. Apatxeak, Txerokiak, Txeieneak edo Siouxak guretzako beti izan direlako onak. Turisten besazpiko egunkaria ez da sasiko gudan erabilitako kontraseña, baina gaur ere eukiko dau gatazka mezue, bere kargatxoa, "varios pesqueros salieron ayer del puerto de Saint Jean de Luz en Francia hacia Guipuzcoa y Vizcaya, para luchar contra la marea negra en aguas españolas y frenar la llegada de fuel a la costa francesa". Badakizu hemendik ateratzen garenerako beti gauzela "planak" egiten, hara ta hona joan behar dogula, batekin eta besteakin, koinatuaren azken eskutitzean Donibane Lohitzunera txipiroi bila joatekoa, gutuna erantzuteko beharrik gabe trasladoa ta nere aurreko zeldan agertu da. Victor Hugok esana, "itsasontziko patroia, Gipuzkoako euskalduna zen. Marinela, Piriniotako ipar aldekoa. Bestea, hegoaldekoa, hau da, nazio berekoa nahiz eta lehena frantsesa "zen" ta espainiarra bigarrena. Euskaldunek ez dute inolaz euren aberri "ofiziala" onartzen; itsasontzi batek talde bat salbatzea ez zuen zergatik tostartekoen adostasuna adierazi nahi. Nahikoa zen itsasontziaren patroia euskalduna izatea eta taldearena izatea. Arraza hortan elkar laguntzea, salbuespenik onartzen ez duen betebeharra da. Euskaldun bat ez da ez espainola ez frantsesa, euskalduna da. Eta beti, edonon beste euskaldun bat salbatu behar. Euskal anaitasuna da" Zigor ziega hauetara itzuli garelarik bialtzen dotsut, ea moduluan bakarrik dekoen kidea beste euskaldunokin jartzen daben tirabiran gaudela, nonbait salbuespenik onartzen ez duen eginbeharraz. Ta joango gara noizbait izkira bila seme alabekin ala karramarro bila ilobekin, gure herriei beste izenik emon gura badautsoe be. Agian Donibanera sartzean La Santén gutxinaka garbitu

eben Pello Mariñelarenak margotutako pinturako eszenan bezala agurea ikusiko dogu, errepideko kartela eustarri. Saint Jean de Luz pintura gorriz ezabatu ta eskuz Donibane Lohitzune idatzia... izenaz berbetan, 17:45tan afaria utzi ta 18:00tan ontzien bila etorri diren bitartean pentsatzen egon naz Nekorak zein aukeratuko lukeen. Nekora edo Liocarcinus puber, Txitxarroa edo Trachurus, Txipiroia edo Loligo vulgaris, Antxoa edo Engraulis encrasiclolus, Bakailaoa edo Gadus Morhua...

Turistek egindako argazkietan orma zuriak agertzeko ahaleginek ezin 15-16 mendeko kale horien beste bizi hori ezabatu, guretzat leku koloretsu ta aldapatsua baino gehiago, gotorleku. Marinelen hitzetan, itsasoari dioten maitasuna nabarmentzen da eta onartuko dotzut norbait itsasoaz espainolez hitz egiten entzuten dodanean atentzioa jartzen dodala, "la mar" edo "el mar" esaten dauen jabetzeko, hortan nabarmentzen dotziet espainolez mintzatzen direnei itsasoarekiko lotura. "La mar" esaten dabenen maitasuna handiagoa da normalki. Nonbait, gordetzen gintuen kideak mahai baten inguruan txikito batekin, maitasun berdinagaz gure herriko portuaz berba egiten hasi zitzaigunean hartutako poztasuna oroitu dot. Kidearen hitz haiek gogoratuz oroitu dodaz portuko kalexketako izkinak lubaki bihurtutako gabak. Eta txakurren furgonatatik ihes, hamarnaka, eskilara estuak arrapaladan jaisterakoan -sartu hemen!- ta afaria erdibanatzeko ateak zabaltzen zizkigutenak. Soldaduskako lagunak itsasoa lehen aldikoz ikusi zuenean Lazkao Txikiri galdetu zion ea guzti hori ura zen, eta erantzun zion: solo lo de arriba, debajo son todo piedras. Itsasbeherean portua lehor geratu eta eskollera agerian geratzen zalako harrituta geratzen ziran turistei trufa egiten genien bezala, txikitan burla egiten genien etxean bakailao usaina zutelako. Orain usain sinpleena ere hartzen da faltan airea sartzen edo irteten ez den zulo "hermetiko" honetan. Kaleak harriz betetzen ziren gabetan, gugatik egiten zutenagatik beste behin eskerrak ezin emateagatik ere huts bat. Leihoko gortina pixkat baztertu ta -Alde egin dabe!-, etxeko bidea hartu aurretik, ataritik emazte ta senarraren betiko animoak, etxerako bidien kontuz ibiltzeko ta hurrengo arratsaldean ongi heldu ginala jakiteko bertatik pasatzeko. Zenbatetan gugatik gu baino arduratuago utzi doguz beste batzu ezta? Ta gu eskuak poltsikoan aldatsan gora, kale estu ta ilunak, elizmutilaren aita beherantz, emakume

bat keinu soil bategaz -zure etxerainoko bidean garbi dekozu dana, edo zoaz handik edo hemendik- esanez. Petrolio ta plastiko erre usaina, txikitan etengabe korritutako "gure" ziren kaleetan egotearen lasaitasun estua.

Txikitan olatuak moilaren kontra lehertzen zirenean hasten ginan korrika, zipriztinek ez bustitzeko, korrika hasten zan azkena zan irabazten zuena. Orduko arriskua goitik behera bustita amaitzea zan ta irribarreek merezi zuten, orain be garaipen egunaren alaitasunak merezi ditu beste arrisku batzu, eta bitarteko tristura ta poztasunak. Orduan, asko jota etxera blai eginda bueltatuko ginan, naturaltasunez sorbalda igo ta inuzente aurpegia jarri, aitak edo amak bete-betean asmatu arte -olatuak harrapatu zaitu-. Etxetik irten baino lehen leihora atara ta itsasoa begiratzen genduan olatuak bazeuden ikusteko, plazara arineketan heldu ta hortan jolastera jeisteko. Olaturik ez bazegon portuko mojei korrika atera beharreko putakeri bat egingo genien ziur. Beldur pixka bat emoten zuten, bai, beti hor euki dogu gurasoei emoten zieten ostien kondaira, ta guk hamaika urterekin "mendekatu" nahi genituen, petardoez edo urez betetako globoez, denak balio zuen. Mojen, suzko zezenaren edo txakurren aurretik, gora edo behera korrika bukatu arte beti.

Eguerdian auzetegian juntatu garenean ozta ozta muxu bat emoteko tartea euki dogu, txakurra berehala hasi da tiraka, nahikoa zala, nolabait No time for love, ez dute uzten maitatzen gauean... Putakumea e! Bueltan kalabozoko paretan pintada bat irakurri dot, egunen batez amorrua barruan kabituko ez zaiola esaten eban kideak, eta egun hortan ez duela gordetzeko indarrik egingo, kontrakoa egingo duela, "ateratzeko indarra egingo dut". Gauza bera pentsatu dot nik tiraka hasi zaigun txakurra buruan neukola, bo, kamioitik jaistean izan dogu beste tartetxo hori bi oihu egiteko, gauean sirena hotsen garraixi artean, eskulanak egiteko korapiloen liburua ihesaldia prestatzeko erabili dezakegula esaten daben zulo hontara bueltatu gaituztenean. Nola ulertarazi, txiripa, xildrea edo atsokorapiloa zer diran, haizeak jota dagoen txakurrari.

Oraingoan celulle disciplinaire esaten dioten leku hontara lau argazki pasatzea lortu dot, hoiek dira hilabete hontako "leihoa", aurrekoan kexuka hasi zan txakurra, ni portraits de famille batzu pasatzen uzteko, berak

ezetz. Oraingoan, lau argazkiak azal baten sartu, etxeko helbidea jarri eta zigilurik gabe bota nebazan gutunontzian, zigilurik ez zuenez bueltan etorri jataz, hona, juxtu nahi nuena. Badakizu ze argazki ezta? Gure itsasoan hartu genduan azken bainuarena, herria utzi baino 36 ordu lehenagokoa.

Bertze askoren ondotik Eustakiok garbiki ikusi zuen beharko zuela uko egin bere sailari edo hartan gogortu... Uko egitea ez ote zen saldukeria! Orduan hartu zuen erabakia bere hartan gogortzeko. Hora nolaz eta zer gatik, gizon goxo, maitagarri horrek armatu zituen bere beso eta gogonahiak, zapaldua dagon bere populua zerbitzatzeko. Horren kondenatzea litake, beren aberria askatzeko, lehen eta gaur, oldartu eta oldartzen diren guzien kondenatzea.

Ahaleginduko naiz argazkiko tantak ez sikatzen, baina faltan hartzen dot kresala aurpegian lehor geratu eta eskua pasatzearen sentsazioa. Izugarri maitxe dot hori! Hurrengoan argazkia egin zigutenek gure kontura whisky bana hartuko dutela esaten dostienean, esango dotziet gatza aurpegian geratzien eskua aurpegitik pasatzean ere gure gomuta izateko. Lagunak zirikatzen neutsola uste eban itsasoko soinuekin kasete bat dudala esatean. Nerudaren postariak Cala di Soton egiten zuen lez, kidearen etxekoek irratira deitu eta itsasoa entzun dadin telefonoa leihotik ateratzen dabela esan neutson arte. Batzuetan ez da deus entzuten, besteetan haizea, eta itsasoa apurtuta dagoenean, olatuen kolpe eta garraxiak segundu batzutan. Kideak egindako egutegian ilargi zaharra markatuta ikusten dodanean, leihotik berari so egotean datorkit burura marretan izango duen eragina, nire loguran lez. Ziega hauetan lantzean behin hala konturatzen naz ilargia hor nonbait ibiliko dala, abestiko ixil-ixilik dagoen kai barneko ontzia bezala zuri eta polit. Ilargiteak argitutako holako gaba batez, bihurgunez betetako errepide galduetan egiazko arrisku bihurtu ziran zipriztinengandik ihesi, etengabe atzetik auto iluna zetorrelarik. Portura gerturatzean kalatxoriak arrantzuntzien atzetik bezala. Hauek Hitchcocken filmakoak bezalakoak. Etsaiak arrantzontziek bezala baditu bere GPS, radar ta "sonar"-ak harrapakinak lokalizatu eta arteak zabaldu ta betetzen saiatzeko, inguraketa sareak, deriba sareak, finkoak, arraste sareak... Arraste-arrantzuntziek itsasoko ur gainean bezala ibilbidearen arrasto galtzadan esprai txuriz

bezala markatzen dauz etsaiarenak. Txikitako zipriztinak egiazko bihurtuta, ikastolako jolastorduko euskaldun ta espainia-frantzia gerra egia bihurtuta, jada ez gendun atzetik portuko kaleetan izaten genituen mojak. Egun haietan txakurrek aurkaketak eragin zituzten kideen kontra hemen ta barnekaldean. Hori gogoratzen hartu eustan loak bart, kanpoan sare ta irrati balizez salbu ibiliko dirala pentsa nahian.

Iraganbidearen bestaldetik kidea oihuka eguerdian, gaur epaitegitik ekarri dituen berriak kontatuz, beste egunean Madril inguruan kide bat zaurituta, beste lagun baten bila dabiltzala, sardin zahar bat lurrera ta beste txapeloker bat zauritua.

Bazekien bere beste lagun batzuek dakiten bezala, espainol poliziak agintza zuela bera ikus ordu, han berean garbitzeko. Nabaritzen zuen heriotza zabilala inguruka bere itzulian.

Han, zezen hilak ateratzeko arraste-patioa atzean utzi eta flotagailu bila kresalik gabeko portuz portuko ibilera gogoratzen hasten nazenean, ta txapeloker mugazainaren ahots zakar hori burura datorkidanean -ustedes, ¿no piensan mostrar su carnet de identidad?- erretzeko gogoa sentitzen dot beti. Instante hartan bururatutako guztia ez dot oroitzen, hotzikara bat beharbada txakurra gure poltsak usaintzera hurbildu zutenean gure karnetak begiratzen zituzten biartean, badago segundu batzutako tartea hor deus gogoratzen ez dodana, edo gogoratzeko sekula esfortzurik egin ez dodana, hurrengoa -pueden continuar- da, ta bi zigarro atera eta biak piztu nituela, nahi zenuen galdetu barik. Oroitzen dodanean beti zigarroa pizten dot, eta pentsatzen hasten naz zenbatek pasa duen guk baino askoz estutasun eta arrisku gehiago. Gaur gauez ere hala jarraituko dutela, ta oroitzen dot gose pixka bat eta elurrez beteriko egun haietan lasaitzeko hori bera esaten gendula, askok nonahi gure bide berdina askoz ere zailagoa euki arren egina zutela, eta kideak behin esan zigula -posible da-, ta pentsatzen gendula -bagoaz, posible da, joaten ari gara-. Askok eta askok izan zituzten, eduki dituzte, gurea baino askoz txarragoak, ta espero izango dituztenek hautu ta bide onenarekin asmatuko dabela. Gaur, -ondo egongo da?- galdera bueltaka, burutik ezin kendu, egun haietan ta beste hainbatetan non eta batez ere nola zegoen ez

genekien beste kideari besterik ez bazen oheratzean ukabilak itxi ta -animo, la ostia- esanez, animoak bidali nahian zulo hontatik.

Zuzenean, gomuta, iltzatuta dodan txoko hartara eroaten dot, badakit aurpegia txibiaren hezurra bezain zuri nuela beti gogoratuko dostazula, ta nik ez dot ahantziko begietan distira hasi zitzaizunean nire sorbalda atzean zegoen zerbaiti begira zeundela, ta nola kanbiatu zitzaizun aurpegia, baltz ta ilun zendun kopeta nola argitu zan, ta berehala kargutu nintzela, bazetorrela, sorbalda lasaitu nuela bere eskua itxoiten. Keinu berdina errepikatu, begiak itxi, sorbalda lasaitu ta lo geratu nintzen atzo.

7:10-tan -Bonjour, Promenade aujourd-hui?-, elurra ari dala esan dit txakurrak, ea hola patiora ez nazen ataratzen, ta barrote tartetik gosaria utzi. Ur bero katilutxoa ta hiru estalki, 15 gr. esne hautsa, 3,5 gr. txikoria ta 10 gr. azukre, besterik ez. Gorputza berotzeko trago batez edan ta argia piztu ez didanez atara bitartean gorputz osoa bildu ta maskorrean sartutako karakola lez harria bezala berriro seko geratu naz lo manta azpian, artilezko mantagaz estalia eskotilatik zeruari so nengoela irudikatzeko denborarik gabe. Ondoko bi preso arrunten oihuekin esnatu naz bigarrengoz, hasieran klabeak elkar trukatzen ari zirala zirudien baina nabarmenegia zan, C4, G3, A10, E7, B9, F1... Lehenengo biei, ez zuten zentzua emon ostean, F1 entzutean aurkitu diodan esanahi bakarra ordenadorean "laguntza" zenez, konturatu naz 30 eguneko zigorra nola edo hala pasatzen laguntzeko itsasontziak hondoratzearen jolasean ari zirala, paper laukidunetan kruzero, destruktore, akorazatu, korbeta edo fragatak irudikatu ta bonbardatuz. Kidea abesten. Txakurrek ez dute Marsellesa edo antzekorik kantatu, Belfasteko H blokean A nation once again abesten zutenean txakurrek The Sash edo God save the queen kantatzen zuten bezala. Baina -Silence!- esatera etorri zaio ta "por gilipollas" danak bihurtu gara txistulari. Ohartu da suari su ematen ari zala ta alde egin du. Popatik hartzera, Escoria txistukatu dut nik. Txikitatik zeozer debekatu nahi izan digutenean, beti beti desobeditu ez arren, desobeditzeko gogoak beti izaten ditugula ez daki edo.

Egia! Gaur bezalako egun batez lehertu eben Txikia taldekoek Claudio Coellon, Dodge Dart 3700 baltza. Horregaik etengabe abesti hori txis-

tuka. Juan De La Cosa, Kolonekin bidaiatu zuen Santoñako nabigatzailearen izenarekin, Francoren "por dios y por la patria" "gurutzada santuaren" aldeko artikuluak sinatzen zituan almirantea Dodgearen barruan. Gudarien espetxeratze eta itsasontziei gudarien ebakuazioaren debekatzea eragin eban ituna sinatu eben herrikoak Juan de la Cosa ta Luis Carrero Blanco. Plutarkoren arabera, nabigatzea beharrezkoa da, bizitzea ez. Oroitzen dot goiz batez Diego de Leon eta Claudio Coello kaleen gurutzetik pasa nintzela, Argalak 9:36tan kartera pilekin bota zuen azeratik, Austin 1300a, tunela, eta Dodge Dart 3700 baltzaren zapartadaren eszena buruan irudikatu ta pasa zuten kable luzearen errekorridoa asmatu nahian. Beste kable luze baten ibilbidea izan zena ikustetik nentorren; apirilaren 19koa, Txikiaren erorketaren hogeita piku garren urteurrena betetzen zen egun berean, beste batzuek "inperioaren hiriburuan" ere luzatu eben beste kable luzearena.

Orain konturatu naiz zazpitan txakurrari emon beharreko kartak bart mahai gainean prest utzi nituen arren ez dodala gogoratu, buruari esan nion seilua itsasteko zigiluaren liberté, egalité, fraternité-ren atzekaldeko gustu mingotsa igertzean eskutitzak entregatu behar nizkiola, beraz hau atzokoarekin doakizu. Ez dot ametsa gogoratzen, ta txorakeri bat dan arren irribarrea sortzen zait kontrolean esnatzen ez nautenean. Espero dot patiora atarako dostiela, badakizu, zazpitan esan esan behar ordutxo batez atara nahi duzun edo ez, ta lo geratu banaz ez dotzat ezerez esan beraz agian deus. Baina bo. Ez dakit itsaso urrunetan egin badodan amets, akaso Ekuador inguruan Zuberoako Barkoxeri %40 omen "dagozkion" uhartean. Irla haren leku nagusi Post Office bay, postetxearen badia dala, egunkariko igandeko gehigarrian irakurri neban. Nahiago neuke San Pedro, abestiko irla polita barriro aurrez aurre ikustea. Santa Monica inguruak, Trinidad uhartea, hautsez beteriko hiriko tranbia edo Stockholmeko marinelen emazteen omenezko estatua, baina batez be herriko itsaslabarrak, abestiaren espainiar lo kantuaren beharrik gabe. Abestia maite dodan arren "spanish lullaby-a" baino espainolen ames-gaizto nahiago. Gure ametsak hiltzen saiatzen dituzten bitartean behintzat. Txakurrak ametsa etenda ere esnatuta ametsetan jarraituko dogu, itsasoak lez. Sekula lorik egin ez arren amets ederrak dakartza, eta

tarteka amesgaizto bat. Bere sikatea, kanpai hotsa gaueko hamarretan, portua ilun, bi ontzi zahar ta handi erdi itsasperatuta eta gorpu bat itsasoan. Kanpai hots-mina deika. Untzioletako langileen familia askorentzat esna zeudela heldu zitzaizkien aspaldi amesgaiztoak, beste behin eta orain petrolioaren mobidagatik arrantzaz bizi diran familiei esna zeudela heldu zaien bezala.

Gaur heldu da lagunaren atxiloketaren berri zekarren egunkaria, holakotan ez da esateko gauza askorik geratzen, irabazteko ez dekogula gogorrak izatea baino beste biderik, egun hobeak etorriko dirala, putada latza dela baina atsegin eta irribarre gehiago ekarriko dizkigula borroka honek. Badekogu beraz beste plan bat zintzilik, ataratzen garenerako, gure eguna heltzean Glasgowko Celtic Park-era "You'll never walk alone" abestera joatea, hola agindu gendun beragaz elkarrekin pasatako azken gauean. Beltzuneei buruzko berriak dira besteak, orain Argentinan be enpresa espainolek Maputxeen lurrak petrolio eta gas isurketekin kutsatzen dituztela. Lehengoan erizaindegian Argentinar batekin egin neban topo, berak holako "planta" baten lan egin zuela esan zidan, "Tierra de Fuegon". Protestarik ez egiteko, telefonos celulares eta holakoak oparitu zizkietela, ta beste batzuek protestei ekin zietela egoitza aurrean Espainiako banderak erre eta petrolioz beteriko botilak botatzen. Jakin minez Eva Peroni buruz bere eritzia eskatu neutson, baina berehala Maradonaz mintzatzen amaitu gendun, beraz deus. Nire txanda ailegatu eta itxarongelatik alde egitean esan zidan -Flaaaco, no se olviden de que somo su octava proviiiinsia-.

Eguerdian G12 ziegatik etorri da irribarrea, komunaren gainean dagoen haize-zulotik igande gauetan azpiko preso sozialak, modulu normalekoak, futbol emaitzak emoten dizkigu, baina gaur eguerdian deitu dau, azken atxilotuetako batek polizia-etxetik hanka egin duela esanez. 3 bider errepikatu behar izan dau danok ulertu dogun arte. Atxilotu gehiago egon zirela ez genekien ere! Badakizu ez ditudala maite igandeak, espetxean gitxio, baina egungoa ederra izen da. Ondoko presoak galdetu dit ea korreoa banatu daben eta hala nola -aujourd'hui c'est dimanche- erantzun diodanean, gaur igandea da ez dago postarik, 1821ean Rocheforteko baseko itsas-gudarostearen ospitalean galeretan jasotako lan bortitz ta torturek

hil eben Martin Larralderi, San Fermin egun batez espetxetik ihes egin zuenak idatzitako poemaren paisai berberaz irudikatu dot hemendik kanpoko gaurko igandea. "Larre berdeak, etxezuri teila gorriak, jendarme auto bat bidean bildots artean pasatzen... Gaur igandea da, larre berdeak, etxe zuri teila gorriak, jendarme autoa bidean Bayonne 17 panopetik"... Jendarme autoz josia Baiona gaur arratsaldez, hori segur. Herriko errepidean, irteterakoan kartel zaharran jartzen zuen lez, "ondo bide egin".

Kalean bagina ordu honetan azken boladan normalean egingo genduna pentsa dot, igandeko gauzak, mapak ondo tolestu, erreminta kutxan ordena jarri, haginak garbitzeko eskuilei bigarren erabilera hori emon, holakoak, ez dakit zergatik igandeetako "rolloak" dira linternei pilak aldatzea eta holakoak. Irratian futbola. Zelda normalean bardin, hemen beheko presoaren oihuei itxoin, baina goizekoa bezalakoak nahi, behar. Portablearen disko gogorraren defragmentazioa eta holakoak, igandetako kontuak dira ere... ordenadoreari ere gure oromenari bezala gertatzen zaio eta noizbehinka artxiboak ordenatu behar, osatu gabeko informazio eta fitxeroak bildu... gizakion ametsen antzeko funtzioa omen du. Hemen, oroimenaren korapiloak deslotzen, ta oroitza eta bizipenak ahaztearen naufragiotik erreskatatzen. Igandea, merkatu baten lau liberagatik erosi genduan kaxako, itsasbelar, oihalezko zakutxo eta tantak bainontzian bota ta bainua. Eskuz idatziko etiketan zioen Bretainiako algen esentzia zirala sinistu nahian. Bretainiako itsasoaren esentzia kristalezko potetxo bateko tantatan, ta orain Kantaurikoaren soinua mila kilometrora ziegako apalean zinta baten... Baina tira, igandea, bihar da dutxa eguna hemen, astean birekin nahikoa omen.

Euriak sabaiko plastikoa jotzean, auto baten barruan euriak eragindako soinu berdina egiten du. Bo, badakizu, beharrezkoa dala dakidan arren ez dot lar maite euria. Euria zenean kotxea amildegira ahalik eta gehien gerturatzen genduan haizeak mugitzeko, balizaren aurrean urrunean nabigazio argi batzu, musika lasaia, eserlekuak atzera botata atlantikoa zeharkatzean hegazkinean emondako manten azpian, txikitan, gerrako itsas bateria, kainoi, bunker, tunel eta babeslekuak zeunden lekuan olgetan geundela asmatzen genituen istorioak oroituz. Traganarruk portuko txokoan betirako irensten eban zurrunbilo bat sortu ebala, arroketan

zebiltzan arrantzaleen eskuargiak kontrabandistenak zirala, danetarik... Urte batzu beranduago ilargi bete gauetan banan banan igotzen gendun guk amildegia. Lehenak badaezpada motxila hutsik eta goian txakurrak ez bazeuden linternarekin seinalea egin bestea igotzeko. Ez ziren moduloko Aljeriarrak saldutako armak, arrantzatutakoa igotzeko zen, ostia gutxi beti, baina zirrara beste horretan zegoen, banaka igo behar izatean, zaratarik ez egitean, linternekin keinuak egitean, txakurren patrolak fokoa piztekotan haitz artean ezkutatzean, hoiek ziran guretzako muga paseak, gure beste guda operazioak... Ohean etzanda zeldako sabaian irudikatzen dot hori, baina laua, erlieberik gabe, itsasoa hegazkinetik ikusten den bezala, mapa baten moduan, planoa.

Goizago, idazten dotsut gaur, gauetan bista nekatzen hasi zaidalako argi eskas honekin, ta arratsaldez lo pixka bat egiten saiatzeko ze gaua zuritan pasako dogula uste dot aurreko sozialaren oihuekin. Egun osoa pasa dau, tabakoa emoten ez badiote suizidatu behar duela oihuka. Elurra ari du eta oinutsik atara dabe patiora, ziegara bueltatzean koltxoia eta erropa kendu dizkiote, aurreko egunean bi ur balde bota, ta klera batekin atean begitan hartu dutela idatzi dabe txakurrek, orduroko "ronda" guztietan bertatik igaroko diren txakur guztiek jakiteko. Oraingoz beste denok "OK" daukagu atean idatzita. Groucho Marxek esaten zuen itsasontzi baten egotea itotzeko aukerarekin gartzela baten egotea zala, eta honi horregatik ez diote poxpolurik ere emoten, azken aldian zeldari su emon ziolako, eta zinez, su emon ezkero iheserako aukerarik ez, norbera kiskaltzea edo itotzea ihesbide bezala ikusten ez bada behintzat. Beste norbaitek hitzetan, itsasontzi bat sutan dagoen teatro bat izan leike. Gau erdian tabako eske metalezko ateari ostikoka hasi da, sagailoa dagoenean harraldeen kontra dagoen troba lez. Txakurrari emon dotzat tabako pixka bat berari pasatzeko, ia lasaitasun apur bat lortzen genduan, ezetz esan dosta baina. -Zure "compatriot" batentzat da?-, -Ez, builaka dabilen horrentzat-, -Horri ezin zaio ezer pasa, agente bat astindu eban- erantzun dit "agenteek" ondoren berari emon zioten ostiatan pentsatzen nengoela.

Goizean esnatzen ginanean automobileko kristal lurrunduetan bezala zeozer idazteko leihorik ez dekodanez, koaderno marradun honetako

berbekin gogoratu behar, goiz hontan kaki koloreko txubaskeroarekin kanabera ta otzara zintzilik itsaslabarrean gora gau osoan arrantzan aritu ostean gurutzatuko gendukeen arrantzalea. Azal kresaldungaz jaio, kaian hezi, mareen hizkuntza ikasi, akaso garu gauez berak be gazteren batzuekin elkarbanatuko dau arrantzatutakoa, ozta-ozta hile amaierara helduko dan arren. Arrantza egin badau irabaziko du, bestela ez, ta hala ere maite du itsasoa. Amildegitik igo ostean emaztea igoko da plazara, ta ziur hori egitea be ez duela askok maite izango, baina merkatuan jendeak arrain garbia nahi ta norbaitek egin behar, ta aldapan behera gazteak jeistean bitan pentsatu barik, askok maite ez, baina norbaitek egin behar duen hori ere egiten dabe, hurrengo arratsaldean txakurrek zabalduriko arteak salbatu eta sareak hutsik direla adierazteko atari aurretik agertzeko baldintza bakarrarekin. Jostorratza eskuan, sareak konpontzen edo galtzerdiak egiten atarian eserita dagoela bere aurretik pasatzeko kondizioarekin.

Euskaldun emakumeak heldu zauzkit bururat. Luzarat, zuek duzue salbatuko edo galduko gure Euskal-Herria!

Itsaslaino artean bidexketatik bueltan, agur esateko etxetik argia itzali ta pizten gendun oinez zihoanak ikusteko, kotxez bazen, argi labur ta luzez argi kliskadak, amildegi gaineko itsasargia lez. Hemen orduro ziegaz ziega argia, presondegiko faroa. Marinelei itsasargi bat ikusteak lasaitasuna emoten ziela entzun neban behin, segurtasuna nolabait. Segurtasunagatik argiak itzaltzen jarraitzen dute oraindik Txetxenian edo Palestinan gauez sionisten hegazkin edo Apatxe helikopteroak gerturatzen somatzean. Gau osoz orduro argi hau zeldan ta orduro ate-leihotik begirada, "segurtasunagatik" diote. Kalean edo hemen, fusilaren kanoiko miratik edo ateko mira edo mirillatik, etsaia gu begira beti. Hala ere ikasi dot begirada hori ez sentitzen eta begira dagola konturatzen nazanean ez dot inoiz burua aterantz bueltatzen, lehengo baten aipatzen neutsun Ruperren abestian inork begiratzen ez dion John Trolloperi bezala, inork begiratuko ez balit bezala. Beharbada eskutitz hau berari eman beharko neutson, eskinatik igarotzean inork begiratu ez diola konturatu baino lehen, posta zentrala ezkerretara uztean bertan bota zezan. Edo beste norbaiti, Dublineko posta zentralean utzi ta Padraic Pearse mahai gainean imaji-

natzeko, itzali ez zen itxaropenaren argia piztu zuten besteekin altxatzen ari zela. Txabolo normalean ia gabero nirea izeten da amatatzen den azkena. Badakizu beti topatzen dodala koartadaren bat berandu oheratzeko, ta gaueko ordu bi edo hirutan modulu osora begiratzea eta dana itzalia ikustea maite dot. Hiru segunduz ate ondoko interruptorea sakatzen dutenean, ezkerretik eskuinera ziegaz ziega argia ikusten da. Lokartu aurretik azken zigarroa leihoan erretzen dot horri begira nirera noiz helduko zain. Berez piztuta aurkituko dabe eta txakurraren katea haustea bezala da, horregatik maite dot. Guretzako euria eta itsaslainoa gurutzatzen ebazan itsasargiena, gaueko argi artifiziala, argi erromantikoa zan, gauetik goizerakoa, egunsentia bezperakoaz argituz. E.Browning-ek esana, biharko eguna gaurkoagaz argitu behar.

Angelu, Miarritze, Zokoa, Higer, Senekozulua, Plata, Santa Klara, Igeldo, Getaria, Zumaia, Lekeitiko, Matxitxako, Gorliz eta Galea. Gure zenbait itsasargi. Akaso biharko ikastoletan ikasiko dituzte gure haurrek. Guk ikastolan Matxitxako, Peñas, Ortegal, Finisterre, Trafalgar, Gata, Palos, Nao, Creus lurmuturrak ikasi genituen, gurasoek ikasi zituzteneko estribilo berdinarekin. Baina ez Ogoño, Sta. Katalina, ezta ere Aitzandi, Saturraran, Higer, Izustarri, Ea, Monpas, San Anton, Kalero, Villano, Santa Ana, San Martin, Luzero, Turrilla edo gure kostaldeko beste lurmutur batzu. Kidearen gurasoek idatzitako gutunean umorez gogoratzen dizkidate gure herrikoen eta euren herrikoen arteko liskar eta burruka amaigabeak, merkataritza, kontrabando edo hondoratzen zirenei lagundu ahal izateko. Gure herrikoek azkenean salbamendu edo praktiko lanak egiten zituztela, eta ospetsuenak gure herrikoak izan zirala kapitain, itsasgizon, edo maisu, ta gure herriko kaiko naufragoen salbamendurako etxea ederrena dala erantzungo diet pixkat zirikatzeko. Agian kideak arrazoia zuen, duela hamabost urte amets orokor baten bakardadean naufragoak garela idatzi zuenean. Tira, azkenean itsasgizon haietatik gehienak erregearmadak bildu zituen bere zerbitzutara, batzu aberats bueltatu Ameriketatik. Herriko aberatsek, Espainiako erregeari bere lehenengo belauntzia, zirimiri, oparitu zioten ondoren, beste herrikide batzuek bere azken yatea, Marques de Ensenada bezala zulatuta ikusi nahi, ta bitartean Saltillo, Juan de Borbonek hainbat urtez erabilitako belauntzia eskola nau-

tikoko praktika ontzi da gaur herriko uretan. Bere kabuz ikasi nahi duenari txakurren patrola agertuko zaie guri bezala. Betikoa.

Ikastolan ikasi genituen Pinta, Niña ta Sta. Mariak hasitakoaren ondorio agian espetxe hontako taillerrean latinamerikarrek hilean ehun ta piku eurogatik Renault-en piezak egitearena. Kolonen Ameriketako lehenengo bidaian erabilitako karabelak: handiena, Santa Maria, Hispaniola irla aurrean ondoratu eta hondakinekin Navidad gotorlekua eraiki zuten. Marigalant, izena zuen hasieran. Pasaian egina. Hori erakutsi ziguten ikastolan, irakatsitako historia hiltzaileek idatzi zutela dioen abestian bezala.

Hemen dekodazen hiru liburuetako batean juxtu bart irakurri neban Azurmendik diola, euskaldunok markak itsasoan hautsi ditugula, "espainolak handitzen". Hernan Kortesekin euskaldun pilla Mexiko konkistatzera, Kaliforniako kostara heltzen, Filipinak topatu, ozeano barea deskubritzen... Han zeudela euskaldunak Kolon eta Magallanesekin. Urdaneta, Balboa, Arbolantxa, Lope de Agirre, Blas de Lezo... Migel Okendo, armada garaiezineko kapitaina, Kontatu nizun aurreko baten armada garaiezina eraikitzeko Bardeetako basoak talatu zituztela. Ez zizkiguten herri izarren izenak kantarazi, ez zizkiguten Txabik gure herri aurreko badiari idatzitako poesiak irakatsi, baina ez dot ahaztuko Santa Maria Pasaian egin zutela esan zigutela, urteekin ikasgelatik kanpo ikasi genuen ez zirela harro sentitzeko gauzak... Filipinak Espainiako koroaren esku utzi eta Felipe II-aren omenez izen hori jarri. Konkistatzaile bazen ere, bertako jendea errespetu handiz tratatu zuen. Hiztegian Miguel Lopez de Legazpi bilatu ta hori jartzen dau. 300 urte beranduago, espainolek, altxatutakoak fusilatzen jarraitzen zuten, Jose Rizal ta beste asko bezala, begirunea adierazteko espainolen era. Hobe 1588ko irailaren 22an bezala Okendoren itsasonzi nagusian polborak sua hartu ta danak pikutara joan balira...

Ikastolako lehenengo edo bigarren mailan maisu edo andereñoari itsasontziek zergatik flotatzen daben galdetu nionean, -ontziaren pisua eta kargaren pisua batu eta bultzadaren berdina denean, ontziak flotatu egiten du- erantzun zidala primeran gogoratzen dot. Hasieran bardin bardin geratu nintzen eta beranduago ulertu nuen. Beharbada oraindik

astia beharko dot gerraz lurralde bat zapaltzen duenaren errespetua ulertzeko. Oraindik ere, ez dot ulertzen zergatik hirugarren mailan buruz ikasarazi ziguten "...con cien cañones por banda, viento en popa a toda vela, no corta el mar sino vuela, un velero bergantin..." hori. Ez ziguten "Euskadirentzat hil dire eta gorputzak arantzaz beterik" zituztela dion abestia erakutsi, eta gure kabuz ulertu genduan Mendizabal ta Sasetak larrosa hartu nahi zutelako ez zutela arantzen beldurrik izan, arantzarik gabeko arrosarik ez dagola. Jack Nicholsonek nire ustez arrazoi askokin, soilik eskolatik kanpo ikasitakoak emoten dautsola zentzua biziari esan eban. Behintzat kantuz ikasi genduan zeozer, bai, gure kosta baleentzat sorleku zala, 1901eko maiatzaren 14an Orion arrantzatu zutela dinamitarekin azken balea eta Ternua aldera joaten zirala arrantzan.

Bere orduz pertsularia ere baitzen, berrikitan pertsu hunkigarri batzu eginak zituen bere heriotzeaz ta emanak euskaldun emazte abeslari ezagutu bati, eskatuz kanta zitzan berak moldatuko zuen doñu batean.

Espero dot biharko ikastoletan velero vergantin ostia hori baino gauza jatorragoak ere kantatuko dituztela. Ostegun batez, ikastolatik metro gitxira bota zuten Txikia. Txabiren ondoren erori zirenen guda izenak etxean ta kalean kantatu genituen portuko kaleetan jolasean gure buruei Trumoi handi, Arrano hego, Belatz baltz, Hegal gorri, Txahal txuri, Otso txiki... indioen izenak jartzen genizkienean. Ikastolan inoiz ez genuen entzun. 1936ko urriaren 15ean Galerna ontzia harrapatu ebela Baionatik Bilbora zihoala. Sekula Nabarra, Bizkaya, Gipuzkoa eta Donostia bous-en berri. Ez ziren Yamato munduko korazatu haundiena, ez kruzeroak, ez destruktoreak, ez korbetak, ez urpekontziak. Canarias gurutze ontzi frankistaren aurka Matxitxakon burrukatu ziran kainoiz armaturiko euskal arrantzuntziak. Ez zuten sekula Pinta, Niña ta Santa Mariaren lekua bete. Ezta norbaitek, beste hitz batzuekin esan zuela herri izarrak ez direla itzaltzen, herri zaharrak itzaltzen ez direla ta itsasoa odolean sartu zutenen distirak bertan dirautela. Eran hombres sencillos que a la vida no exigieron míticos esplendores y porque amaron tanto en su familiar pureza prefirieron en sus rudos corazones, perecer antes que entregarse... y su resplandor centellea aun despues de que el Nabarra apagó su ardor en el corazón del mar.

Nik ongi ezagutu dot eta hartaz diotena da, zela bihotz honeko gizon bat, osoki bertzeentzat bizi zena... Bihotz onekoa ba.

Agian, agian, egun batez, ikastolan ikasiko dabez gure seme-alabek. Edo entzungo dabe, Aita Mari bezala, denboraleak harrapatutako marinelei laguntzen hil ziran ospe gitxiagokoei buruzko istorioren bat, Anton Garai piratarena, beste edozein... Gure oroimena pertsegituko dabe, Txikiarenarekin egin eben moduan, hil ostean be bere etxea ametrallatuz. Baina belaunaldiz belaunaldi transmitituko dira kanta ta historia; Martin Larralderen Galerianoaren kantuak urteak beranduago paperatu ziran arte, ahoz aho transmititu ziran lez. Gauza apalagoak ere ikasiko dabez beharbada ikastolan, jakin dezaten zinemarako ikuskizun bihurtutako Pearl Harbor ta holakoez gain badagola beste historia bat, Gernikan Wagner-en musikak ez zuela abiazioaren iritsera lagundu Apocalypse Now-en helikopteroei bezala. Entzungo dabez, guk amamen altzoan entzundako kondairak. "Titan" garabiarena, edo andrakilena...

Txikitan istorio gartsu haiek entzutean ez nuen batere garbi, amamak eta herriko beste neskatxoek izan zituzten panpin bakarrak herri aurrean haitzen kontra hondoa jo ta naufragatu zuten itsasontzietatik hondartzaraino heldutakoak ziralako hasi bazen gerra, edo gerra hasi zalako, zituzten andrakila bakarrak itsasoak ekartzen zituan. Edo haur haientzako Neptuno, Nemo kapitaina, Poseidon, Moby Dick, Galatea, Traganarru edo ez dakit ze itsas neskaren opariak baziren, aurrean zutelako Errusia ta beste mila herritara itsasontziz umeak ihesean ikusi zuen portu eta arriskua. Itsasontzi baten Euskal Herritik kanpora bidaltzeko arriskua. Honetan ere abestiaren jarraipenak dio itzuli behar dutela egunen baten pozez kantari.

Portu horretatik ere lehenago Amerikako Estatu Batuetara joandako ume batzuek USAko marineen transmisio lanetan bukatu zuten. Gaztelaniaz oker, gitxi gora behera ingelesez eta ondo euskaraz. Eskuara baizik ez zakiten morts pour la patrie haiek lez. Euskal artzainen semeak Guadalcanaleko oihaneko batailan. Guk, auzokoak euskara ez nabarmentzeko telebista pizten gendun, eta Japoniarrek komunikazioak ez harrapatzeko marineek 1942ko abuztuaren 7an euskaraz emon zuten irra-

tiz eraso agindua, Marshall irlatatik. Abuztuaren 7an, 2:30ean klabe definitiboa bidaliz, -Sagarra eragintza zazpi-, Sagarra operazioa hala hasi zan, Guadalcanalen. Ondoren jakin genduan, norbaitzuk "Sagarra" bezala izendatu zutela ere abuztuaren lehengo egunetan Txabiren erailketaren errepresalia bezala Meliton Manzanas torturatzailea, omen Zor 7,65 batekin bota zuteneko operazioa. Akaso egun batez ilobak altzoan, ikastolatik ataratzean Francoren aurpegia zuten txanponak trenak zapaltzeko jartzen genituela kontatuko diegu ta trenbide haien ingurutik, ikastolara joaten ginan kaleetatik, txikitan euskaldun eta espainol-frantses gudak egiten genituen baratzetatik egin zuela ihes, itsasoak maite ei dituen bezalako gizon ausart batek. Zaurituta be, sutan edo odoletan saiatu zala ihesean bere Firebird-arekin, eta auto bat gelditu zuelarik burua zulatu ziola txakur batek gizon ttipi, gogoz erne, gorputzez zail, bihotzez beratz, pertsulari sendimendukorrari, berak, askok bezala nahiago izan zuela "perecer antes que entregarse".

Eustakio dela eta, hameka ostiko emon diozkate egiari, mugaz bertzaldeko berriketariek. "Terrorista bat zela", "mandil bat", "gizon hiltzaile bat", "diru gose bat", "barnez galdu bat" eta holako goxokeriak dituzte atera gure Eustakioz. Eustakiok ez zuen gizon bortitz harroen itxurarik ere. Hain zen denekilakoa, handikeriarik gabea, bere egitekoari zintzoki eta osoki emana... Holakoa zen Eustakio, eta holakoa agertuko da gure Euskal kondairan. Eta ez dute oroitzapen hori zikinduko.

Egunkarian kutsaduraren kontrako publizitateak dio nahikoa dogula "mar muerto" batekin. Gureak bizirik iraungo du, norbaitek esan zuen lez itsasoak adinik ez duelako, ta gure herriak ere hor gordetzen duelako biziraupenaren sekretua. Esan ta zin egin zutelako, esan ta zin egin genuelako, ez dutela esaterik izango kantauriko hegian herri zahar bat zela.

Hau ez dotsut idazten hasi nuen zulo beretik bidaltzen, atzean geratu dira oraingoz hango ziegak. G12 zeldatik kide batek hanka egin zuela esan ziguten behin, kide hori atxilotu eta isolatu dutelako "salbuespenik onartzen ez duen egin behar" horri eutsiz gaztigu ziegatan zaudetela gutun hau bidaltzen dotsut. Zulo berri hau, Vauban avenidan dago, Baionako ziudadela edo Zokoako forteak eraikitzea agindu eta kostaren

defentsaren kontzeptuaren teoriko nagusiaren omenezko avenidan.

Nerudak postariari esan zion, "adjektibo bat falta dut, nolakoak dira arrantzarako sareak?", tristeak erantzun zion Mariok. Zure gaueroko eskutitzek, juezaren sareetan jarraitzen dabe, kanpoko fokuak alboz jotzen du ta gauez barroteen geriza zeldako orman zabalduko ta paretan egiten duen itzalean barroteen arteko distantzia zabalagoa da, ta bertatik ihes egingo dogu ametsetan, batzutan arrainek sareen txeberatik ihes egiten daben moduan. Ametsetan, Neskatxurekin kotxean, txakurrak atzean, ikastola azpiko kaleetan, Txikia zegoen leku berdinean kotxe bat hartu ta belauna estutzen bere eskua. Bizkarrean itzal bat, hotzikara bat, bukatu zala pentsatuz, balaren zain begiak itxita, lehena nor izango zan pentsatzeko denpora, ta segundu amaiezinak, denbora geldi balego bezala, dena ixilik, zaratarik ez, begiak zabaltzeko beldurrez, kopilotoaren aulkera begiratzera ausartu gabe, azkenean bihozkada bat, bietako inor ez. Badakizu nork bota eban nor, eta zelan bukatu zan; benetan nola izan zan dakigulako, ametsak amaiera ezberdina izan zuen. Baina ez dogu historia alderantziz kontatuko, eta denbora ezin atzera bota, ezin iragana aldatu, ta aurrean dogunari eutsi behar. Hala izan zan, ta zenbait hamarkada lehenago "...poliziak tiroz bota zuen Euskaldun aurkaria".

...Segur naiz gure hil guzien izenean mintzatzea –ez bakarrik Eustakio eta berritikan tiroz bota dituzten bere lagunen izenean- baina ere hogeita-hamaseiko gerlan ere gerotik Euskadirentzat odola ixuri duten guzien izenean- bai denen mintzoa dutala adiarazten, dei eginez Euskaldun guzieri bat egin dezagun... Bat Euskal Herria, egun batez, bateratzeko...! Bat, Euskal Herria, zor zaion gora mailerat altxatzeko!

Ziega honetan metalezko sarearen bestaldean plastikozko edalontzian utziko dautsue ur beroa ta sobrea, edan ondoren, egizu proba, plastikozko edalontzia belarrira hurbildu, hemen 1000 km-ra, posible dogu herri-lurrari eta itsasoari so egitea bietako bati bizkarra emon barik eta edanontzia karakola bat lez da eta itsasoaren antzeko soinua entzuten da. Gauean jarraituko dot, orain burura datorkit Françoisek esaten zuela euren atzamarrek "garaipena" ziotela 28 pausutako buelta dekon patio hoietako ormak haginak garbitzeko pastarekin soilik daude idatziak.

Patiora beharrean hondartzara joango banintz, hondarrean "gurenda" idatziko neban, ta olatu batek ezabatu arte itxaron. Françoise, Beiruten, martirien hilerrian, behatu zuten, bere burkideen hilarrien ondoan. Han ehortzita dau. Gau batez txalupa neumatikoz ekintza armatu bat burutzera zihoala, Israeldar gerrauntzi batekin 45 minutuko tiroketaren ostean Saidako hondartza baten hil eben. Ejertziko sionistaren enbarkazioa hondoratu ostean, RPG granada jaurtigailua eskuan zuela, konbatearen ostean bahitu eta torturapean. Egun hartan marine amerikarren USS Sheveport-a bertatik zebilen, itsaso gorrirantz minak desaktibatzera joan behar zuela zioten. Pearl Harborretik salbu atera zan akorazatu bakarra, USS Nevada, Normandian borrokatu zen ondoren, berrogei urte beranduago arrantzale palestinar batek Françoiseri esan zion –agian Normandiago Mirage frantsesekin hiltzen gaituzte orain, Frantsesek sionistei saldutako Miragekin-. Ez dakit USS Sheveport-ak parte hartu bazuen Françoise ta bere kideen fusilatzean, baina eraso agindua euskaraz transmititu balute, batzuek Françoiseren historia kontatu beharrean haurrei agindua euskaraz emon ebela irakatsiko liekete, harro sentitzeko zeozer balitz bezala, Françoise eta munduan euren herriak bizi daitezen altxatzen diren guztiak ezabatu nahian.

7:12 –Bonjour- esanez goizeko kontrola igarotzean, akaso txakurrak argia piztea nahi baduzun galdetu dautsu, seguru pasabidearen bestaldetik kideak –egunon Euskal Herria!- oihukatu duela, ea besteok –egunon!- erantzun dozuela, edo orman kolpeak emon komisaldegian egiten gendun bezala, morsea lez, nabigazio kode propioa, ondoko ziegan hilabete batez elkar ezin ikusi arren, batera zaudetela adieraziz, olatuak, haitzak eta hondartza bereko aleak bezala elkartuta.

Euskal jendea, orai da garaia. Galerna uzta gainean dugu, sua etxeari lotua. Ihardok diezoguten gure eskuak elkartuz...

Agian egun batez Nabarra laino artean hondar beheretatik jasoko du eusteko aukera barik eroan zuen itsasoak. Itsasoak ez du heldulekurik. Hondartzara joaterik banu, eroritako burkide guztien guda-izenak atzamarrekin idatziko nituzke baita. Ta olatu batek ezabatu arte itxoin. Barealdi ala ekaitzan, haserre edo lasai, sakonera berdina duelako

itsasoak, eta beti, berandu edo lasterrago, eroaten duena bueltatzen digulako.

Azken eskutitzean idazten zuen "Oraingoan heriotzerantz abiatzen naz. Badakit. Hala nahi dot. Heriotz hau ederrena da, bizi hau baita ere...". Gaueko iluntasunean gerrauntzi sionistaren fokoak zodiak-a argitzean, konbate jantziak ordezkatzen zuen bere gona. Odola emon eben. Odolaren ondoren emon ahal dan onena malkoak dira. Goxo gaziak, eurengatik. Burrukan amaitu ahal zan bizie, harro onartu ebelako Txikia, Françoise, Ulrike, Sean eta euren hainbat burkidek. Emakume gazte hark esana, "orain nire nahi bakarra zarata egitea da, dena mugaraino bizi izan dut, nire heriotza onartzekotan bizi-bizi egongo naz, nire semeak ez dira nire kausaz lotsatuko". Etorriko dira gure itsasoaren matrizetik biziari norantza ta zentzu berdina emon, ta bizia burrukan pasako dutenak. Kasu batzutan bizia burrukan bukatuko dutenak. Biziaren ordu bakoitza, maitasun ordu bakoitza, maitasun ordu bakoitza, gerra ordu bihurtuko dutenak. Bidean anaia erortzekotan eskuak elkargurutzatu eta ekin eta bultza aurrera egin eta mina indar bihurtuko dutenak. Txistuka gogoratzen dodan abestiak arazoia deko, estas asustado, tu vida va en ello, baina norbaitek tira behar...

Ez ginen gu gerrari lotu. Bainan espainol jeneral bat zen oldartu. Eta hura zitzaikun gure lurretan sartu... Hora nolaz eta zer gatik, gizon goxo, maitagarri horrek armatu zituen bere beso eta gogonahiak, zapaldua dagon bere populua zerbitzatzeko. Horren kondenatzea litake, beren aberria askatzeko. lehen eta gaur, oldartu eta oldartzen diren guzien kondenatzea.

Guda zibileko Txabiren Astra zaharraren ondotik Txikiaren Firebid-a etorri zan bezala, etorriko dira beste batzu. Dublineko posa zentralean altxatu zirenen ondotik SAM 7 koheteak bota ta Armalite AR15 laburraren plastikozko kulata sorbaldan ezarri zutenak bezala; Françoise Kalachnikoffak beste esku batzutan jarraitzen du ta Israelen bihotzean lehertzera doazen RPGek zeruan suzko lorratza uzten dutenean bere irudia agertzen da.

Gerlan gerla-lege, dautazue erranen... Eustakio joan zauko, bainan hemen

garatzen zauku harena zen eta gurea den egitekoa.

...heien betiko loa, betiko kanta zak. Geroari esaiok olatuetan, herri izarrak, ez direla itzaltzen...gure haurrek biharko ikastoletan heien izenak abestu ditzaten.. Harro hadi kantauri itsasoa!

Hori da gure hilen mezua.

(*Gurenda: Garaipena bizkaieraz, zaharkitutako hitza)

Aitor Fresnedo Gerrikabeitia
1972
Portugalete

1996. urtean atxilotu eta espetxeratu zuten.

C.P. Alicante II (Villena)
Ctra. Nacional 33, km. 66
03.400 Villena, Alicante

“Akelarretarako hauxe abestitxuau”

–
Ataramiñe ataramiñe
ondiño bizi ga Santimamiñen
ez da bardiñe
hori jakiñe
hango bizipoza ta hemengo samiñe
hau leku urriñe hau zulo zikiñe
nun zauz Garbiñe neure erregiñe
maite zaitudala badinotsut ziñez
Mari Anbotoko Mari sorgiñe
neure bixotzak behar dauen hargiñe
zatoz maitie zatoz poxpoliñe
ointxe nau ointxe ni zeure premiñez
osatu eidezuz zauri gordiñek
bizitzako eziñek
egun eta gabaz zeure jakinmiñez
zeuri diarrez iztarriko miñez
lo banau sartu jo barik txirriñe
ametsera agertu zeure hanka ariñez
Urederran bizi dan azken lamiñe
umetxotan neukan trapuzko panpiñe
begitxuek ezti ezpañak guriñe
goxotan goxo fiñetan fiñe
hoba bizi giñen antziñe antziñe
erregiek leitxe han Santimamiñen
Ataramiñe ataramiñe
ogi gogorrari zorroztu hagiñe
ta gaiztuei beti ataramiñe.

2004.ko maiatzean Alicante-II espetxean

Angel Figueroa Fernández
1971
Algorta

1994. urtean atxilotu eta espetxeratu zuten.

C.P. Córdoba
Carretera Sevilla-Madrid, km.391
Apdo. 479
14.007 Alcolea

Gaur bezala

Gaur bezala noizean behin tristura datorkit.
Orduan ez diot bizitzari graziarik aurkitzen,
ez dut segitu beharreko bidea ikusten,
ez dakit zer egin,
ez dakit nora jo.

Botila erdu hutsik ikusten dut :
munduko miseriak, injustiziak,
jendearen berekoikeria,
neure gabeziak...,
guztia handituta agertzen zait,
eta ez naiz horri buelta emateko gai sentitzen,
ezta hortaz paso eginez "nire zoriontasuna",
horrela ulertezina egiten zaidana,
aurkitzen saiatzeko.
Zer egin? Nola egin?
Pentsatzen jarri eta eginbeharrekoa ikusten dut,
baita nola ere.
Baina ez dut horretarako indarrik sentitzen
eta gogoa itzaltzen ari zait.
Hala ere, tristura baino sakonago,
itxaropen zati txiki eta indartsua nabaritzen dut.
Belarrira hitzeginez guztia posible dela
esaten didana,
eguzkiak goizeko lainoak desagertzen dituen moduan,
tristura ezabatu dezakeela dioena.

Ametsak

Zerua begiratzea atsegin dut.
Zerua niretzat askatasuna da,
Barrote eta harresirik gabe ikusten dudana.
Zerua natura da ere: polita, erakargarria, basatia, ...
Baina zerua hodeitsua denean, eta gutxinaka
hodeiak formak aldatzen dituztenean,
neure ametsak zeruan irudikatzeari ekiten diot:

Euskal Herriko mendiak ikusten ditut,
itsasoaren olatu indartsuak,...
eta gehienbat maite dudan jendea ikusten dut,
pozez mozkorturik, dantzatzen, abesten, begiak dir-dir
egiten dietela: guztiak zoriontsu geure herriaren
askatasuna eta geure askatasuna ospatzen,
Euskal Herri aske eta gizatiarrago batean.
Guztiak ametsen militanteak bihurtuta,
ametsak egia bihurtuz biziz.
Eta ni haiekin bat.

Aratz Estonba Iturriza
1979
Donostia

2001. urtean atxilotu eta espetxeratu zuten

C.C. Madrid II (Alcalá)
Carretera de Meco, km.5
28.880 Alcalá de Henares (Madrid)

Taberna bazterrean bada andra bat

Taberna bazterrean bada andra bat kamarerorekin bakarrizketan
Gintonic-ean zoriontasuna ito eta trago garratzetan
mina emanez edateko.
Iraungitze data pasata dauden yoghourtak berak jan ei ditu etxean,
seme-alabak kozkortu dira jada eta zaharregia da lanerako,
menopausiak jota dagoela uste du, ez daki.
Gizartearen dekadentzia eta patetismoa begi hanpatuetan
Gintonic malko garden eta mikatzak irristatzen zaizkio aurpegian behe-
ra.

Tunelak alderik alde zulatutako mendiaren antza hartu diot.

Haratagoko lurraldeak

Aukeran genituen itsasontzietatik hauxe aukeratu genuen
ez politena izateagatik, ezta bere kolore urdinagatik.
Tripulazioaren malko eta irribarre zintzoek badiatik haratago zuten hel-
burua
horrekin nahikoa genuen.
Harrez gero miliak eginak gara lurralde ezagun eta ezezagunetan
eskuak zartatu ditugu sokak tenkatuz eta laxatuz.
Noiz edo noiz, nekearen nekeaz, arrutako lehen irlan muilatu nahi izan
dugu
baina badian geratutako haiek gogoratu
eta gaueko ekaitzean nabigatu gara ortzemugarantz
gaueko zeruan urradura egin eta egunsentiari leku egiteko.
Haiek idealistak garela diote etxerako bidea ahaztu dugulakoan,
guk aldiz euskaldunak garela, nabigante petoak,
eta etxea hemen dugula, ortzemuga ondo-ondoan.

Espetxetako itzalak

Gizakiak zirkuluak egiten,
erlojuaren orratzen kontra
zurrunbilo irensgarria trazatzen,
begirada zementoan sustraiturik
galdutako bizitzaren arrastoaren bila edo
konkortuta
kondenazioaren zama garraiatu ezinik.
Alanbreko kutxiloen artean harrapatuta
ziztatutako baloiek
era berean zapuzten dituzte ametsak.
Pareko paretak hain egiten du gora
badirudi okertu ere egiten dela,
zerua estaltzearen anbizioan
motz geratu eta
patioaren mugetan definitzen den
itzala hedatzen du.
Eta bada oraindik
geratzen zaion esperantza apurra
"liberdade, liberte" idazten
xahutzen duenik;
preso izatearen duintasuna
ulertzen duen norbait izango da
edo gogaiturik
frustazioak uxatzen dituena.

Beldurra libre da gure herrian

Basamortu erdiko zuhaitzean bizi den txoria
Libre al da?

Gure Herrian preso bizi gara.
Bizi preso gara gure Herrian.
Gure preso bizi gara Herrian.
Preso Herrian gure bizi gara.
Bizi gure gara preso Herrian.

Basamortua
ei da txoriarentzat
libertadea.

Preso eta beldur bizi gara.
Preso bizi eta beldur gara.
Preso, beldur eta bizi gara.
Beldur bizi eta preso gara,
beldur preso bizi gara eta.

Preso bizi gara gure Herrian.
Gure Herrian libre den bakarra
beldurra da.

"Maiteari eskutitza".

Aupa maitia!

Hamaikagarrenez paperontzira bota dudan gutuna hamaikagarrenez hastera noa. Gaur zurekin hitz egin dut bost minutuz (funtzionarioaren erloju madarikatuari lapurtutakoren bat edo beste gehiago) eta idazteko premia sentitu dut, zoriontasunez bete didazun barrunbea papereean, zuretzat, husteko beharra.
Ez dut gauza handirik esateko, maite zaitudala besterik ez. Barkatu, handiegia zen esan beharrekoa.
Maite zaitut azalera latzetara ohitutako eskuak urtu egiten direlako zu ferekatzean, ertz zorrotzak borobildu egiten direlako zure gorputzeko gora-behera eta errebueltak ikustearekin batera... maite zaitut zeru berak estaltzen gaituela erakusten didazulako.
Zenbatetan esan ote dugun espetxeak (izen abizenak izango ez balitu bezala) ez duela maitasuna ezagutzen, eta zenbat okertu garen. Espetxeak badaki asteroko gutunak, deiak; gaueroko enkontru pornografikoa... askatasuna, amiñi batez bada ere, dastatzea dela. Espetxeak badaki maitasuna zen den, horregatik gorroto du.
Hesiak, horma luzeak, zulo sakonak jartzen dituzte tartean, korrikaldian botako gaitztelakoan. Inpotentziaren inpotentziaz. Aspaldi ikasi genuen haizearekin batera, itzal moduan isil-misil oztopoak zeharkatzen bata bestearenganaino.
Ikusten maitia? Hamaika aldiz hasi dut gutuna bi hitzez esatekoa dena esateko, maite zaitut. Badirudi nahitaez zemento apur bat sartzen zaigula guztioi bihotzean. Normala da, finean sentimendu klandestinoez ari gara, gutun honen moduan.
Ilargiak joateko keinua egin dit, azkar iritsi zara... banoa.

Iñaki Gonzalo Casal
1964
Erromo

1994. urtean atxilotu eta espetxeratu zuten

C.P. La Moraleja
Carretera p-120
34.210 Dueñas, Palencia

Una tarde de fiesta con K. M.

No todo lo que veo desde la ventana de mi celda tiene forma rectangular y está dividido en tres espacios del mismo tamaño. A veces, cuando mi vecino de celda se aburre y deja el parloteo y las hurracas dejan de gruñir y los perros de ladrar, me asomo y recorro con la mirada el trozo de campo reseco que rodea el muro más alejado del recinto de la cárcel. Ahí empece mi aventura. Ayer, por ejemplo, una presuntuosa K. M. había colgado banderolas rojas y blancas y farolillos de papel entre las ramas de una docena de moreras. ¡Se imaginan! Todo por llamar mi atención. Que lo consiguió porque, junto a una chaice-longe y una mesa redonda, cuatro soldaditos tocaban marchas festivas al cobijo de una pérgola blanca. Tumbada en la hamaca K. M. me hacía guiños y me sonreía mientras sorbía con su pajita un licor de color rosado. Yo también le sonreía y movía la mano como asintiendo y me escondía para hacerla rabiar y así durante unos minutos, jugando a que la veía, cerrando y abriendo la ventana, dibujando letras del revés en el vaho del cristal.

Para que el sol no acabara por enrojecer su delicada piel K. M. orientaba la sombrilla a cada rato y yo desesperaba porque me veía obligado a ponerme de puntillas y torcer el cuello y colocar la mano derecha sobre mi frente a forma de visera. Pensé en desaparecer de pronto y agacharme un buen rato y que se arrepintiera de jugar al escondite pero ella era dueña de mi voluntad y lo sabía y conocía mi debilidad por las mujeres de piel blanca que languidecen al sol tumbadas en una hamaca y cierran los ojos y los abren a cámara lenta y miran pero no miran y provocan con picardía mis pasiones. Así que si me agachaba y desaparecía. Me arriesgaba a que estrellara la copa contra el suelo y mandara parar a los músicos y colocara la hamaca mirando al horizonte. Conozco bién sus arrebatos y sus estratagemas y por eso la provoco lo justo para seguirla el juego.

Toda la tarde fue un ir y venir de invitados inoportunos: su sobrino vestido de marinerito con una mancha de helado de fresa en la pechera, la madre de su sobrino que intentaba ocultar la mancha del helado de

fresa e iba de un lado a otro dando instrucciones a los criados, los dos carpinteros que habían instalado el quiosco de música y esperaban que alguien abonara su trabajo y, por fín, su repelente hermana pequeña, una niña de tirabuzones rubios que sujetaba un aro y un palito con las dos manos. Algo le dijo al oído y K. M. se levantó, recogió la hamaca y los farolillos que colgaban de las ramas de las moreras y se fue a llevar un pastel de nata y bocadillos de anchoa y queso a una madre desconsolada que velaba el cadáver de su hijo muerto.

Andoni Cabello Pérez
1968
Iruñea

1991. urtean atxilotu eta espetxeratu zuten

C.P. Castelló
Carretera de Alcore, Km. 10
12.006 Castelló

Cunda.

(Diario de una conducción.)

Picassent, 5 de agosto de 1996 por la noche.

No puedo decir que no me sorprendiera la noticia de mi inminente traslado. Sabía que tenía juicio el 9 de septiembre, pero a pesar de estar sobre aviso nunca se espera uno la noticia. Al menos ésta vez me había preparado ya hasta una lista de lo que me llevaba y lo que no; Anduve como Mr. Bean en el gag en el que marcha de vacaciones, esa escena en la que, para ahorrar espacio en la maleta, decide minimizar todo su equipaje cortando las mangas de las camisas, las patas de los pantalones, el mango del cepillo de dientes...

He dejado en Mallorca media vida. Cajas repletas de libros, carpetas y apuntes, bolsas con ropa, el ventilador, la televisión... Y una caja "de regalo" a cada uno de mis sufridos Txento e Iko: fiambreras, trastos de cocina, material de manualidades, pinturas... Resumiendo, que había vuelto a juntarme con un montón de cosas desde el último movimiento de celda. Cuando las cosas están en el txabolo parecen no ocupar espacio alguno, pero cuando se trata de decidir qué es lo que me llevo conmigo y lo que no, la cosa se complica.

Para el traslado sólo nos permiten una bolsa cuyo peso no exceda los veinticinco kilos. ¡Qué gracia! Ellos nos dispersan, nos obligan a cargar con la casa a cuestas de cárcel en cárcel y luego, a la hora del transporte, sólo veinticinco kilos. Pues muy bien. Economía de guerra: sólo lo imprescindible. Ya puede olvidarse uno de apuntes o libros de estudio, o la máquina de escribir, o más camisetas o mudas de la cuenta... No puede ser. Hay que racionar al máximo. Tanto he racionado que hoy, lunes, ya no tengo nada para leer. He devorado las dos novelas que metí en el petate y me he quedado sin nada que llevarme a los ojos.

Menos mal que mañana salimos para Foncalent y en un par de días ya estaré en Valdemoro.

Martes 6 de agosto por la tarde (Todavía en Picassent).

Mi nombre no estaba esta mañana en la lista de la guardia civil y mi traslado se suspende hasta la semana que viene. Me jode porque me he quedado sin lectura y las horas corren lentas. Tendré que recurrir al fondo de libros de la institución para ojear alguna historia de Agatha Christie o de Stephen King, que tanto abundan en las penitenciarías españolas.

Aprovecho el tedio para escribir esto.

Por lo menos esta vez me ha tocado una celda algo decente. Está recién pintada y debo de ser el primero que la ocupa, con lo que no tiene ese peculiar olor a tabaco frío y excremento putrefacto tan característico de los módulos de tránsito. También está bien iluminada, en la primera planta, y la luz natural me permitió ayer disfrutar hasta bien tarde de la lectura. Echo de menos el flexo, que no me lo han dejado pasar al txabolo.

También echo en falta el ventilador que ahora Iko estará disfrutando. Este asfixiante calor mantiene mi cuerpo empapado día y noche. Sudo hasta por la lengua. Una lástima que las duchas en las celdas, tan cacareadas el día de la inauguración de este penal como una de las mejores prisiones europeas, sólo puedan utilizarlas, paradójicamente, los que menos horas pasan en ellas. Los de aislamiento, que debemos pasar veintidós horas diarias encerrados, no tenemos ducha. Los ministros De la Cuadra y Asunción sabrán por qué. Supongo.

Miércoles 7 de agosto.

Me dieron la noticia a las cinco de la tarde.

–Se va usted de conducción. –Fue lacónico el carcelero.

Para las ocho ya había hecho la maleta, recogido las cosas, distribuidas las que iba a dejar a Txento y a Iko y me despedí de ellos. Nos dejaron darnos un abrazo.

¿Quién sabe si volveremos a estar juntos alguna vez... si seguirán ellos allí cuando yo regrese... si regreso?

A las 22:30 ultimaba la salida de la prisión: me entregaron el dinero de mi cuenta de peculio para el viaje, me tomaron las huellas y monté en el pequeño furgón que me llevaría hasta el puerto para embarcar. A las 23:00 contemplaba Porto Pi, el embarcadero del famoso Fortuna, donde ahora hace un año detuvieron a los compañeros que intentaban una ekintza contra el rey de España.

Los picolos que me acompañan charlan distraídos con otros agentes de paisano que refuerzan la seguridad. Me distraigo viendo la maniobra del Ferry, el Ciudad de Palma, por la ventanilla del furgón de traslados. ¡Es enorme el jodido! Y se mueve lento como un buey. Baja y sube gente, entran camiones de mercancías a sus bodegas... Todos indiferentes al furgón blanco que espera conmigo dentro la orden de embarco. El preso soy yo. Ellos, los turistas, disfrutan de sus vacaciones. Atravesamos una cubierta llena de asientos como en los aviones, ésos que sólo he visto en las películas: ventanas pequeñas a estribor, tres asientos, un estrecho pasillo, otros tres asientos, otro pasillo, tres asientos más y las ventanas de babor. Recorremos laberínticos corredores hasta llegar a la celda acolchada que hace las funciones de calabozo en el buque. Aquí me dejan esposado deseándome felices sueños. No puedo quejarme. A mí me han esposado con las manos delante. A Txento una vez, los guardias civiles tuvieron la desvergüenza de desearle "buen provecho" mientras le dejaban con las manos atadas detrás, sin poder hacer otra cosa que contemplar la bolsa que contenía la botella de agua y el bocadillo que nos entregan al salir de la cárcel. A estas horas, cuando los puros de La Blanca estarán todavía humeantes tras saludar a Celedón en Gasteiz, ceno esposado un bocadillo de salchichón correoso en medio del Mediterráneo, en las bodegas, cinco metros bajo el nivel del agua.

Viernes 9 de agosto.

Este calor me mata. La chapa metálica agujereada que cubre la ventana no deja entrar aire fresco; ni siquiera permite sacar un poco la cabeza para respirar. Se convierte esto en un microondas en el que el asado soy yo.

Hoy debería estar en Valdemoro.

Domingo 11 de agosto.

No me han dejado telefonear a casa para tranquilizarles. Razones de seguridad. Estarán preocupados sin saber dónde paro.

Sigo con el diario.

El desembarco en Valencia siempre me ha gustado. He recorrido el trayecto de vuelta desde el camarote hasta el portón trasero del barco acompañado por mis inseparables guardianes. Siempre esposado, las muñecas violáceas, los ojos legañosos por culpa de una noche a duermevela. Las olas no me han acunado lo suficiente. En el dique nos espera la Mercedes blanca y el coche camuflado de la secreta. Los treinta o cuarenta metros que separan la rampa de desembarco del vehículo los aprovecho para contemplar el puerto de reojo. Tantos meses sin alargar la vista más de cuarenta o cincuenta metros y, de golpe, la inmensidad del mar ante mis ojos con el sol recién despuntado. ¡Precioso! La alegría dura escasos treinta segundos, pero lo suficiente para retener la imagen en mi memoria.

Después de acomodarme en la furgoneta nos encaminamos hacia Picassent siguiendo el cauce del Turia, apestoso desagüe que, pese a su inmundicia, me regala la contemplación de magníficas garzas reales y toda una colección de aves acuáticas que desconozco y que se ceban removiendo el lodo o tragando pececillos. El viaje resulta enriquecedor en lo que a biología respecta. No sé cómo aguantan la peste de la ría, pero de estar alguna de estas especies en peligro de extinción, pronto lamentaremos su desaparición por envenenamiento.

Martes 13 de agosto. En el módulo FIES de Foncalent.

–Prepare usted sus cosas, sale de conducción.

De nuevo la frasecita de marras.

No hay mucho que preparar, así que, para las 10:30 de la mañana ya estoy en el departamento de Ingresos de Picassent esperando a que los presos que llegan de Alicante bajen del bus para montar nosotros y hacer el viaje de regreso hasta Valdemoro.

Como siempre, el olor del canguro[1] es asqueroso, mezcla de orines del retrete, de vómitos provocados por los mareos, del humo del tabaco acumulado en las paredes metálicas durante lustros, de los restos de los bocadillos... En semejante amalgama es imposible descifrar las esencias una a una. Para Suskind[2] esto habría servido de inspiración.

A esas horas el sol ya ha calentado lo suficiente la carrocería del autobús como para que aquí dentro se sobrepasen seguramente los 40ºC. Por suerte, en cuanto nos pongamos en marcha, el aire acondicionado aliviará el sufrimiento y el sudor que ya empapa mis pantalones cortos.

Me acomodo, cierro los ojos y dejo volar mi mente para escaparme en pensamientos de este ataúd con asientos. La idea de comunicar semanalmente con Elena, con mis padres, Susana, Zitori (a la que tanto tiempo hace que no veo)... me hace sonreír y olvido los rigores del viaje. Merece la pena. Si la estancia dura un mes, va a ser un mes de descanso para todos. ¡Qué diferencia estar a cuatrocientos kilómetros o estar a mil, o a tres mil, como Patxi! Otra vez la dispersión marcando nuestras vidas. Cuánto dolor, cuánto ensañamiento y cuánto sufrimiento infligidos con impunidad para con nuestros seres queridos. Ellos, sin comerlo ni beberlo, padeciendo las consecuencias más dolorosas del conflicto por rebote. Son fuertes, muy fuertes.

En cuanto llegue a Valdemoro llamaré por teléfono, pediré los vises... A ver si aceptan la autorización para comunicar con Elena. El año pasado no nos dejaron comunicar porque nuestra relación la tiene que bendecir Instituciones Penitenciarias. Quizás me metan en el módulo con Aska, o con Mikel, o con otros amigos. Está bien esto de viajar de vez en cuando. Conoces nuevos compañeros, noticias, información, txaskarrillos... Es una pena que Patxi no venga ésta vez. No está incluido en el sumario. Habría estado bien repetir la experiencia del mes y pico que compartimos módulo el año pasado.
El DAF lleva ya un rato en marcha, estamos abandonando la zona industrial de Picassent. Encuentro una postura cómoda para mirar por el ventanuco y comienzo a deleitarme contemplando los campos de cítricos.

Es un verdadero vergel este terreno comprendido entre la autopista y el mar: la Albufera. Infinidad de pequeños huertos, cada uno con sus canales de riego regulados por el milenario Tribunal de las Aguas; pequeñas chozas para guardar aperos de labranza; incluso mini viviendas en medio de un verdor que relaja la vista. Puedo leer Tabernes en un cartel de la carretera. La famosa Tabernes, la de las pegatinas de las naranjas, aquéllas que de niños nos pegábamos en la punta de la nariz a modo de diversión.

El calor se toma insoportable. El picolo no ha conectado el aire acondicionado. Doy dos patadas a la puerta y bramo: "¡dele al aire!". No hay respuesta. Doy dos patadas más y vuelvo a gritar: "¡Ese aire!". Mis pulmones agradecen, como mi piel, el frescor que comienza a colarse por la pequeña rejilla.

A medida que se abandona la provincia de Valencia dejamos el llano, el terreno comienza a volverse más abrupto y escarpado. Cambian también los cultivos, que transitan de los naranjos y los cañaverales hacia los pinos piñoneros y los almendros perfectamente asentados en cientos de terrazas que decoran los montes desde sus faldas a sus cimas. Ingente labor que debieron realizar aquellos que las construyeron. ¿Musulmanes quizás, de la época andalusí, antes de que los castellanos los echasen para usurparles lo que tanto trabajo les costó?

Huidizo, entre las montañas, se me vuelve a presentar a trozos el Mediterráneo. Fenicios y cartagineses sabían lo que se hacían al conquistar estas tierras a los hombres y a la naturaleza. ¿Serían ellos ya constructores de terrazas? La autopista transcurre unos kilómetros paralela a la costa. Pequeñas bahías, cabos rocosos, playas de ensueño, pueblos blancos que deslumbran con los reflejos del sol de la mañana... Empiezo a comprender por qué es zona de alto interés turístico.

La vegetación cambia. Se nota la primacía del turismo sobre la agricultura. Javea, Denia, Altea, Benidorm... salpican la costa y sus urbanizaciones se mezclan con miles de pinos en las laderas que miran al mar. Quedan algunos almendros, pero la especulación y las ansias constructoras parecen no dejarles demasiado sitio. ¿Serán hijas de estos almendros las bar-

ras de turrón? Cerca de aquí ha de estar Xixona, la meca del exquisito dulce.

La postura comienza a ser incómoda y no puedo seguir en pie mirando por el ventanuco. El calor, además vuelve a ser insoportable y comienzo a tener náuseas. El guardia civil sigue divirtiéndose conectando el aire para cortarlo a los pocos minutos, con lo que la sensación de asfixia se vuelve angustiosa. Vuelvo a gritarle que deje de jugar con el aire y recibo una airada respuesta:

–¡Como vuelvas a quejarte del aire no vuelvo a encenderlo en todo el viaje!

No replico, por si acaso, no sea que me apaleen las .costillas como aquél verano del 94 aquí mismo, en Foncalent. Pasé dos semanas con el cuello agarrotado. Dos semanas de arresto mayor para los culpables. Flaco balance. Mucha impunidad. Apalear etarras no resulta gravoso.

Intento dormir el resto del trayecto sin conseguirlo. Por lo menos he dominado las náuseas y el mareo. Queda poco para llegar a Alacant.

Llegar ha sido un alivio: AIRE. Los trámites burocráticos van rápidos: huellas, nombre, recogida de lo imprescindible para pasar la noche y, por fin, entrada al módulo FIES. Ha sido un par de horas de viaje. Lo duro vendrá mañana. La ducha me deja como nuevo. Dejo que mi cuerpo sienta el potente chorro de agua fría y me froto con fuerza, queriendo desprenderme de todo lo malo del viaje.

Grito por la ventana preguntando si hay algún vasco en el módulo. Al momento aparece Gonzalo en la ventana contigua y me saluda con apreciable alegría. Me pregunta qué necesito.

Lleva varias semanas en aislamiento sin motivo alguno. Soy de los pocos compañeros que han pasado por aquí en este tiempo. Saludo también a Valentín y a otros presos sociales que conozco de alguna de las muchas vueltas que hemos dado ya por la piel de toro. Los FIES (Fichero de Internos de Especial Seguimiento) están puteados. Asunción inventó el fichero a raíz de los numerosos motines de 1991 y desde entonces han sido varios los que han muerto por no aguantar las condiciones de ais-

lamiento, el régimen especial al que nos someten con todo tipo de restricciones y vulneraciones de los más elementales derechos. Otros, simplemente han aparecido "suicidados" sin que nadie haya investigado sus muertes.

Gonzalo y yo pasamos la tarde charlando por la ventana. Nuestras celdas son contiguas y ello nos permite hablar sin molestar demasiado a los demás mientras duermen la siesta. La situación en Alacant como mako, estudios (él hace también Historia), la familia, la lucha, la vida... Hasta que, rendidos por el cansancio y apremiados por un enamorado, me despido de Gonzalo:

–Zaindu zaitez, lagun. Ikusi arte.

El enamorado es Perico, y su amada Bea, una mujer presa en el departamento destinado a ellas. Cierro los ojos y me dejo llevar por la conversación amorosa a pleno grito desde el módulo FIES al de mujeres, distantes a un centenar de metros.

–Cariñoooo, ¿Has recibido mi cartaaaa?

–Sí, mi amooooor.

–He pedido de nuevoooooo autorizacióoooon para poder vernos, pero el de seguridad me la ha denegadoooo.

–Tendremos que hablar con el juez, con la asistente social, con quien seaaa.

–Tengo muchas ganas de vertee, y de hacerte cositaaas.

–Yo también, preciosa, reina míaaa.

–Come bien, que tus defensas están bajas y puedes tener una recaídaaaa.

–Tranquila, que yo me cuido dabuten, hago gimnasia todos los días y sigo con mi dieta vegetarianaaaa...

Tardan un rato en despedirse deseándose bonitos sueños y dejándonos a los demás un amargo sabor en la garganta al ver la crueldad a la que

pueden llegar estos carceleros impidiendo a una pareja una simple comunicación a través de los cristales. Nunca la frase "el amor derriba todos los muros" tuvo mejor aplicación. Perico y Bea dormirán esta noche soñando el un@ con la otr@, libres en el mundo mágico de los sueños, libres mientras dure la noche, libres hasta despertar.

Miércoles 14 de agosto.

A primera hora de la mañana nos hacen subir de nuevo en el canguro, uno a uno. Nos quitan las esposas. Estoy de nuevo en el ataúd metálico saboreando su inconfundible olor. Pero esta vez tengo un acompañante, con lo que el viaje hasta Madrid se presenta doblemente duro: dos personas en ese espacio es demasiado, demasiado asfixiante.

No le pregunto su nombre, así que lo llamaré Erick porque su apariencia es exactamente la de un vikingo, quizás descendiente del mismísimo Erick el Rojo, el descubridor, hace mil años, de Groenlandia y las costas de Terranova, dicen. El caso es que sin saber siquiera su nombre, sin yo entender el holandés y él mal el castellano, me cuenta toda su vida y obras en las seis horas que dura el viaje a través de La Mancha.

Entre relato y relato del vikingo puedo alegrarme contemplando cómo se transforma el paisaje levantino en meseta castellana. A medida que nos alejamos de Alacant las crestas de las resecas montañas se suavizan, las terrazas desaparecen y los cereales y las mas reemplazan a los almendros adornando la franja estrecha que corre ante mis ojos a la velocidad del viejo DAF. Se nota la severidad del clima en la meseta. La sobriedad en las construcciones y la ausencia de riqueza ostensible son evidentes comparándolas con las turísticas costas mediterráneas o la rica Albufera valenciana. ¿Cambiarán también las gentes? ¿Influirá el clima en la manera de ser de los pueblos? No es evidente, pero sobre antropología no puedo juzgar simplemente por lo que veo por la ventanilla.

Erick es tatuador errante. A sus 28 años ha recorrido toda la costa europea del Mediterráneo, de Algeciras a Estambul, tatuando brazos, piernas, espaldas y culos de turistas deseosos de lucirlos al sol de cualquier chiringuito o en algún antro nocturno quién sabe si con ánimo de ligar. Un día se cansó de su fría Holanda y decidió emigrar, como las aves, a

lugares más cálidos armado con sus botes de tinta, sus agujas y sus archivos con mil dragones, mariposas, serpientes y calaveras que harían las delicias entre los amantes del antiguo arte de decorar los cuerpos. Lo malo era que había caído en el vicio del polvo blanco y, con él, en una red internacional de falsificadores de divisas. Ahora Garzón lo reclama por varias órdenes de búsqueda internacional dictadas por la Interpol Holandesa. Teme ser extraditado.

Cuando puedo, cuando me deja, le digo que soy vasco, de ETA.

–¡Uh! –Exclama–, ETA, mucho miedo, bomba, turista...

Y me encuentro dando una "mesa de premilitancia" a un holandés que no entiende nada de lo que intento explicarle. Al final él sigue con el relato de su abultada carrera delictiva desde que empezó, con dieciséis años, a robar coches de lujo por el simple placer de conducidos. Luego aprendió que vendidos a redes de ladrones profesionales era más provechoso. Y a partir de ahí el resto.

La Mancha me muestra a través del ventanuco su imponente llanura repleta de pinos piñoneros, olivos, viñas y campos de cereales cosechados hace meses. Aquí las mieses maduran antes de junio; en Urbina algunas no se cosechan hasta agosto. Rigores del clima.

Estas mismas llanuras, los mismos rebaños de merinas mezcladas con cabras, debieron de servir de inspiración al genial manco de Lepanto para sus Aventuras del ingenioso hidalgo Don Quijote de La Mancha. Quizá en estos pagos, ya cercanos a su Alcalá natal, imaginó a las bellas Dulcinea y Marcela, convirtió los molinos que ahora veo en gigantes y elaboró las más disparatadas aventuras que nunca se hayan escrito. Él, en su estancia en prisión, no conocería de traslados, ni de ficheros FIES, pero seguro que echaba en falta derechos... Buena invención la escritura para matar el tiempo.

Pero mi cabeza vaga ya, como la de Alonso Quijano, hacia otros derroteros. Se acerca la hora de la llegada y con ella la vuelta a la realidad después de las seis horas de acelerones, frenazos, olor a orines, algún paseíto que otro por el pasillo para estirar las piernas y aliviar aguas

menores, las charlas con el vikingo y todos los sueños que he tenido en las cabezadas entre disfrute y contemplación de los paisajes manchegos.

Valdemoro está ahí, donde siempre, y ha llegado la hora de empezar a moverse: equipaje, ducha, paseo y charla con Moro (al que he visto una vez llegados al destino a pesar de ir los dos en el mismo canguro desde Alacant), instancias de teléfono, las visitas... En fin, el ajetreo de cada día.

El viaje, diez días después de salir de Palma, ha concluido. Queda la vuelta, si es que vuelvo. Pero eso será otro diario.

Cárcel de Valdemoro, 16 de agosto de 1996.

[1] Canguro: nombre dado en la jerga carcelaria a los autobuses de la Guardia Civil que efectúan los traslados de presos.

[2] Patrik Suskind. Escritor. Autor de la novela "El Perfume".

Igor Letona Biteri
1971
Arrasate

2003. urtean atxilotu eta espetxeratu zuten

Fleury Merogis
7, Avenue des Peupliers
91.750 Ste. Genevieve des Bois

Isolamenduko kronika

- Jesus bendito! Zer kristo duk hau!!! Espetxe berriagora ekarri eta ziega normala aurkitu beharrean, ez zidatek sasikumeek "hemen" sartu, bada!!! Nahiz eta aurreko espetxea erortzekotan egon mitard-eko ziega nahiko txukuna zuan. Beste honek lehengo inpresioan nazka ematek dik.

- Baita bigarren eta hirugarren inpresioan ere!

- Zer izango dituk komun funtzioa betetzen duen zuloaren alboetara altxatzen diren hormetan dauden kolore iluneko marka zikin guzti horiek!!!

- Txiza egiteko txilibitue ateratzeak ere beldurra ematen dik eta! Lasai txiki, tapau-tapau egingo haut irten beharra daukanean, hala behintzat birusen haginkadetatik babestuko haut eta!

-Hago isilik artaburu hori! Begira ezak, hi, ohe gaineko horma hori nola dagoen! Zer duk hori baina?

- Karkaisa zikinak dituk horiek! Orman pega-pega eginda gelditu direnak, eta denboraz, sikatutako pasak moduen, tamainoz txikitu baina kolore eta edukia mantendu dituztenak. Marroi-marroiak dituk gainera kabroiak!

- Zerk bultzatzen ote dik pertsona horrelako zerbait egitera, bera denbora luzean egon behar duen tokian? Zein frustraziok edota amorruk eragiten ziok bere ingurua guztiz zikintzera? Zein min mota duk hori, irrazionala bihurtzen dena? Zein toki mota duk hau, jendeari horrela erreakzionarazten diona?

-Hi, nik ez zekiat hire ostia horiei buruz ezer ere ez. Baina ormak hala jarri dituenari parez pare edukiko banaukek orain, eta oso handia ez bazuan izango, a! ze ostixa andanie jaso behar zitian kabroia eta txerria izatearren!!!

- Noizbait hori kolorekoa izaniko koltxoi horri lehen baino lehen jarri behar zioat funda gainetik, minutu bat gehiago horri begira egoten banauk ez diat berorren gainean lorik egingo eta. Koltxoiaren zein alde erabiliko ote diat burua joango den tokirako...? Eskuin aldea hautatzen badiat, mahai funtzioa betetzen duen, eta ohearen punta bati segida ematen dion, porlan zatia izango diat ostean etzanda nagoelarik. Gainera, jaterako orduan justu zati honek aulki funtzioa bete behar duenez, lo egiterako orduan burua jarriko dudan puntu honek janari puskak zein beste zikinkeria batzuk jasotzeko aukera guztiak dizkik. Ezker aldea hautatzen badiat aldiz, burua joango den bazter batetik hamar zentimetrotara karkaisa zikinen lurraldea hasten duk, eta gauean lo nagoela besoa luzatzen badiat ohartu gabe, lurralde madarikatu horren geografia eraldatzeko aukera bat baino gehiago diat...

- Bada, beste alternatibarik ez bazagok, halaxe konpondu beharko diagu! Dona, dona, katona, sutondoan aitona...ostiaz, ezkerraldea! Bueno hi, legala izen hadi eta oraingoan tranparik ez egin! Dona,dona, katona, sutondoan...ikusten duk! Tranpa barik askoz hobeto! Burua eskuma aldean joango duk.

-Nolatan ohitzen gaituk egoera hauetara? Kaka besterik ez bazter guztietan. Komun funtzioa betetzen duen zulotik datorren kiratsa, kaka kiratsa; ormetan kaka; mahai funtzioa betetzen duen porlan zatian kaka; kakaz inguratua dagoen koltxoia; tokia bera, kaka baiño nazkagarriagoa... Arrazoi zian bai, "ez dira min gehien egiten dutenak, baizik eta sufrimendu gehien pairatzeko prest daudenak garaile izango direnak" zihoenak.

(.../...)

Bost egun jada kakaz jositako ene txoko honetan eta hamabost zulo zikinean.
Heren bat egina ohartu gabean.

- Beste bi herenak egin orduko konturatuko haiz, bai horixe!
Espetxe barnean egonean egoteko egoera desberdinetan, eskaintzaren

mailarik baxuenean gelditzen dena duk mitard-a. Isolamendua bera ere azpitik dik diziplina deituriko auzune txiro honek. Konbinaketa ezin hobea trago batez barneratzeko; isolamendua eta zigorra. Zigorraren isolamenduan isolamenduaren zigorra. Bakardadea eta isiltasuna, bakarrizketaren meka, hitzaren boterea; bakardadea eta garrasiak, ikararen jaioterri, irrazionaltasunaren bizileku oparoena; bakardadea eta tristura, malkoen negarren eragilea; bakardadea eta gosea, adizioaren beharra baino beharraren adizio ate joka; bakardadea eta logura, ametsen askatasun faltsuaren ordua; bakardadea eta alaitasuna, zoroa ala jainkoa? Bakardaderik bakarrena, handiena, gogorrena, miserableena, beldurgarriena, negargarriena: jendez inguratuta pairatzen dena.

-Hi! Ulertzeko moduen idaztea ere ez duk gutxi gaur egun, bada!

(.../...)

Hogeita bost egun zuloan eta hamabost ene txoko honetan. Nire aurretik pasatakoen izenak ezagutzeko aski denbora izan diat jada. Zerbait esateko zuenak idatzi dik, besteak beste, izena eta zenbakia, eta beste askok, izena eta zenbakia idatziaz eman dute aditzera esateko zitean guztia.
Idazkiei dagokienez, lau ataletan banatuko genituzke jorratzen dituzten gaiengatik batez ere.
Lehen gaia, bertatik pasatakoek bertatik pasatuko direnei zuzenduriko adorez beteriko mezuak. Besteengana zuzenduriko elkartasun adierazpen faltsuan ezkutatu nahi den bakoitzak bere buruari zuzenduriko adore behartua. "Gardez la pêche" idaztea agintzen ziok gehien bat buruak eskuari.
Bigarren gaia, erresistentziaren artearekin dik lotura. Etsai boteretsuaren aurkako, zapalduak publikoki adierazi "ezin" duena adierazten ditek errepresioa areagotzeko beldurretik at idatzitako mezu zuzenak. Zapaltzailearen aurkako isileko hizkuntzaren garrasiak. Seme-alaba tontoak egin izanaren errurik ez duten amenganako hitz gogorrak. Gorrotoaren eta maitasunaren arteko erlazio ezin orekatuagoa; ama, tontoa, presoa. Zapalduak zapaltzailearenganako sentitzen duen gorrotoa eta beroni min egiteko hautatuko lukeen helburua eta, zapaltzaileak,

zapalduaren helburu litzatekeen pertsonarekiko sentitzen duen maitasuna; erreakzio naturaletan aurkitzen ahal dugun mendekuaren jarrera ezjakinarekiko duk proportzionala.
Mendekuaren jarrera ezjakina, zapalduen eta zapaltzaileen esku dagoena, zapaltzailea bere gorrotoan itotzen duena; zapalduaren duintasunak garaitzen duena.
Idazkien hirugarren gaia; gizakiak erasotzen duen beldurra garaituko duen gizakiak berak sorturiko herorri zuzenduriko testuak. Kristauen jainkoa diru laguntzek bizi irauten ditek. Musulmanen jainkoak ordu estrak eginez ere arazoak ditik seme-alaba guztiei jaten emateko. "La Concurrence, Fuck You!!!" ageri duk idatzia hizki handitan. Bietako zeinek idatzi ote dik?
Idazkien laugarren gaia; zuloan hogeita lau egun neramatzala idatzi behar izan nian,"Aurrera Bolie!!!"

(.../...)

Hogeita hamabost egun zuloan eta hogeita bost nire txokoan. Gaur arte zein gustura sentitu naizen ene buruarekin. Gaur arte bat izan bainauk, bakarra, berdina. Goiz honetan tamalez, azken hogeita hamabost eguneko praxiak bere amaiera izan dik. Gaur, nire teoria eta praktikaren arteko talkak, beste mundu bat posible da aldarrikapen hustura itzularazi naik, errealitateak adierazi didalarik posibilismoan sinetsiz bizi osoa igarotzen ahal dugula gure burua engainatuz.
Gaur, jada garaitutzat jotzen nian jarreraren errealitatea ikusi diat tente baino tenteago islatua. Egun euritsua diagu gaur, kanpoan egun iluna, zuloan normalean baino ilunagoa. Eguna bera tristatzerainoko talka edota eguraldia ezin kontrolatu dugunaren ondorioan oinarritutako errealitatea? Eguraldi iluna, bai.
Zapaltzaileak, ziega kanpotik bakarrik pizten ahal den argiaren etengailua mugitu dik posizioz eta, orduantxe ikusi diat ene pertsona, berdintasunaren parekotasunetik beti bezala aldenduz, beti tente-tente dagoen Fila, Nike, Adidas kolorez hornituriko ni.
Argi hori kendu nahiko nikek, berau babesten duen plastikozko plataforma hori kendu eta, zas! berdintasunera itzuli. Ni tente honek baina, eder-

ki asko ekiditen zidak lan hori aurrera eraman ahal izatea, Argia eta nire artean kokatuz beti, ederki asko babesten dik bai, bere ustezko edertasuna ematen dion iturria!
Pertsona jantziaren biluztasunean dagoela edertasuna ezin konprenitu! Itzaleko bizitzan aurkitzen duk, bai, bakoitzaren bizitzaren itzala.

(.../...)

Hogeita hamazazpi egun zuloan eta hogeita zazpi nire txokotxoan. Gaur, pila berrien kargamentua jaso diat beste gutunekin batera. Idazkera ikusi orduko pentsatu diat: "Jono! Pila berriak heldu dituk!"

Hurrengo gutunean edonola, jakinarazi behar zioat adarra jotzen diotela eta argi ibiltzeko. Bere gutunak "By air mail"-"Par avion" dioen pegatina dik itsatsia baina, hemendik pasatzen den hegaz egiteko traste bakarra, zapaltzailearen helikopteroa duk. Eta gutuna aldiz, oinezko ezjakinek ematen zidatek beti. Gaur egun, edozein trikimailu erabiltzen ditek jendea engainatzeko eta argi ibili beharra zagok. Pentsa ezak, guri ateak ireki eta ixten zizkiguten hauek, "ateak ireki eta itxi baino askoz gehiago duk" kanpainapean engainatu zitiztean eta, jada, urte bete inguru bete ditek berriek... ateak ireki eta ixten!

Nire lagunak aldiz, edozer gauza egingo likek niri pilak lehenbailehen bidaltzearren eta, azkenean ez ote dioten "par avion" ordaindu eta hiru asteren buruan jasotzen ditudan gutun hauek ordaintzean.
Cad é mar a ta tú mo chara!

Zuri buruzko pentsamenduak beti dira gure artean ene lagun maitea. Etzazula inoiz pentsa ahaztu zaitugunik. Aurrekoan izan genuen jaialdia eta, beste honek idazten zaituenean kontatuko badizkizu ere detailetxoak, ziurtasunez esaten ahal dizut, zure presentzia fisikorik gabe ere, zure izenak eragina jarraitzen duela izaten Euskal Herria ezagutzera emateko orduan.
Nire lagun maitea, onartu beharreko errealitatea da sufrimendu gabe ez dagoela aurrera pausorik. Eta gure buruari ere galdegingo diogu: "Bai,

baina zergatik ni?" Beno, horrek duen erantzun bakarra da bidea horrelakoxea delako, horrelakoa izan behar duelako. Noski atsegina izango litzakeela egunero goizeko 7:30etan jaiki, bulegora joan 17:30ak arte, 2 edo 4 seme-alaba zain dituzun apartamendura itzuli, emaztearekin elkartu lan ostean, "kulebroiak" ikusi telebistan eta azkenean, ohera joan hurrengo egunean berdina errepikatzeko. Edonola, sentitzen dut esatea errepublikan birusaren haginkadak ez duela sendabiderik, eta zu ere lagun maitea, horren jakitun zara.

Euskal Herritar bati ari natzaio idazten baina irlandar edo Hego Afrikar jaioa izaten ahal zen berdin-berdin, eta pertsona berak Errepublikar izaten jarraituko luke.

Errepublikarrok bide gogorra hautatzen dugu, baina, ba al dago beste biderik? Ez, etsaiak nahi ez duen bitartean, tamalez ez dago beste biderik, ez digute uzten beste aukerarik. Hezurretan utzi arte biluztuko bagintuzkete ere, guk garena izaten jarraituko genuke, eta datorrena datorrela!

Zuen espetxealdia zuen sinismen eta ikuspegietatik ordaindu beharreko prezio mingarria da, baina etzazutela inoiz ahaztu askatasunerako bidea ez dela erraza; izugarri gogorra da bide sasikume hau eta!

Ene lagun maitea, nik ere desiratuko nuke zu hemen izatea eta biok elkarrekin, garagardo banarekin mundua konpontzen aritzea, baina badakit era berean zuk beste bide hori hautatu duzula. Aulkiko jenerala izatea ez da zuk hautaturiko bidea!

Gu bion artean, urteen desberdintasuna oso nabaria bada ere, ez ezazu inoiz ahaztu; gu, zuzena den horren aldeko borrokalariak garela eta presoak aldiz, zuek bertan mantentzen zaituztenak dira. Zinez diotsut horrela dela!

Denok dugu lana egiteke gauden tokian gaudela, gauden egoeran gaudela, eta ez ezazu ahaztu: Gure mendekua, gure umeen irribarrea izango

da!

Nire burkide maitea, nire bihotza zuekin da!

(.../...)

Berrogeita hiru egun zuloan eta ordu erdi jada saminean. Afari pasada egina nuelarik etorri da zuzendaria. "Arratsaldeon, berri txarrak ditut zuretzat. Zuen burkide Errazkin hila aurkitu genuen herenegun goizaldean bere ziegan". Entzun nahi ez dugunak eragiten digun ulertu ez izanaren ondorioak eraginda, "zer?" izan da nire erantzuna. Baina entzun nahi ez izatea ez da inoiz aski izaten gertakaria bera eraldatzeko. Hitzez eraldatu ezin diren gertakariak asko dira tamalez, gehiegi. "Errazkin zuen burkidea hila aurkitu genuen herenegun goizaldean. Bihar irteten duzu mitard-etik. Dibisio honetan gelditukо zara. Gabon"

Oihane, joder!!! Kauendios!!! Zer egin diten baina sasikume hauek bide hori hautatzeko!? Hau ez zagon agoantatzerik baina agoantatu beharra zagon! Joder, Oihanetxo, dios!!!!!!!!

Hiru pausu aurrera, itzulia; hiru pausu aurrera, itzulia; hiru pauso aurrera, itzulia; pauso bat aurrera, lehenengo malkoa; bigarren pausua aurrera, malko gehiago; hirugarren pausua aurrera, malkoak nagusi aurpegian behera; itzulia. Barnean sua piztua, pausu bat atzera, ostikoa ateari.

Pausu bat aurrera, suak pizten jarraitzen du; bigarren pausua, malkoak areagotzen jarraitzen dute; hirugarren pausua, malkoek eta suak itzulia eman dute. Malkoek sua indartzen dute eta suak, malko gehiago eragiten.

"Oihanetxo, sasikumeek akabatu diten hirekin! Sikiera pare bat eraman ba hunan aurretik!" "Pausu bat aurrera, bigarren pausua aurrera, ateari beste ostiko bat. Sasikumeak!!!"

"Kontrola ezak sua! Kontrola ezak sua! Hori nahi ditek eta, kontrola ezak sua! Ez eman hauei plazer hori!!!"

-Zer egin diten baina, zer pasararazi diten sasikume hauek Oihanetxo!! Zer pasararazi diten bide hori hautatzeko!? puff... Eta Asier? Zela egongo ote duk Asier gaixoa?" Pausu bat aurrera, bigarren pausua, hirugarrena, itzulia; pausu bat, bigarren pausua, ''jota apurtuta egongo duk gixajue!!!'' Hirugarren pausua, itzulia; pausu bat aurrera, bigarren pausua, ''Errenditu baino, aukera hori hautatu dun, da horretarako, horretarako balorea eduki behar dun! Hagoen lekuan hagoela, gero arte gudari! Hirugarren pausua, itzulia; pauso bat aurrera, bigarren pausua, hirugarren pausua, itzulia; pausu bat aurrera...

Galder Bilbao Martinez
1973
Algorta

2003. urtean atxilotu eta espetxeratu zuten.

C.P. Madrid V (Soto del Real)
Carretera comarcal 611
28.791 Soto del Real (Madrid)

Martxoak hamaika kartzelatik

Gaia jarrita: Bozeramale bat zara, ezker abertzalekoa: Nola dakizu islamiar eraso bat izan dela? (c) Radio Nacional de España 104.9

1
Jatorra bezala hartu da beti
Euskaldunaren mintzoa,
Datu denak izan behar dira
Esan aurretik "antxoa",
Nahiz eta inoiz ez dugun hartu
Iraultzaileak deskantsoa,
Zelaian leialak ta beti da
Gure borroka zintzoa.

2
Kate guztiak apurtu eta
Aske aspaldi bagoaz,
Baña poltrondun ugari oraindik
Nahi gaitu askatu ahoaz,
Bidea argi xamarra dago
Zatoz gugaz, edo ez zoaz?
Terrorea ez dugu gustoko
Nahiko da jasandakoaz.

3.
Madrilen orain Gernikan lehen
Izan dira bonben hotsa
Erriduna beto da berdina:
Inoiz ez duenak lotza,
Herrien askatasuna bila
Hortarako bide motza
Ondo ta arin usoak hegan
Zehatza eta zorrotza

Kartzelako gaia:

Egizu bizitakoaren kronika (c) Euskal Preso Politikoen Koletiboko Kideak

1
Eguzkia ez da oraindik atera
otsoa dago goseakin
musikarekin lasaitu leike
baina gaurkoan da berdin
Burnizko artaldeari eraso
odol usaiñak eragin
bizitza joan da hegal egiten
islamiar bertso doinuekin

2
Hasieratik ekintzailea
nor izan den ezin uka
furgoneta ta froga ugari
txakurrak daude eztulka
Pupurri ederra egin da eta
musika ezin izkuta
bertso satanikoekin hasi
koraniar bertsoekin buka

3
Argitzeko eskakizunak dauz
gobernuaren ezetza
poterea eta urre beltza
zeukaten hoiek ametsa
Sakelak betetzea aspaldi
izan zutelako pentsa
petroleoaren euri beltzak
eragin du negar beltza

4
Aldatuz doa kartzelan genun
bizimodu trankiloa
horren erantzule bakarra da
hainbat lehergailu piloa
ezin zaio esan musulmanari
bera dugula oiloa
ondo egina? Baina hurrengoan
ez izan astokiloa

5
Gizartea lotan askotan ta
bere pentsamendu hutza
gauzak estaltzen, gezurra esaten
hori da bere hizkuntza
Miseria ta heriotzera
beti doa euren putza
esan iezadatela non dauden
hainbat irakiar hilkutza

6
Manhatanen urte gutxi igaro
ta ausnarketa da makala
larrugorritan, kale gorrian
musulmanaren azala
hamaika izan dira oraingoan
detonador digitala
eraso baten erantzuna da
beti proportzionala

7
Zeldetatik oraindik jetsi ez
ta telebistan pin pan pun
belarriak izateagatik
denetarik genuen entzun
azkar agertu ta ikusi genun
dena garbi eta txukun
eskerrak eman behar diogu
anaia: Salam Malecum

8
Zaharberrituriko laguna
bere bertso bat harira
Bilintx bezala, sorte pixka bat
izan bazuten sikira
gertakari latzagoetara
egon behar gara begira
dorregaraiagoak baitaere
bertan behera jausi dira

9
Musulmanek eraso eta
ordaña hor dek jakiña
nahiz ta borrokan gogor aritu
ekiditu behar da miña.
Hasieran gauza asko kolokan
inpotentzi ta eziña
gurea guda garbia da ta
inoiz ez gerra zikiña

10
Gure Jeltzaleak, inoiz ez zintzo
txarto zebilen zekiten
esnesaltzailea triste dago
herri saltzailea ekiditen
herri oso bat dadukanean
gorputz ta odola irakiten
Ibarretxe agertu zen lehena
zipayismoa egiten

11
Kolektiboan hasiera baten
izan zen pixkat apuru
duintasuna hemen mantentzea
hori da gure helburu
kide gainean leporazioak
asko ez zen egon seguru
manipulazio mediatikoaren
ondorioak bizi ditugu

12
Telebistan ikusi egin dugu
handia mugimendua
beso bat hemen, buru bat handik
imagina oso landua
batzutan dirudi joan dela
barruko sentimendua
hainbat bizipen izan ta gero
odol hotza baimendua

13
Ifema azokoa bihurtu egin da
tantorio baten errez
berriz Gregorio Marañonera
kide bat joango da nekez
errugabeek jaso egin dute
ordaintzekoa tamalez
espainol oro guk maite dugu
bere agintariak ez.

14
Madrid oraindik erdi lo dago
Kio torrea itzalakin
Madril kastizoa lanera doa
kapela marroiarekin
Joaquin Sabina ez dago abesten
Atotxan kitarrarekin
Bizitza joan da hegal egiten
islamiar bertso doinuekin.

15
Multzoak egiten joaten ziren
euskaldunen aurka bronka
abertzale zintzo izatea
goian mantentzeko erronka
Aranjuez, Soto, Alcala, Brieva
handia izan da borroka
oihuak ta ostikoak ziren
Balza ere gure kontra.

16
Zona zero berria daukagu
ez da egon mirakulua
tentsioa nagusi da Soton
euskaldunen muskulua
hirurogeita hamabosta guri
jarri digute artikulua
bost egun luze bere gabekin
txaboloan katilua

17
Aupa mutila ta emaztea
kartzelan da zure gizon
hainbat errealitate daude
baina ixilik Miramon
egun ta gaba nahastu ziren
baina gu beti egunon
bost egun sartuta eman ditugu
Portland-eko Guantanamon

18
Kidei bi norabideko agurra
tartean bada malkorik
semea, emazte ta askatasuna
bapatean atzean utzirik
Aste oso bat bertso bilduman
ezin da gorde neurririk
Poly ta Indio lekuko dira
noiztik ta hasieratik.

Leioa ez: Urondo

1
Mendetan zehar ederra dauka
bere bidean argia
herri tamaina duen auzoa
baina guretzat hiria.
Bertakoak izateagatik
jaso behar dugu saria,
gustoz gogoratu egingo dugu
auzo baten historia

2.
Zelaiak eta soroak ziren
inguruko bista dena:
gurdiak eta animaliak
oraindik ez zegon trena
Urondo ibaia zabalena zen
urak ez zuen etena
auzoari odol zain urdinak
emoten zion izena

3
Santurtxitik gasolinoa jeitsi
portuan zen arrain saltsa
gabarra zaharrak txikitu eta
zura zuzen etxerantza,
bertako edo kanpoko arraunaz
tximinian kea dantza
hurrutira joan gabe zegoen
bertan ugari arrantza

4
Uda garaian eguzkia goian
eta umeen irria
Marea gora itxaron eta
hortxe jostailu berria
Gorputza bero, ura laztandu
adin guztikoen xirria,
zubitik jausiz lortu egiten zen
bainu oso freskagarria

5
Egun guztian beharrean baina
zer da izatea hasperen?
laneguna bukatu orduko
poza zabaltzen zen ozen,
aitite ugariren kondairak
agertu egiten dira hemen:
tamarisen atzetik atera
eta uretara zuzen!!

6
Tinaka ta igeri lasterketak
heldu dira jai garaiak:
bertsoak, jotak ta bilbainadak
abesten denok anaiak,
bolatinero, tronpalariak
ta komediante alaiak:
herrikoak ta oso jatorrak
horiek bai zirela jaiak!

7
Ubetan bertan, gure arbasoak
bazeuden angilen bila,
hortarako beharrezkoa zen
tximista ta euri pila,
aterkietan sartzen zituzten
hartutako angila mila:
kontu handiaz harrapakina
irrist egin ez zedila

8
Udondo taberna babes leku:
bertan ardo ta bizioa.
Nagusi eta bezero ugarik
ezagutuz ofizioa.
Pasarte bat ezaguna da ta
izan zen txikizioa:
Medikuen eran burutu zuten
barran zirkunszisioa.

9
Zenbat baserri eskuz eraiki
familia lana, ai ene!!
astiro altzatu, mende berrian
adibidez Sertutxene.
Baserri izen ugari daude:
bihotzan beti Txurine,
"haginekin defendatuko dut
gure baserria seme".

10
Mikuzuak ikuiluan daude
bertan oilo eta idi,
begirada zaindari artean
jolasten dauz txantxibiri
Ohitura zaharrak bihur datezke
gaztetxoentzako ziri:
"urte barrian txarri belarri:
nik ez dekot eta niri".

11
Denon artean berreskuratu
behar ditugu hainbat truko
auzo handia bizipenetan:
eskopeta ta trabuko
Oroitzapenetan sartu ezkero
ez da inor isutuko,
urteak pasa daitezke baina
txapela beti lekuko

12
Ibai abarretatik joan gara
buelta gaitezen harira
beste bizitzan edo mundutik
udondotarraren bira,
gogoan hartu behar ditugu
udondotar denak tira!
Txoria beti bueltatu nahi du
utzi egin duen kabira.

Kartzelatik

Estribiloa:

Uso zuria kantari
kartzelan gaude adi-adi (bis)
harresiaren alde bietan
jo ta ke ekin ta hari
barrote arteko irrintzi askea
ez al duzue nabari? (bis)

1
Hamaika sartu dira
etxean armaturik
belaunak dardarrean
nahiz ta ez da hotzik
lau pareten artean
bultzaka sarturik
zazpi aldiz egon zeinkez
hil konorte barik
hirugarren pisutik
oinetik zintzilik
nola nagon ez datik
hil edo bizirik?

2
Zortzi t'erditan jeiki
bagoaz borrokara
gure tresna bakarra
daukagu algara
egun guztian zehar
dozenaka traba
baina zaindari beti
kideen begirada
hainbat momentu eder
babesteko izara
bizirik gaude eta
hau bizi behar da

3
Laguna ikusi nahi
bisita helburu
zai gauden bitartean
zelako apuru
ibiltzeko milaka
kilometro inguru
edozein bazter leike
hilobi seguru
egon ezin honekin
bizi ezin dugu
nor izango da hurrena?
Gogoan zaituztegu.

4
Kontatuko ditugu
sufrimendu gutxi
minik ez egiteko
behar dira irentzi
gutun bat postontzian
bakarrikan utzi
jakiteko kalean
borroka dau bizi
zeharkatuko ditu
langa eta hezi
guk eutsiko diagu
ta zuek ez etsi

2004. urteko martxoan Soto del Realen, inoiz baino askeago

Xabier Aranburu Muguruza
1962
Usurbil

1991. urtean atxilotu eta espetxeratu zuten

C.P. Herrera de la Mancha
Apdo. 77
13.200 Manzanares (Ciudad Real)

Zure gatibu gatibutzan
Doinua: Leiho ertzetik

I.
Maitasunaren lorategian
Huntzaren gisa itsasi
Bazter-txokoak bapo miatuz
Gogoz kiribiltzen hasi
Urtea joan urtea etorri
Izugarrizkoa hazi
Arnasketa galarazi
Liluratzekoa kasi (bis)
Bihotz taupadak arrapaladan
Dabiltza extasiz-extasi
Sentimenduek hormen artetik
Pozez dagite garrasi (bis)

II.
Izar arteko ilargiari
Ziegatik so bekaizti
Gaueko dama disdiratsuak
Oroimen onak dakarzki
Ai! Hamaika gau ahaztezinak
Bere abaroan edoski
Akelarretan preseski
Bilutsik eta jolasti (bis)
Su inguruko festa algaran
Zu izan zinen egiazki
Gatiburik utzi ninduen
Egunsentiko eguzki (bis)

III.
Bisitan aurrez daukagun arren
Betiko kristal zikoitza
Ilusiotan aberats dabil
Gure soaldi bakoitza
Zurekin dantzan ibili nahi-ta
Dantzan ibiltzen zait hitza
Irrifarretan losintxa
Harmonian aldiz ditxa (bis)
Txoraturikan nadukazunez
Ahotikan darit bitsa
Ostadarraren iturritikan
Edanez nabil bizitza (bis)

IV.
Itsaslapurrek bilatu duten
Altxorra adina balios
Dira enetzat zure eskutitzak
Diotsut malkotan itoz
Zure eskutan hitz laua bera
Poesia da betikoz
Leitzen ditut bozkarioz
Ta sentitzen naiz lorios (bis)
Boligrafoa erabiltzezu
Neurrigabeko amodioz
Begietatik sartuak zaizkit
Letra guriak pasioz (bis)

V.
Argazkietan agertzen zara
Ederra eta panpoxa
Soineko luze zuri gardenez
Begi-berdedun jainkosa
Musu gorriak ezpain guriak
Eperra bezain airosa
Bor-borka darizu poza
Zoriontasunez goza (bis)
Begirik kendu ezinik nabil
Udaberriko larrosa
Zu kontenplatzen egote hutsez
Urtzen didazu bihotza (bis)

VI.
Pentsamendua eta gogoa
Zugana doazkit hegan
Zure opari zoragarriez
Josirik dudan ziegan
Sineskaitza da ze eragina
Izaten duten niregan
Ze estimua diedan
Bihotza dindan-boleran (bis)
Orainaldia sendatzen dute
Sendabelarraren eran
Etorkizuna eskuan jarriz
Bertatik dezadan edan (bis)

VII.
Gau sorginduak bere altzoan
Murgildu nau ametsetan
Non besoetan hartu zaitudan
Limurtzeko desiretan
Muxu eztiak pausatu dira
Emeki-emeki ezpainetan
Hitz samurrenak loretan
Zentzumen oro olgetan (bis)
Zangalatraban izerdi patsez
Mozkorturik laztanetan
Arnasesuten hotsa nagusi
Maitasunaren errekan (bis)

VIII.
Zure ausentziak besarkatu nau
Esanez hemen zaudela
Ze korapilo, ze igurtzia
Ze sentsazio epela
Seguruenik hilko nintzake
Penaren penaz bestela
Ene bihotzeko perla
Maitasuna gure gerla (bis)
Urruntasuna bilakatu da
Deabru zital itzela
Gogoan izan maitatzen zaitut
Gauak izarrak bezala (bis)

Inés del Río Prada
1958
Tafalla

1987. urtean atxilotu eta espetxeratu zuten

C.P. Albacete
Carretera de Ayora, Km. 72
Apdo. 70
02.071 Albacete

Rasgando silencios
("Rasgando silencios" obratik hartutako pasartea)

Eran los primeros meses del año 1989, soplaba un ligero viento de esperanza que también se colaba hasta el interior de las prisiones, traspasando los muros y alambradas.

En Africa, en la lejana ciudad argelina, se hablaba del conflicto vasco y se tanteaban posibles soluciones.

La Mesa de Argel quebró estrepitosamente.

Era medianoche cuando la radio lanza la noticia de la ruptura de conversaciones en Argel. Aunque no se percibe ningún sonido en la prisión, estoy segura de que todas estamos escuchando la misma información.

El ligero viento de esperanza parece desvanecerse momentáneamente esa noche de finales de abril, seguiremos renovando ilusiones y esperanzas, algún día saldrá el arco iris en nuestro cielo.

Indudablemente el conjunto de medidas represivas contra el colectivo estaba preparado incluso antes de constituirse la Mesa de Argel. Sólo así es explicable la rapidez con que empezaron a aplicarlas.

De un día para otro, nos prohibieron las visitas de profesores, de médicos extrapenitenciarios, amistades...; aumentaron los cacheos indiscriminados, quisieron imponernos pasar en pie los recuentos y pretendían que nos desnudásemos antes y después de cada vis a vis.

Las provocaciones eran continuas, la tensión ambiental muy alta y hasta se permitieron airear nuestra vida y costumbres, de forma ofensiva y tendenciosa, en los medios de comunicación.

Una cálida tarde de principios de mayo, la megafonía de la cárcel difunde los nombres de unas compas y el mío, nos van a repartir por todo el mapa carcelario español.

Los módulos de aislamiento, el regimen de aislamiento, son la cárcel dentro de la cárcel, la marginación dentro de la marginación, el submundo dentro del submundo, la miseria dentro de la miseria.

Las horas de patio son limitadas, las actividades inexistentes, la vida en común muy reducida, las normas muy estrictas..... y la soledad inconmensurable.

Una misma es la compañera, la amiga, la confidente de muchos y eternos días y noches.

Hay que aprender a encontrar dentro de una misma el calor, la fuerza, la ilusión y toda la esperanza necesaria para no caer en el pozo negro de la desolación.

Y hay que captar belleza en medio de la fealdad, a sentir alegría en medio de la tristeza, a llorar cuando es necesario pero sin perder nunca el deseo de reír.

En Herrerita encuentro un panorama patético, cada mañana se llevan de conducción a seis o siete compas y las dispersan por diferentes prisiones.

Un día es hacia el Sur, otro al Este...exceptuando las cárceles vascas, la dispersión es por todas las prisiones españolas, insulares y peninsulares.

La prisión parece un lugar devastado, macetas de plantas abandonadas a toda prisa por cualquier rincón, ventanas de celdas desiertas, silenciosas; sin vida, pasillos vacíos, ecos de voces y risas abandonados todavía flotando en el ambiente...y nosotras cinco deambulando en medio de todo aquello, como espíritus errantes que no encuentran su ubicación, estando allí pero sin estar, porque sabemos que tan pronto como finalicen las diligencias, también nos trasladarán a otras prisiones,

El comedor se nos antoja inmenso, con todas las mesas y sillas vacías. La televisión suelta imágenes y voces que solo atienden las paredes y alguna que otra telaraña.

Si la megafonía difunde nuestros nombres al atardecer, hay sobresalto pues es la hora fatídica en que suelen anunciarse los traslados.

Aquí voy, recién comenzada la tarde, a mi nueva morada carcelaria. Nadie se ha molestado en indagar si tengo hambre después de muchas horas sin comer y tampoco he puesto énfasis en pedir que me dieran el asqueroso bocadillo de materia grasienta que suele acompañar todas las conducciones.

El furgón se llena de olor a olivas que maduran bajo el sol. El cielo esta inmensamente azul y se respira una gran calma en esos campos completamente ajenos a los avatares del mundo.

Se abre un portalón de hierro y entramos a un pequeño recinto que no tiene aspecto de ser prisión. El edificio es antiquísimo y esta muy descuidado.

El furgón se ha parado en un estrecho callejón en el que se amontonan sucios cubos de basura rodeados de moscas.

En la celda, pegadas a la pared y apiñadas unas contra otras, cinco literas de dos pisos, todas ocupadas excepto una que esta reservada para mí.

En una esquina, al lado de la ventana, una mesa con restos de comida; en la pared de enfrente, un a puerta da acceso a dos duchas, dos wáteres y un fregadero en el que se apilan unos cuantos vasos, platos , cubiertos y algunos trapos mugrientos.

Al fondo de la celda, una televisión que, como tuve la desgracia de comprobar, berreaba a todas las horas del día y gran parte de la noche.

Entre las nuevas moradoras de la celda, de todas las edades y estado físico y psíquico, había un niño de cuatro años compartiendo cama con su madre y una mujer de avanzada edad que, a falta de otro sitio mejor, escupía al lado de su cama. Eso sí, la buena señora tenía la delicadeza de pisotear el esputo para esparcirlo por el suelo y que se notara menos.

¿Qué más se puede pedir en el talego ?.

En un rincón , la única estufilla eléctrica existente en el módulo, es objeto de encendidas disputas entre las presas, que se arremolinan alrededor en busca de un poco de calor.

El abandono de las instalaciones y la miseria reinante son tan evidentes que sobrecogen el ánimo.

Todas las mesas están repletas de presas y resulta muy difícil encontrar hueco para sentarse. Finalmente, con la buena disposición de unas chicas, logramos espacio en la mesa situada en un rincón, justo en frente de una virgen de piedra, de cuerpo entero y con grandes lagrimones en la cara que, la verdad, elimina de raiz el apetito por el aspecto tan afligido que tiene.

En ese momento me dijeron que los domingos el comedor se convierte en iglesia, con velones y todo.

Esta mañana ha venido el furgón en busca de la compa que estaba conmigo y se la han llevado a la cárcel que le han designado.

Hemos estado juntas cinco días. Antes de despedirnos y de que la puerta chirriante del módulo se cerrara tras ella borrándola de mi campo de visión, he comenzado a echarla de menos.

Ese mismo día pusieron el decorado navideño.

Cuando terminaron de trajinar con bolas y figuritas, el comedor parecía una sala de fiestas de pueblo sin recursos económicos y muy mal gusto.

Serpentinas colgando del techo rozaban nuestras cabezas, bolas descascarilladas a fuerza de guardarlas de un año para otro, brillaban en una rama enclenque de plástico verde y un portal de Belén ocupaba el espacio de dos mesas, lo que disminuyó notablemente nuestro lugar para

comer, circunstancia que originó diversas peleas y algunas contusiones.

Menos mal que al día siguiente vinieron las monjitas con dulces y polvorones y el ambiente se calmó.

Hoy es el último día del año 1990.

No hace todavía un mes que me trajeron a esta prisión y tengo la sensación que llevo aquí media vida.

Cuando falta poquito para las doce de la noche, me acuesto. Es Nochevieja , pero no hay celebración, prefiero sumergirme en el mundo de mis recuerdos.

De pronto, coincidiendo con las doce campanadas, oigo sirenas de barcos que, acompasadamente, señalan el final y comienzo del año.

El puerto debe de estar muy cerca porque el sonido de las sirenas llega hasta mí con toda nitidez, incluso se notan las vibraciones en el aire.

Entreabro la ventana, aspiro el olor a mar y me dejo envolver por un cálido sueño.

Iñaki Rekarte Ibarra
1971
Irun

1992. urtean atxilotu eta espetxeratu zuten

C.P. Puerto I
Apdo. 555
Carretera Jerez-Rota, Km. 5
11.500 Puerto de Santa María (Cádiz)

Karramarroa eta sorgin bertsolaria

"...Maitasunaren ertz ederrena ezagutu berri duzu, Txiu...", esan dio Mohik goizean, eta karramarroak ezin du esaldia burutik kendu, beste ezertan pentsatu.

Txirlen banda ospetsua alokatu zuten dantzaldirako, zonaldeko ezagunena, itsas zaldi eta langostino batek zuzendua. Aste osoa horren inguruan solasean eman zuten bertako lanpernak, dantzaldia gora eta dantzaldia behera; "Txirlen banda dator!!!...lufa!!...".

Txiurentzat, berriz, lehenengo dantzaldia izango zen aspalditik gogo irrikaz desiratu hura.

Bart gauean, itsasbehera zenean, ilbetea aprobetxatuta prestatu zuten dantzaldia Hondarribiko harkaitz hezeetan. Ilargiaren irria distiratsu ikus zitekeen olatu lehertuen aparrean, inguruko uhinetan alai.

Txiuk, orain gogoratzen ez badu ere, urduri-urduri eman zuen eguna, gaua noiz iritsiko zain, harkaitzen artean bueltaka asper-asper eginda.

Itxaroteak, hala ere, merezi izan zuen.

Hura dantzaldia! Enee!...Atzeraka, aurreraka, biraka...Txirlen banda ingurukoek iragarri bezain totala iruditu zitzaion Txiuri. Zonaldeko karramarro guztiak azaldu ziren dantzaldira, baita itsas triku bat edo beste ere, halako dantzaldiak guztiek baitzuten gogoko.

Melodien erritmoan orduak eta orduak dantzan eman eta gauari ezin zitzaiola gehiago eskatu uste zuenean Txiuk, egitarauan iragarrita ez zegoen zerbait gertatu zitzaion:

Dantzan ari zenean, atzeko hankekin beste karramarro batekin estropezu egin eta hor geratu ziren, begietara so, beste karramarroak Txiuri esan zion arte:

"Meki naiz".

Bi hitz haiek nahikoak izan ziren. Une horretatik aurrera bizitzak norabide berri bat hartu izan balu bezala sentitu zen Txiu, betidanik bata bestearen zain egonak izan balira bezala. Dantzaldi berri bat sortu zuten begiradekin, zertan ari zen edota zer gertatu zitzaien pentsatzeko paradarik behar izan gabe.

Maitemindu ziren bi karramarroak.

Ederra, alaia izan zen, atsegina egoera berria.

"Ni Txiu naiz, eta hau da nire lehen dantzaldia".

Esan zion Txiuk Mekiri, elkar besarkatu eta isiltasuna egin aurretik, bien bihotzek elkartzeko behar izan zuten tartetxoa dastatu eta gero.

Gau ederra!...Pentsatzen du orain Txiuk, negar batean, bihotz-oinazez.

"... Maitasunaren ertze ederrena ezagutu berri duzu, Txiu…"

Errepikatzen zaio Txiuri behin eta berriro.

Dantzaldia ondoren, Txirlen bandak lanpernen eskaerei jaramon egin eta azken abestia jo ostean, ilargipean eman zuten gaua. Txiuk eta Mekik, elkar bersarkaturik, ordurarte ezezaguna zuten bigarren jaiotza baten barne murgilduta beileude.

Bata zein bestearentzat, lehenengo maitasun laztanak ziren haiek, amodio, desio ferekak … Hain zeuden liluratuta, itsasgoraz ere ahaztu zirela bi karramarroak.

… Batzuetan gertatzen da. Olatu batek karramarro bat ezustean harrapatu eta karramarroa errukiriik gabe itsasoratu egiten du. Olatuak eraman ostean edonon ager daiteke karramarro despistatua; Hendaian, Donostian, Bizkaiko kostaldean … Eta zoritxar handikoa bada, Espainia aldean ager daiteke ere, noiz edo noiz halakoa gertatu izan baita. Olatuek eramaten duten karramarroa, eskuarki ez dute berriro ikusten, ezta berataz ezer jakiten ere, karramarroak txikiak baitira bidai luzean egiteko…

Txiuk oraindik ez du ulertzen nola arraio ez zuen olatua garaiz ikusi. Bart gauen munduan beste norbaitekin dagoela deskubritu eta…hara nola desagertu zen bere ametsa.

"… Maitasunaren ertzen ederrena ezagutu berri duzu, Txiu…"

Pentsamendu burrunba, behin eta berriro, atsedenik gabe.

Baina Mohik ez zion hori bakarrik esan. Hitzok ahoskatu aurretik ezinezkoa zirudien erronka batetara gonbidatu zuen Txiu, karramarroen arteko lehia-edo izan zitekeena.

… Noiz edo noiz, Txiu, gertaezina dirudiena ere gerta daiteke ...

Hau esan eta Sorgin bati buruz hitz egin zion Mohik, oso-oso urrun bizi den Sorgin bati buruz.

… Baina hemendik oso-oso urrun bizi da –esan zion-, Gernika inguruko kobazulo batean. Sorginak maitasunaren magia ezagutzen du, haren jabe dela esaten dute karramarro agureek. Beraz, Txiu, leku orotan gertatzen den guztia jakiten du Sorginak…

Mohiren azalpenak aho-zabalik entzun zituen Txiuk.

"Leku orotan gertatzen dena baldin badaki, olatuak Meki nora eraman duen jakingo du ere…" Pentsatu zuen Txiuk.

… Hala ere, gu karramarroak gara, Txiu –jarraitu zuen Mohik-, hau ez inoiz ahaztu, arren . jakin karramarroek ezin dugula halako bidai luzerik egin ; Sorgina oso–oso urrun bizi da karramarro batentzat; ezineskoa da guretzat …

"Ezineskoa bada, Mohi, zertarako kontatu didazu hau guztia?", erantzun ziok Txiuk, haserre samar, Mohiren azken esaldiak bere itsaropen guztiak desagertarazi ostean.

… Ez haserratu hain azkar, Txiu –erantzun zion Mohik- hasieran esan baitizut, noiz edo noiz ezineskoa dirudiena ere gerta daitekeela …

Mohiren azken hitz hauekin geldi geratu zen Txiu, haserraldiaz ahaztuta, mohik ahoskatuko zituen hurrengo hitzen zain, isilik.

… Maitasunaren magian senetsi behar duzu, Txiu …

"Maitasunaren magian?"

Harriduraz galdetu zuen Txiuk.

… Hori esan dut. Maitasuna da mundu honetako errotak mugiarazten duen sentipena, desioa, arima … Magikoa da! …

Txiu une batez isilik geratu zen, baina segituan erantzun zion Mohiri.

"Ez dut ezer ulertzen Mohi".

... Ba ... Ulertzen ez baduzu ...

"Zer ? ... Ulertzen ez badut, zer ? ..."

... Ulertzen ez baduzu … -jarraitu zuen Mohik- Ulertu beharko zenuke, kontxo! … Zergatik gaude hemen, Txiu maittia, zu eta biok, bart gauean ezagutu berri duzu Mekiri buruz solasean? … Maitasunaren ertze ederrena ezagutu berri duzu, Txiu…

Txiuk ezin du burutik kendu Mohik esa dion guztia.

« Magia ? ... Baina non ? ... Bart gauekoa bai magikoa ! ... Sinetsi nahi dut, Meki, sinetsi nahi dut, maittia, baina.... Karramarroak gara, karramarroek ezin dugu ... >>

Ezin du asmatu nola berreskuratu bere maittiaren besarkada, laztana, goiztiriko ihintza lehenengo eguzki izpiekin desagertu bezain azkar itsu izan zena bere begietara, olatu errukigabe baten erruz.

Zerbait gertatu da, hala ere, bat-batean geldi geratu baita Txiu, pentsamendu ilunak alde batera utzi eta zerura begira, ezinezkoari so, haize korrontetxo batek gogoetan haria zauritu izan balio bezala, sormena iratzarri.

-Hori da ! Nola ez dut lehenago asmatu ! –esan du Txiuk bere golkorako- Axuni esango diot, berak lagunduko bainau!.

Arazoaren irtenbidea aurkitu duela konbentzimenduarekin aldegin du Txiuk Axunen bila, lasterka bizian, hari laguntza eskatzeko asmoz.

Axun egunero inguru hartatik agertzen den kaio agure bat da. Eskuarki asper-asper eginda egoten da eta aspalditik bakarrik bizi denez, Txiuk pentsatu du Axuni esanez gero gustora lagunduko diola.

"Arrazoia du Mohik, arrazoia du Mohik … -pentsatzen du Txiuk Axunen bila dabilen bitartean- Ezinezkoa ez baita zergatik lortuezina izan behar … Sorginarekin solastea lortzen badut Mekirekin elkartuko naiz, … Lortu behar dut… lortu behar dut …"

-Axun!!! … Axun!!! … -garraxi egin du Txiuk Axun ikusi bezain laster- Axun!!! ... Axun !!! ...

Axunek erantzun dion arte.

Arnasestuka oraindik, bart gaueko dantzaldiko gertaera kontatzen hasi zaio Axuni, Meki ezagutu eta nola olatu batek eraman zuen ; ezinbestez Sorginarengana joatea lortu behar zuela, Mohik esan baitio ...

-Konforme, Txiu –esan dio Axunek, irribartsu karramarro gaztea maiteminak harrapatuta ikusi duelako-, Sorginarengana joaten lagunduko zaittut. Zaude lasai.

Lasaitu ederra hartu du Txiok.

Irribartsu, pozez eta baita presa handia duenaren larritasunarekin ere hitz egin dio Axuni :

-Goazen ba! Oraintxe joan nahi dut, Axun!

-Bidai luzea da, Txiu –eguzkiari so erantzun dio Axunek- hobe biharko uzten badugu; berandu da eta ez liguke astirik emango.

Hala egin dute. Hurrengo goizerako geratu eta hegan egiten aldegin du Axunek.

Txiuk ezin izan du ia lorik egin. Sorgina nolakoa ote den pentsatzen eman du gau erdia, Meki non ote dagoen, hegan egitea zer ote den … Lanpernekin solasten egon da eta haietako batzuk ezaguna zuten Sorginaren magiaren kontakizuna, baita urruneko kobazulo batean bizi zela ere. Hegan egiteari buruz berriz, haiteko inork ezin izan dio ezer berririk esan: "gu harkaitzetara itsatsita bizi gara, Txiu, horrela ematen dugu bisitza, beraz … " Esan dio lanperna batek. Bidaiatik itzultzean hegan egitea zer den xehetasun osoz kontatuko diela agindu die Txiuk, pentsamendu goxoetan murgildu eta loak hartu aitzin.

Hitzartutako lekura lehena iristen Axun izan da, inguruko lokatzetan ederki gosaldu ostean; "eta zuk ere ongi gosaldu izana espero dut, bidai luzea baita eta sabela ez da maitasunarekin soilik betetzen", esan dio Txiuri lepoan hartu ahala.

Hegan egitea ez zaio hain arraroa egin Txiuri.

Karramarroek anitzetan hegan egitearekin amets egiten dute, olatu handi batek eramango balie bezala irudikatuz, aire estuan murgilduta-edo.

Haizearen fereka egin zaio goxoena, agian ezezagunena izan delako beretzat; ezerezaren kolpea sentitu arren, haizeak laztantzea baitu asmo.

-Ederra, benetan ederra … xuxurlatu dio belarrira Axuni.

Ordubeten-edo iritsi dira Gernika ingurura, Txiuk nahi baino azkarrago oraingoan, goi hartan gustora baitago behingoz handitasunetik txikitasunera neurtzen eguna.

Bele bati galdetuta jakin dute nondik jo Sorginaren kobazulora iristeko.

Bertara iritsi baino zuhaitz pare bat lehenago ikusi dute txartel bat pago handi batetik zintzilik:

SORGIN BERTSOLARIA

Idatzita dago txartelean.

Kobazulo sarrerara iritsi direnean, berriz, ez dute Sorgina inondik ikusten. Bai ordea haren kantua entzun, bertsotan ari baita,

Maitasunaren sekretua da

Mundu honetan ezagunena

Baina batzuetan egiten zaigu

Atzerritar arrotzena

Txiuk lurra hartu eta segituan hasi da Sorginari deika.

-Sorgina!!! … Soegina!!! …

Sorginak Txiuren deiari jaramonik egin gabe bertsotan jarraitu du.

Haren eskutik ilargipean

Arnastea da onena

Eki izpien sormena.

-Sorgina!!! … Sorgina!!! … -berriro Txiuk, aurrekoan baino ozenago.

Baina sorginak ezer entzun izan ez balu bezala jarraitu du abesten.

Paradisua aurkitzeaz gain

Ederra oroitzapena

- Ez, Txiu, horrela ez – esan dio Axunek inguruko zuhaitzetara aldegin aurretik-. Sorgin bertsolaria esaiozu, hala deitzea atsegin baitu.

Halaxe egin du Txiuk.

- Sorgin bertsolaria!!!... Sorgin bertsolaria!!!...

Txiuk bigarrenez deitu duenerako isiltasuna egina zen kobazuloan, etena sorginaren kantua.

Sorginaren aurretik Kattalin atera da miauka, katu beltza, kobazulo sarreratik eratzateko berriro.

- Bai, nor da? –galdetu du sorginak.

Hitz sakonak iruditu zaizkio Txiuri, ordurarte entzuna ez zuen ahoskapen ederrez esanak.

-Ni !...-erantzun du Txiuk, lotsati samar baina ozen- Ni naiz !... Txiu !

Sorginak Txiuren hitzak entzun baditu ere, aldeetara begiratu eta ez du inor ikusi.

-Non zaude, Txiu ? –galdetu du segituan.

-Hemen !... Zure atzean !

Sorginak buelta erdia eman eta hantxe ikusi du karramarroa, haginekin agurtzen.

-Kontxo Txiu!

Betiko lagunak bailiran agurtu du sorginak, Maitekiro.

-Barkatu zure kantu ederra etena izanagaitik, baina zure laguntzaren beharrean nago eta...- esan dio Txiuk.

-Ez barkamenik eskatu, Txiu; bertsoa zuri eskainita bota dut -esan dio sorginak, irribarre egin eta begi- keinu bat luzatuz.

Parez pare eseri eta adi-adi sorgina Txiuren kontakizuna entzuten, Meki nola ezagutu eta galdu zuen, bidaiaren arrazoia… Eta abar, eta abar, eta abar…

Bitartean, Axun zuhaitzez zuhaitz ibili da bertako zozo eta biligarroekin berriketetan. Hondarribia ere zozo eta biligarroen lurraldea izanik, bertakoek galderak eta

galderak egin dizkiote: zer moduz hau, zer moduz bestea…Gustora ibili da Axun guztien erdian kontu kontari.

Sorginaren hitzak aratzak, ulerterrazak dira Txiurentzat, geruza arin batez babestuta baileude entzun baditu ere, Sorginak Txiuk kontatzen ari zitzaiona sinesteko zalantzaren bat baleuka bezala.

-Karramarro eroa! –esan dion arte.

Sorginaren hitz haiek entzun eta guztiaz damutu da Txiu. Une horretan ohartu da alferrik bidaiatu duela. Axun dagoen zuhaitzarantza begiratu eta pena sentitu du halako kaio agureari abentura hartan sartu izanagatik, adin horretan ez baitago halako bidai luzeak egiteko, are gutxiago karramarro ero batek bultzatuta, bere buruan soilik pentsatu duen karramarroa …

Etsipen sentimenduak.

Karramarro eroa … Karramarro eroa … Karramarro eroa …

Errepikatzen zaio bihotz-oinazez.

Baina … Honaino iritis banaiz … -esan du bere baitarako- Ez al zion Mohik esan, bada, maitasunaren magian sinesteko?.

-Eroa, bai, arrazoi duzu, Sorgin bertsolaria, baina maitasunaren erruz naiz ero.

Ozen hitz egin du Txiuk, Sorginak ongi entzun diezaion.

Sorginak beso bat luzatu eta Kattalini laztanduz erantzun dio Txiuri.

-Hori ez da nahikoa!

-Nola ez dela nahikoa!?.

Harriduraz mintzo da Txiu.

-Ez, ez da nahikoa! –errepikatu du Sorginak.

Lurra tximistargi bat jaso izan balu bezala geratu da Txiu.

-Maitatzea … Desiratzea … Hori ez bada nahikoa … Bizitza emateko prest egotea ez bada nahikoa! .. –esan du baju-baju.

Ez, hori ere ez da nahikoa! –berriro Sorginak.

Sorginaren azken hitzak entzun eta buelta erdia emanez Axunen bila hasi da Txiu. Isilik geratu da. Bertatik lehenbailehen aldegin nahi du, oraingoan ziur baita alferrikako bidaia izan dela. Ez du uste Sorgin hark lagunduko dionik.

Baina Axuni deitzeko astirik izan gabe, Sorginaren hitzak entzun ditu berriro.

-Maitasunaren magian sinesten al duzu, Txiu?.

Geldi geratu da Txiu, Sorginaren ahots erakargarriak paralizatu izan balio bezala.

Ez du erantzutera asmatu.

-Mohik esan zidan … Entzun dut … Lanpernek … Dantzaldia …

Une batez isiltasuna nagusitu da kobazulo sarreran, Sorginak berriro hitz eztikorrez galdetu dion arte.

-Maitasunaren magian sineste al duzu, Txiu?.

-Ez dakit … -erantzun dio Txiuk haginak altxatuz- Agian nik ezagutzen dudana ez da magia izango, baina … Hain ederra izan zen!... Meki ikusi nuenean mundu berri baten ateak zabaldu zitzaizkidala sentitu nuen bat-batean, galderarik gabeko erantzuna, oraindik ere bizi-bizirik dagoen sentipena … Ez dakit, baina …

Azkarra da Sorgina, baita bihurria ere, aski ongi baitaki Txiuk maitasunaren magia ezagutzen duela, haren jabe dela jaio zenetik. Baina gustora dago karramarro maiteminduaren hitzak entzuten, bihotzak urratutako hitz politt haiek kontakizun ederrak deskribatu bitartean.

…Olatuek itsasgora iragarri bitartean ene maittia besarkatu gabe, maitasun deialdi uneak ahantzita, ezingo nuke aurrerantzean biziraun, hilko nintzateke … Hau ez bazaizu nahikoa iruditzen, Sorgin bertsolaria, banoa etorri naizen leku beretik eta haren bila emango dut bizitza osoa, aurkitu arte, berriro Mekirekin elkartu arte ez bainaiz pakean biziko… Mohik garbi esan zidan eta nik sinetsi nion; horregatik nago hemen: "maitasunarentzat ez da ezinezkoaren aterik eraiki oraindik, Txiu …"

Ederki, Txiu, lagunduko zaitut! –erantzun dio Sorginak, zutitu, buelta eman eta kobazulo barnera joanez- Baina nire laguntza ez da musutruk izango; esango dizudana bete beharko duzu zure helburua lortu nahi baduzu; hau izango da nirekin

edukiko duzun zor bakarra.

-Zure agindutara nago, Sorgin bertsolaria –erantzun dio Txiuk segituan-, esaten didazun guztia beteko dut, atsegin handiz gainera.

-Lehenengo eginkuzuna goiko harizti horretara joatea izango duzu. Bertan urtxintxa bikote bat bizi da, Lisen eta Xerki; zure laguntza behar dute, Txiu –esan dio Sorginak hariztia buruarekin seinalatuz.

-Nire laguntza? –galdetu dio Txiuk harriduraz- Urtxinxa bikote bati nola lagun diezaioke karramarro batek?...

-Hara iristean ulertuko duzu, jakingo duzu zer egin - lasaitu dio Sorginak-. Maitasunaren magian sinetsi, Txiu, besterik gabe.

-Sinesten dut! Sinesten dut! Sinesten dut! –errepikatu dio Txiok pozez.

-Ederki ba!.

Irribartsu hitz egin du Sorginak, Txiuren alaitasunak kutsatuta.

-Zer gehiago egin behar dut, Sorgin bertsolaria, zer gehiago? –galdetu dio Txiuk.

-Gainontzekoa elkar loturik doa; ez horregatik kezkatu, Txiu. Gauza bakarra gogoratu; zure maittiaren besoetara iristea lortzen baduzu eta zuen arimak elkar besarkatzeko adina maite baduzue, begiak ireki, zabaldu bihotza, dastatu unea eta betiko gogoan izan, ez inoiz ahaztu maitasunaren magia ezagutu zenutela behin, haren jabe zaretela betiko.

-Gogoratuko dut –esan du Txiuk.

-Eta... gehiegi eskatzea ez bada –Kattalini begira hitz egin dut Sorginak- Nahitaezkoa ez izan arren : Haizeari. Bizitzari, sormenari poesia bat egingo bazenioke zure maittia besarkatu ahala ... Liluraz entzungo nuke, Txiu maittia ...

Hitz horiekin elkar agurtu dute. Txiuk baietz agindu dio Sorginari, oroituko dela poesiaz.

Axuni emozioz kontatu dio Sorginarekin solastu duen guztia eta denbora galdu gabe abiatu dira urtxintxa bikotea bizi den hariztirantza.

Mohik arrazoia zuen –pentsatzen du Txiuk-, egia da maitasunaren magiarena …

Liluratuta dago Txiu. Mikerekin elkartzeko unea gero eta gertuago ikusten du, oraindik bidea ez asmatu arren.

Hariztirantza iritsi eta erraz aurkitu dute urtxintxen etxea –haritz handi babespean egindako zulotxoa-, aldameneko adaxkan urretxindor baten kantua entzun baitute urrenetik; kantu ederra, garbia goiztirirako opari dotorea.

-Zer egiten duzu hemen, urretxindorra? –galdetu dio Txiuk.

- Goizari abestu, karramarro; poesia bat zor bainion norbaiti.

Erantzun eta aldameneko adaskara salto txiki bat egin du urretxindorrak. Berriro Txiuri begiratu eta hegan aldegin aurretik, urtxintxen etxea hegal batekin seinalatuta esan dio Txiuri:

-Azken aldian triste bizi dira.

Txiuk ez du ezer galdetzeko astirik izan, urretxindorra segituan galdu baita basoaren zuhaitzen artean.

-Triste bizi omen dira!

Urretxindorraren hitzak errepikatu ditu Txiuk, Axuni so.

-Bai, hala esan du urretxindorrak –erantzun dio Axunek.

Beharbada, triste egote horrek zerikusia izango du nire betebeharrarekin, ezta Axun?.

-Agian!.

-Baina nik … Nola?.

Une horretan usalpal bikote bat igaro da haien gainetik hegan egiten. Axunek garraxi bat bota die, baina usapalek ez diote kasurik egin. Bai, ordea, Haien atzetik agertu den eskinoso zaratatsu batek.

-Zuek al zarete Oarsoaldetik etorri direnak? –galdetu die eskinosoak.

-Bai, gu gara –erantzun dio Axunek- Ni Axun naiz eta hau Txiu da.

-Ni Oxki naiz –esan die eskinosoak- eta Oarsoaldean baditut lagunak, aspalditik

ikusi gabeak … Egia esan, gustora joango nintzateke zuekin. Oarsoaldetik etorri zinetela entzun bezain laster etorri naiz zuen bila.

-Aurrera, ba! Zatoz gurekin, Oxki! –esan dio Txiuk segituan.

-Horixe joango naizela! Iufa!

Hau zoriona Oxkirena, aspalditik baitalbil Oarsoaldera joateko asmoz, baina bakardadean bidaiatzea atsegin ez duenez … Azkenean aurkitu ditu bidaiatzeko lagunak.

Berriketan jarraitu eta Txiuk bidaiaren arrazoia kontatu dio Oxkiri, baita Sorginarekin egon eta urtxintxen etxera igorri diola ere, baina momentuz urretxindor batek esan diona besterik ez dakiela, urtxintak azken aldi honetan triste bizi direla, besterik ez.

-Badakit zergaitik bizi diren triste –esan du Oxkik Txiuri entzun dionean.

-Zergaitik? –galdetu dio Txiuk segituan.

-Inguru honetan zuhaitzak agortzen ari direlako, horregaitik bizi dira triste –erantzun dio Oxkik-. Garai batean urtxintxa familia anitz bizi ziren inguru honetan, basoa zabala, oparoa zenean. Urtxintxa batek, eskinoso agureek kontatzen dutenez, lasai zeharka zezakeen Euskal Herria punta batetik bestera lurra ukitu gabe ere, zuahitzaz zuhaitz, adaxkaz adaxka. Egun, berriz… Horregaitik bizi dira triste. Gainera, laster kumeak izango dituzte eta ezingo dute luze iraun….

Oxkik azken hitzak ahoskatu ahala iritsi dira bi urtxintxak intxaur handi batekin.

Harriduraz galdetu du lehenak.

-Zirko iritsi al da gure basora?

-Alajaina! –esan du Axunek- Triste egoteko ez dute, bada, umorea galdu.

Bi urtxintxek, hala ere, ez diote txantxari barrerik egin, triste hitza entzun eta segituan egunerokotasunaz oroitu baitira.

-Ez tristetu esan die Txiuk-, guk lagunduko zaituztegu.

Lisen eta Xerkik harriduraz begiratu diote Txiuri.

-Guztiak Oarsoaldera joango gara –esan die Oxkik-, bertan baso anitz daude.

-Entzuna dugu, bai, lurralde horiek oparoak direla zuhaitzetan, baina ziurtasuna izan gabe ez ginen ausartzen halako bidai luzea egitera –erantzun du Lisenek.

Aspalditik galdua zuten irribarrea agertu da urtxintxen begiradan.

-Ez zara zu izango, bada, xagutxoak zaindu beharreko karramarroa –galdetu dio Xerkik Txiuri.

-Xagutxoa?!... –esan du Txiuk, urtxintxa zertaz ari den jakin gabe- Ez! Ni Txiu naiz, eta hauek Axun eta Oxki dira, baina aipatu duzun xagutxo horren inguruan ez dakit ezerrez.

-Ni Xerki naiz eta hau Lisen da; Oxki ezagutzen dugu aspalditik.

-Bagenekien, Sorginak esanda, herekin egon bainaiz, horregatik gaude hemen, Baina zer da xagutxoa eta karramarroaren kontu hori? –galdetu dio Txiuk Xerkiri.

-Duela bi egun xagutxo bat agertu zen inguru honetatik, gure aspaldiko ezaguna, Mel. Hura ere, zuen moduan, Sorgin bertsolariarekin egon berria zela kontatu zigun, baina bidaia alferrik egin ez ote zuen zalantzarekin aldegin zuen Mel gaixu-ak, Sorgin bertsolariak kostaldera joateko besterik ez baitzion esan, bertan ager-tuko zen karramarro bat zaintzera-edo …

Non? … Nora? … Sorgin bertsolariak nora bidali zuen xagutxoa? …

Urduri-urduri jarri da Txiu.

-Hemendik gertu –etantzun dio Lisenek.

-Beraz ... Ez zara zu, ezta ? .galdetu dio Xerkik.

-Ez, ez naiz ni. Baina agian … Meki izan daiteke; nire maittia ...

Eta urtxintxei gertaera guztia kontatu die Txiuk ; dantzaldia, olatua, bidaia, Sorgin bertsolariarekin solastutakoa, urretxindorraren mezua ... Dena.

-Historio benetan hunkigarria –esan dio Lisenek- Baina zaude lasai, Txiu, guk lagun-duko baitizugu Mel aurkitzen.

-Horixe baietz, Txiu! Zaude lasai! –esan dio segituan Xerkik.

Solasaldia amaitu eta sebiatu dira kostalderantza. Xerki eta Lisen adaxkaz adaxka, zahaitzen arteko bidezidorretik arin-arin. Axun eta Txiu Oxkirekin batera hegan egiten haien atzetik.

Kostaldera iritsi direnean, bertako kaio batzuei galdetu eta segituan jakin dute Mel handik gertu dagoela, belar goxo batzuetan eratzanda, Sorginak esandako lekuan zaindari lanetan.

Kaixo Mel! –esan dio Txiuk.

Harriduraz begiratu dio Melek Txiuri.

-Baina… Nola dakizu Mel naizela?.

Une horretan bi urtxintxak agertu dira Oxki eta Axunekin batera.

-Xerkik eta Lisenek esan da –esan dio Txiuk- Ni Txiu naiz eta bi hauek Axun eta Oxki dira. Sorgin bertsolariarekin egon berria naiz eta …

-Zu ere? … -moztu dio Melek irribarre xume batekin –Eta? … Zer esan dizu?, Maitasunaren magian sinesteko, ezta?

Txiuk ere irribarre egin du Meli erantzun aurretik.

-Horretan nabil; maitasunaren magian sinesten … Egia esan, sinesten badut ere, zure baieztapena izatean lasaiago geratuko naiz, Mel, Lisen eta Xerkik esan baitidate karramarro bat zaintzen zabiltzala Sorgin bertsolariaren eginduz.

Melek segituan ulertu du.

-Gau osoa ilargiari so eman du, negarrez –esan dio Txiuri harkaitz bat begiekin seinalatuz-.

Txiuri begiak dizdiratsu jarri zaizkio.

… Hura hala ikusi eta ni ere tristetu naiz. Berarekin hitz egin eta orduan jakin dut Meki duela izena eta Hondarribiko dantzaldi batean maitemindu ostean gertatu zitzaiona kontatu zidan.

-Bai! Hori da! –moztu dio Txiuk berriro- Meki da!! Meki!! Nire maittia!!

Txiu poz-pozik ikusi eta Mel ere pozik jarri da, baina segituan burua okertu eta

itsasorantza begiratuz negar-malko bat ixuri du, bat-bateko tristeziak harrapatuta.

-Zer gertatzen zaizu, Mel?. –galdetu dio Txiuk.

-Ez da ezer … Ni ere maittiaren bila nabil aspalditik, eta … Horregatik joan nintzen Sorgin betsolariarengana, baina hark hona etortzeko besterik ez zidan esan. Nik esan nion xagu bat nintzela, karramarroei ezingo zintzutedala lagundu, baina … Maitasunaren magian sinetsi, Mel esan zidan badakizu! … Pozik nago, hala ere, zuengatik, Txiu.

Melen kontakizuna entzun eta tristetu dira.

-Non dago, bada, zure maittia, Mel? –galdetu dio Txiuk, jakinminez baino, Meli nolabait laguntzeko itxaropenez.

-Jakingo banu! … erantzu dio Melek, itsasorantza luzatuz begirada- Behin, aspaldi, Bermeoko kaiara joan ginen eguna pasatzera nire maittia eta biok, Baina hura ezin sekula geldirik egon eta egun hartan ere berea egin zuen. Niri itsasontziak ez zaizkit sekula atsegin izan, orain gutxiago, horregatik kanpoko aldean geratu nintzen nire maittia itsasontzi barnera sartu zenean, barnetik nolakoak ziren jakin nahi baitzuen. "Segituan nator, Mel", izan ziren bere azken hitzak; gaur arte!. Bat batean itsasontzia martxan jarri eta hantxe joan zen zeruertzean poliki-poliki galdu zen arte. Egun anitz eman nituen kaia inguruan itsasontzia itzuliko zelakoan; alferrik baina! …Horregatik erabaki nuen Sorgin bertsolariarengana joatea, guztiek esaten baitzidaten norbaitek laguntzekotan Sorgin bertsolariak lagunduko ninduela, maitasunaren magia ezagutzen duela eta halakoak. Baina …

Kontakizuna amaitu eta negarrez hasi da Mel. Une horretan Axun hurbildu zaio eta zera galdetu dio:

-Aizu, Mel, esango al zenidake zue maittiaren izena, mesedez?.

-Bai, nola ez ba! –erantzun dio Melek- Xixi.

-Pixi!!! –garraxi egin du Axunek. Ezagutzen du !!!

-Ez, ez da Pixi ; Xixi da –zuzendu dio Melek.

-Bai, badakit Xixi dela, baina Xagu amerikarrek Pixi esaten omen zioten; zure maittia ezagutzen dut, Mel! –berriro Axunek.

-Amerikarrek, bai! –jarraitu du Axunek- Itsasontzi hartan Ameriketaraino iritsi baitzen!. Gero itsasontziz itsasontzi ibili zen zure Xixi Euskal Herrira itzultzeko irrikitan, joan den astean Hendaiako kaiara iritsi zen arte.

-Hendaian dago nire Xixi? –negar batean galdetu dio Melek.

-Hendaiako kaiara iritsi zen, baina orain Irungo xagutxo batzuekin bizi da baserri zahar batean. Nik egunero ikusten dut, inguru hartakoa bainaiz. Baina zaude lasai, Mel, Xixi ongi baitago, eta nik dakidanez, zurekin elkartzeko gogoz irrikitan, beti ari baita bere maittia gora eta bere maittia behera –esan dio Axunek.

Mel saltoka hasi da, alde batera eta bestera iufaka, biraka, aurreko bi hortzak erkutsiz, inguruko guztiek barre gogoz egin bitartean.

Segituan erabaki dute Mel haiekin batera eramango dutela Oarsoaldera eta Mekiri buruz hasi dira berriro solasean.

Beheko harkaitz hartan agertuko da zure maittia –esan dio Melek.

Txiuri, hala ere, Meki sekula agertuko ez dela iruditzen zaio. Baina gaua sartu eta ilargia agertu denean hortxe argiztatu da Melek esandako harkaitza. Itsasoa bare dago, baina halako batean olatu batek aparrez blaitu du harkaitz ingurua, txuria ilargiaren erruz. Aparra desagertu denean, gauaren oparia bailitzan, karramarro bat agertu da.

-Meki!!! –garraxi egin du Txiuk, urduri-urduri.

-Txiu !!! –erantzun dio Mekik.

Maitasun deialdia nahikoa izan da, ez dute ezer gehiago esan. Presaka hurbildu, elkar besarkatu eta ilargiaren begi-keinua ikusi dutela iruditu zaie karramarro maiteminduei.

-Meki … xuxurlatu dio Txiuk belarrira.

-Txiu … erantzun dio Mekik, xuabe-xuabe, maiteminez ahoskatutako hitzekin.

Horrela, besarkatuta, bihotzetik gora atera zaiona poesia bilakatzen saiatu da Txiu.

Maitasunaren ertze ederrena

ezagutu omen nuen

Zure magiaren indarrean

Sorgin bertsolaria

sinesteko bezain ertze

bezain eder

izan zena

Zurea

Gurea

Guztiona

bilakatu den arte

maitasun

amodio une hau

gaurtik hasi

eta betira arte

iraungo duena gure bihotzetan

maitasunaren ertze ederrenena

bizi baikara

-Adio eta betira arte, Sorgin bertsolaria! … xuxurlatu du Txiuk poesia amaitu duenean.

Une horretan Sorgin bertsolariaren irria entzun du, irri alaia, aratza, irri irria, poesia oihartzun doinuko melodia batekin laztantzen, olatuen azpitik ilargirainoko edertasunean, maitasunaren magia bailitzan.



Jokin Urain Larrañaga
1959
Mendaro

1986. urtean atxilotu eta espetxeratu zuten.

C.P. La Moraleja
Carretera p-120
34.210 Dueñas, Palencia

Joxe Txurtxa

Tren geltokiaren ondoko trastetegitik irten eta herriko kaleetara bidea hartu zuen Joxe Txurtxak. Handitxik ateratzen zen goizero, etxea galdu eta beste aterperik gabe geratu zenetik. Izenaren erdia ere galdu egin zuen etxearekin batera, eta galdutako erdi haren ordezkoa asmatu zuen tren geltokiaren alboko trastetegian aterpe hartu zuenean.

Trena joan eta geltokian geratzen diren guztiak nola edo hala umezurtzak direlako, eta berak aterpea hantxe, hainbeste tren joaten ikusi eta inora gabe geratu zen lekuan hartu zuelako, Trurtxa ezarri zion izena bere buruari, Joxe Truntxa.

Baina Joxe Leon zuen bataio izena; Joxe, aitonaren izena hartu zuelako, eta Leon, aitonarena indartzea komenigarria zelako, aitak Joxe soilik ipini nahi bazion ere.

Joxe bakarrik nola ipiniko diozue ba! –esan zuen amamak haurra jaio zenean-. Joxe Inazio behar luke gutxienez, edo Joxe Frantzisko. Baina Joxe Leon ipintzen badiozue hobe; izenean ere indar apur bat eman behar zaio umeari.

Joxe Leon, beraz. Urteak geroago amamak berak azaldu zion izen laguntzailearen kontua, Leon ipintzearen zergatia, alegia.

-Abereen artean ere ausarta baita lehoia. Handia eta ederra. Eta ibilera dotorea du –azaltzen zion amamak, eta hara eta hona egiten zituen pausu batzuk, lehoiaren ibilera dotorea imitatuz-. Historian lehen ere izan dira abere horren izena hartu duten gizakiak eta errege izatera iritsi ziren haietako batzuk. Izenaren jabe izatera iritsi zirela esan liteke.

-Baina zelakoak dira lehoiak? –galdetu zion behin Joxe Leon txikiak amamari.

-Lehoiak? Katu-jendea dira lehoiak, baina katuki handiak, oso handiak.

Ikaragarriak. Abereen artean errege izateko ipini zituen gure Jainkoak katukiak. Horregatik dira hain ausartak eta dotoreak –eta beste pausu batzuk egin zituen amamak joan-etorrian, katukien ibilera dotorea erakusteko Joxe Leon txikiari.

-Asko gustatzen zaizkizu katuak, ezta? –galdetu zion Joxe Leon txikiak ostera, amamaren pausajeak eragiten zion miresmena ezkutatu ezinik.

-Bai, bai, asko; ni beti izan naiz felinista. Beti katuzale amorratua. Felinista.

Amamaren esanei eta etxeko katuei erreparatuz ikasi zituen Joxe Leon txikiak katu jendearen joerak. Laster ohartu zen jende bitxia direla felinoak, inoren esanei jaramon handirik egin gabe ibiltzen direla, destaina aire batekin begiratuz hara eta hona. Baina oso etxekoiak direla begitantzen zitzaion hala ere; ibilaldiak eta paseoak egiteko ohitura dutela, hori bai, baina supazterra eta etxeko txokoa atsegin dituztela, eta joera hori zentzuzkoa iruditu zitzaion mutikoari.

Etxekoia izateaz gain, txukuna eta ibilera dotorekoa zen etxeko katemea ere. Eta esker onekoa. Bazekien urrumaka egiten bizkarra igurtzitzen bazenion, eta isatsa jasota saihetsa okertuko zuen amamaren oinen inguruan jira-biraka ibiliz; mimoak eskatzen eta ematen zekiena zen katu hura.

Etxeko atea gehienetan zabalik egoten zenez, aurreko zelaian ibili handiak egiten zituen katemeak, sagu edo txoriren bat ehizatu nahian gehienetan. Etxeko leihotik erreparatzen zion askotan Joxe Leon txikiak, amamak lagunduta, lengabista handiekin. Bere ibilia egin ondoren isil bezain dotore itzuliko zen katemea berriro supazterrera.

Egun batez amamak kabia bigun dotorea egin zion katemeari sukaldeko bazter batean, eta Joxe Leon txikiari deitu zion.

Laster jaioko dira katakumeak, ikusiko duzu –esan zion.

Eta bai jaio ere. Otarre txiki bat bete ume egin zuen katemeak, eta Joxe

Leon txikia harrituta geratu zen haiei begira. Hain ziren gozoak katamaren tititik esnea edan nahian hasi zirenean, edo intziri ahulak egiten zituztenean. Nola aspertuko zen ba haiei begira!

Banaka banaka eskuetan hartuz, katamaren abaroan pilatuta zeuden katakumak kontatu zituen Joxe Leonek.

Bat, bi... Bost; bost katakume –esan zion amamari, ugaritasun harekin harrituta.

Bai, ume mordoa egiteko ohitura dute katukiek; bakarka paseatu edo ehizatzea gustoko izan arren, bakardadea ez baitute atsegin. Askoren artean jolas egitea gustatzen zaie –erantzun zion amamak.

Eskuetan hartu eta katakuma haien leuntasuna sentitzea atsegin izaten zuen Joxe Leonek.

Baina katakumak kabiatik irten eta ibilalditxoak egiteko gaitu zirenean hasiko zen Joxe Leon katu jendearen filosofia eta joerak ikasten. Katamaren ondotik hiru-lau pauso urrunduko ziren hasieran katakumak, hatzaparrekin zomorroren bat edo pilotatxoa ikutuko zuten, eta ostera katamaren ondora itzuliko ziren. Hurrengo egunean bost-sei pauso gehiago urrunduko ziren, katamaren begiradapean beti ere, eta euren artean jolasean eta matrakan arituko ziren katakumak, eta ostera katamaren babespera itzultzen zirela ikusten zuen Joxe Leonek.

Euren txokotik irten eta sukaldeko bazter guztiak esploratzera ausartuko ziren hurrengo egun batean katakume haiek, baina zarata edo zalaparta arrotzen bat somatu orduko korrika batean itzuliko ziren guztiak txokora, katamarengana, eta haren anparoan babestuko ziren.

Ikusten? –esaten zion halakoetan amamak Joxe Leoni-. Katuak eta katukiak, sena berezikoak dira. Bai, beti izango naiz felinista,beti –gaineratzen zuen asperen eginez.

- Eta lehoiak ere katukiak al dira?

- Horixe direla katukiak! Katu-jendeetan handi eta ausartenak dira lehoiak, ezeren beldurrik ez dutenak.

- Eta gure katuarenak bezalako joerak eta bizilegeak al dituzte?

- Berdin berdinak.

- Horregatik ipini al zenidaten niri Joxe Leon izena?

- Horrexegatik, bai. Katukien artean ausartenak eta indartsuenak direlako lehoiak, eta izenean ere indarra eman behar zaiolako haurrari. Zuhurtziaren eta dotoreziaren eredu ere badira katukiak, gainera. Ez dira inoren esklabu izatera makurtzen, eta ez dute inor esklabu izatera behartzen. Katukiek ez dute txakurkeriarik egiten. Felinista zergatik naizela uste duzu ba?

Hazten eta bizkortzen zihoazen heinean urrutiago joaten ziren katukumak katumaren ondotik. Egunetik egunera esplorazio luzeagoak egiten zituzten, baina esplorazio haien ostean katamaren abarora itzultzen ziren beti. Aski handitu eta nagusitu zirenean ere, ehizean edo esplorazioan bakarka ibili ondoren katakumak elkarrengana batzen zirela ikusi zuen Joxe Leonek; tribuko senideak ohi duten moduan elkartzen zirela, alegia, eta tajuzko ohitura iritzi zion.

Oinak eta belaunak sendotu eta hara eta hona tipi-tapa tipi-tapa ibiltzeko lain bizkortu zenean, katakumeen eredua jarraitu zuen Joxe Leon txikiak. Lehen largabistekin esploratzen bazuen ingurua etxeko leihotik, orain pauso txikitan joan nahi izaten zuen begiek tentatzen zuten lekuraino.

Etxeko atariraino ausartu zen aurrena, ostera ama edo amamaren gonapera itzultzeko babes bila. Auzoko atariraino joaten saiatuko zen hurrengo, tarteka atzera begiratu eta ama edo amama zain zeuzkala segurtatuz.

Eta auzoko atarirainoko explorazioa egin ostean korrika txikian itzuliko zen ama edo amamaren laztanen bila.

Hurrengoan kaleraino eramango zuen amamak Joxe Leon txikia, eta haren eskutik gogor helduta ibiliko zen inguruari begira. Leku arrotzetan ere babespean sentitzen zen amamak eskua ematen bazion.

Katukien dohainez hitz egiten zion amamak behin eta berriz, eta bere izenak harro sentitzen ikasi zuen. "Joxe Leon, halajaina; katukietan handi eta ausartenaren izena" egiten zuen bere artean.

Amama ez ezik, bera ere felinista sentitzen zen. Zer axola gainerako guztia, katukiek bezalako abaroa ematen bazioten amak eta amamak bere ibilaldi eta esplorazioetatik itzultzen zen bakoitzean! Adoretsu sentiarazten zuen haien babesak. Edozer nahigabe eta samin sendatzeko gaitasun zuten beregan haien laztanek.

Gizakiak tximinotik ez baina katukitik eratorria izan behar zukeela pentsatzera iritsi zen Joxe Leon. Izan ere, tximinotik zetorrenaren patua izan zitekeen ostera tximino izatera itzultzea. Bilakaeraren buruan ostera tximu bihurtzea, alegia. Eta, halako bilakaera izatekotan gizakiaren zoria, ez al zen dotoreagoa katuki bilakatzea?

Halaxe handitu zen Joxe Leon, halakotxe burutazioak eta gero eta esplorazio luzeagoak eginez. Edozein lekutara joateko gai sentitu zen azkenean, ezeren beldurrik gabe, itzultzean ama eta amamaren babesa eta laztanak zain zeuzkala jakinik.

Baina egun batean etxea, ama eta amama, izenaren erdia eta haien guztien abaroa galdu zituen Joxe Leonek, ordurako gizon egina zegoen arren.

Nola gertatu zen hori? Ez dakigu nola gertatu zen. Ez daukagu arrastorik ere. Han eta hemen batari eta besteari galdezka ibili da kontalari hau, eta ezin izan du aurkitu gertaera horren aztarnarik. Eta gure protagonistak

berak ere ez zekien, jakina. Nola galdu zituen jakin izan balu, asmatuko baitzukeen nola aurkitu.

Ez zekien nola galdu zuen bat-batean hura guztia.

Horrelaxe gertatzen dira batzuetan kontakizunetako gorabeherak, nola ez dakigula.

Kontua da herri handi bateko tren geltokian zegoela bere etxea, ama, amama eta izenaren erdia galdu zituela ohartu zenean. Mingarria egin zitzaion oharmen hau.

Trenek ekarri edo eramanda jende guztia desagertu zenean, geltokian bera bakar-bakarrik, ezer eta inor gabe zegoela konturatu zen, eta umezurtz sentitu zen. Orduan eman zion izen berria bere buruari, galdutako erdiaren lekuan Txurtxa ipiniz, eta Joxe Txurtxa zela esan zien herri hartan ezagutu zituenei.

Geltokiaren alboko trastetegian hartu zuen abaro eta ostatu gau hartan, eta hurrengo goizean handik irten eta herriko kaleetara abiatu zen, geroztik egunero egunero egingo zuen moduan.

Galduen Ostatura iritsi zen lehen egun hartan bere ibilian, eta historian zehar euren etxe eta izenak galdu zituztenekin topo egin zuen han.

Mostradorean kafea hartu, eta hutsik zegoen mahaitxo batean eseri zen. Kafeari zurrut egin, jakaren sakeletik purutxo kaxa atera, haietatik bat hartu, eta iziotu egin zuen Joxe Txurtxak.

"Txarra izan behar du erretzeak" egin zuen berekiko, kealdi oparoa botaz. "Txarra izango da" jarraitu zuen. "Seguru txarra dela erretzea, baina bakardadea ere txarra da. Lagunarte handiegia ere ez da ona, jakina. Asko jatea txarra da, eta gutxi jatea ere bai. Asko edanez gero ito zaitezke, eta edaten ez baduzu ere ito. Guztia da txarra eta guztiak hiltzen ahal gaitu. Hiltzen joatea da bizitza, baina hiltzeko modurik txarrena

bakardadean hiltzea izango da. Hobe purutxoa erreaz hiltzea, bakardadeak jota hiltzea baino. Bai, hobe", eta kafe kikara hustu ondoren beste takada bat eman zion purutxoari, bere burutazioak sinatuz bezala.

Galduen Ostatuko bezeroekin harremanak egin ahala, haietako batzuekin berriketaldiak egiten hasi zen. Historiako gertaera handiez ere aritzen ziren tarteka, eta Troiako historia aipatu zuten behin.

- Baina Troiako hura, zaldia ote zen, gero? –galdegin zuen Joxe Txurtxak.

- Zer diozu? Astoa zenik, behintzat, ez dut egundo entzun –erantzun zion Asmodeok, Galduen Ostatuko bezerorik zaharrenetakoak.

- Ez, astoa ez zen izango –tartekatu zen Lukario-; astoek ez dute gerretan parte hartzen. Jende baketsua dira astoak.

- Kastoak? –galdetu zion Xeberok, betiko legez bere gorreriari etekina atera asmoz.

- Ez, astoak ez dira kastoak –ostera Lukariok.

- Troiako hura behorra zelakoan nago, zaldiak jaso bazuen ere ospea –ekin zion berriro Joxe Txurtxak.

Tira, tira; gerra handienen izena zapuzto behar ote duzu? –berotu zitzaion Asmodeo-. Zergatik diozu hori?

Asmodeori erantzunez bere usteen zergatia azaltzera zihoan Joxe Txurtxa, baina une horretan Luxio sartu zen Galduen Ostatura zalaparta batean, eta, poltsikoan zeraman txanpon mordoa mostradore gainean pilatuz, guztientzat hamaiketakoa eskatu zion zerbitzariari.

Fede handiko gizona zen Luxio. Gutxienez astean bitan elizara joan eta apaizari lagundu nahi izaten zion, eliztarren borondatea biltzeko poltsa pasatuz, besteak beste. Elizara bildutakoen artean poltsa pasatzen zue-

nean, han batutako txanponak disimuluan bere poltsikora aldatu, eta poltsa hutsa uzten zion apaizari.

Galduen Ostatura joaten zen meza ondoren.

-Beharrean denari beti ematen dio zerbait gure Jaunak –esaten zuen Luxiok, eta besteek arrazoi emango zioten hamaiketakoa egiten zuten bitartean.

Baina lagunarte hark ez zuen guztiz asetzen Joxe Txurtxa; ez zion gozatzen desanparoaren mikatza.

Ilunabarretan tren geltokira itzultzen zenean, tren guztiak joan eta haiek eraman edo ekarritako jendea desagertzen zenean, geltokian bera bakarrik geratzen zenean, umezurtz sentitzen zen Joxe Txurtxa.

Trenen joan-etorriari begira egoten zen batzuetan geltokian, haietako azkena urrutian desagertu arte, eta orduan, bakardadeak beste guztia lausotzen zionean, geltokiaren ondoko trastetegira erretiratzen zen gaua igarotzera.

Hurrengo egunetan herriko kaleetan barrena ibiliko zen, Galduen Ostatuan emango zituen ordu luzeak, berriketan arituko zen... Eta ilunabarrean tren geltokira ostera.

Denboraren lanbroan galdua zitzaion ibilera haren hasierako aztarna. Behin baino gehiagotan izan zuen tentazio izpia, geltokian keratxoa egin ondoren auskalo nora zihoazen tren haietakoren batean sartu eta joateko. Bagoiko atera hurbiltzeraino iritsi zen inoiz bere ausardia. Baina ez zekien nora joan nahi zuen, eta nora joan nahi duen ez dakiena ez da inora abiatzen, eta aitzakia bila aritzen da beti leku berean geratzeko.

- Ausarta izan behar nuke, baina koldarra naiz –esaten zion Joxe

Txurtxak bere buruari, gaua igarotzeko trastetegira zokoratzen zenean. Ez zen ausartzen, gainera, bere koldarkeria hura Galduen Ostatuko lagunei aitortzen, eta bere baitako hausnarketen ondorioekin etsita lokartzen zen azkenean.

Neguko gau batean, ohi ez bezalako hausnarketa luzean joan zitzaizkion goizaldera arteko orduak tren geltokiaren ondoko trastetegian, kartoi eta erropa piltzarren artean bilduta, oinak izotza bezain hotz.

Oinak epeldu ahala loak hartzen zuela sentitu zuen azkenean, eta ordura artean egindako burutazio haiek guztiak ahaztu egin zitzaizkion, eta lastima da orain hemen ezin kontatu izatea. Oinak hotz ditugun bitartean egiten diren burutazioak gauezko tximeleta urdinak bezalakoak dira izan ere, egunez nekez ikusten direnak, alegia. Eta ikusten badira, lo egoten dira tximeleta urdinak, eta ezinezkoa da asmatzea euren ametsean zer pentsatzen duten.

Loak ametsa ekarri zion gau hartan Joxe Txurtxari.

Lorazain zahar bat ikusi zuen ametsean. Ezaguna begitandu zitzaion lore artean hemen kimatu eta hor ikutu ari zen emakume xaharra, eta bere ametsaren leihotik begira geratu zen jakinminez.

Halako batean loreen artetik burua jaso zuen emakume xaharrak, eta Joxe Txurtxari begiratu zion. Une bat besterik ez zen izan, baina lore artean zebilen emakume xaharraren begiradan keinuren bat somatu uste izan zuen hala ere; begi-klixkada bat beharbada.

Gero itzuli egin zen emakumea, Joxe Txurtxari bizkarra emanez, eta haruntzago zegoen etxetxora bideratu zen eskuan lore sorta bat zuela. Etxeko atarian etzanda zegoen lehoi handi bati buruan laztanak egin, eta atetik barrura ezkutatu zen emakume xaharra.

Lorezainak ateari eman zion danbatekoak esnatu zuen Joxe Txurtxa, eta esnatzean berriro ikusi uste izan zuen atariko lehoia aharrausi handia egiten.

Orduan jauzi batean jaiki zen Joxe Txurtxa. Kartoi eta estalki piltzarren artetik, eta kanpora irten zen trastetegitik. Han, bere aurrean, trena txistuka ari zen eta abiatzera zihoala ikusi zuen. Herrigune aldera egunero hartzen zuen bideari begiratu zion, eta abiatzea zihoan trenari ostera.

Trenera hurbiltzen hasi zen, pausoa bizkortuz, eta begira zegokeen edonork esango zukeen ihes egingo ziola trenak gizon zarpaildu hari.

Baina ez; ez zion ihes egin. Trena luzea baitzen, eta Joxe Txurtxaren pausoak gero eta bizkorragoak. Azken aurreko bagoira igo zen, eskulekuei gogor helduz.

Konturalari honek ez daki norakoa zen tren hura, edo Joxe Txurtxa nora iritsi zen. Baina joan zela, gauza segurua da. Inork nonbaiten ikus baleza, edo bere berririk baleki, kontatu behar liguke.

La Moralejan, 2004ko uztailean.

Aritz Sáez Insausti
1980
Donostia

2002 urtean atxilotu eta espetxeratu zuten.

C.P. Madrid IV (Navalcarnero)
Carretera nº5, km. 28
28.600 Navalcarnero (Madrid)

1
gazterik gabeko gunea
gerorik gabeko unea
gunerik gabeko herria
unerik gabeko iraultza
...oraina iraultzen
geroa eraikitzen

2
inkomunikazioaren isiltasuna
islatzeko unean,
itsasora boteaz
arrantzarakosarea,
abiatu genuen sendo
iraultza gaztea.
Berriak, hezkuntza, sexua...
da gure gunea,
sarea unean gaztetuz
dagokiguna eginez geurea
komunikazioan pausoka
GAZTESAREA AURRERA!

(gaztesarea.net-etik hartutako poemak)

German Urizar de Paz
1971
Bilbo

1991. urtean atxilotu eta espetxeratu zuten

P.P. El Acebuche
Apdo. 221
Carretera de los Ubedas, km. 2.5
04.130 El Alquián (Almería)

Historia de esta carta

Andaba sobre la mesa, a la luz del flexo, el bolígrafo tumbado junto a un folio, cuando decidió levantarse a pasear, y fue así como la tinta besó al papel y de ese sentido beso nacieron las letras.

Desde entonces andan las letras jugueteando dentro de los márgenes de las hojas, y entre saltos y risas un buen día se dieron la mano formando palabras, que a su vez se unieron formando frases para así contar historias...

Unas veces, las letras llevan mensajes de esperanza que saltan muros y derriten gruesos barrotes...

Otras, sus ecos cruzan montes y mares, viajando hasta lejanos pueblos para acercar distancias y abrigar nostalgias...

También hay días, en los que las palabras mas rebeldes toman su lugar, y cuentan historias que nos hablan de lucha, futuro y dignidad...

Y noches de blanca luna, en las que nos hablan con el corazón, escribiendo bellos poemas de amor...

Y así, desde aquel primer día, hoy como ayer, mi mano abraza al bolígrafo para que la tinta bese al papel, y nazcan letras que dándose la mano forman palabras, que se unen formando frases, y se echan a dormir dentro de un sobre, para que al soñar vuelen, y sus ecos lleguen hasta ti...

SIN FIN

-maitasunez-


EUSKAL PRESOAK
EUSKAL HERRIRA

Gorri kolorezko galdera I
(Bihotza eta iraultzaren kolorea)

Sarritan, igartzen da gure hitzek
ahalmenik ez dutela.
Gure pentsamendu sakona
azaltzeko
hutsalak direla.
Baina, lokutorio zikin baten
espazio itogarrian,
zelan adierazi bihotzean
ditugun mila tolesturak...?

-maitasunez-

Dora

En la parte baja del barrio chino, junto a una de las pocas farolas allí sembradas, por las noches Dora repartía ternuras, caricias y placeres a cambio de unas monedas.

Ella, no siempre había sido una puta, en otras vidas fue niña abandonada, novia engañada, mujer maltratada, madre olvidada, y de nuevo abandonada...

El destino no le repartió vidas fáciles. Pese a ello, Dora, era capaz ella sola, de alegrar las bulliciosas calles del barrio chino con su dulce movimiento de caderas al andar, e iluminar con su eterna sonrisa hasta las noches más oscuras...

La vieja farola junto a la que trabajaba, era para ella como el faro que desde puerto guía a los barcos en alta mar; mil noches había llorado y reído bajo su calor, y entre cliente y cliente, le había contado miserias y sueños ahogados en alcohol...

Será por todo esto que cuentan que lloraron las nubes, y que hasta la vieja farola dejó de alumbar la calle, la misma noche en la que "El Toni", un macarra de poca monta, apagó para siempre la sonrisa de Dora de cuatro certeras puñaladas, y la noche se hizo más noche desde entonces, en las calles del barrio donde naufraga el deseo que le hace quiebros a la vida, al salir la luna...

SIN FIN
-maitasunez-

Joseba Garmendia Albarracín
1968
Urretxu

2002. urtean atxilotu eta espetxeratu zuten

C.P. Madird VI
Carretera p-120
34.210 Dueñas, Palencia

1
"Eguzkia esne-ibaian murgildu eta
azaldu ezin daitezkeen gogoeta
misteriotsuenak lurrintzen
hasten direnean
zeinahi desira magikoak
ahalbidetzen dituen behe lainoak
arrotzengatik aterpetzen gaituenez
kriseilua piztu genezake
sagar-oihaneko adarrik adar
jauzika bidaiatzeko
eskuak loturik
Aldapeko txoriaren
Xiruliruliaren atzetik."

2
"Erraidan arren:
gau honetan haut ene.
Ile nahasi,
ardo beltz emankor,
ipurmasail
dardarizo.
Hatz, beso, izter, zango
mahasti gorrail antzo
gerri gorian korapilo.

Erraidak arren:
gau honetan haut ene.
Oskorritik aitzina
patuaren garrak
mila agorril
iraunik ere
argi-aizkorriko
orraila dik bere."

3
"Nahiko nuke irakatsi ahal izatea
espazio mugatuetan askatasuna
barrurantz barreiatzen dela,
denbora pausatuaren gain
laguntasun iraunkorrenak
maitasun sakonenak
irabazi ahal direla.

Nahiko nuke irakatsi ahal izatea
errudun-errugabe sailkapena
gure kasuan esanahi urrikoa dela,
herri baten biziraupena
borrokatzean izaera, sena
zentzuaz betetzeko aukera
sendotzeko bidea irekitzen zaigula.

Nahiko nuke irakatsi ahal izatea
bizitzan inportanteak direnak
ziega bateko neurrian sartzen direla,
daukagunaz baino garenaz jabetzea
zoriontsu izateko abantaila
-gutxiren esku dagoena-
mugarri ordainezina dela.

Nahiko nuke irakatsi ahal izatea
ezinezkoa gertatzen zaidana,
irakastezinak diren arabera
norberak soilik ikasgarriak baitira."

4
"Teilatuetan gaindi
alanbraden gaindi
soroen gaindi
olibondo lerratuetan
izkutuzko hasperenak
miazkatzen dizkigute
katuek.

Piper erregorriari
azala kendu bezela
zalantzati
haseran emeki
larruki ertza
finki helduta
zirt batean tiraka
kalekiko desloturan
eranzten gara.

Soroen gaindi
alanbraden gaindi
teilatuen gaindi
azaleratu
elur usaina
nola ukabilan
iraunarazi.

Gure bizimaniari
beste mugarri
erreferentzialagoen
ardatzak egokituz,
sakon hemisferioan,
hego zein iparrekoan
erabili otana balioaz
gabetu zitzaigunetik,
gure aurretikoek
ibilitakoaren oinatzen
barrena goaz
sakon hemisferioan.

Teilatuen gaindiz
Alanbraden gaindiz
soroen gaindiz
haratago ufatu
nahi ez ditugun
izkutuzko hasperenak
olibondo lerratuetan
miazkatzen dizkigute
katuek."

Guayasamin-en koadroa

Ez zitzaiokeen bururatuko
bulegozabal moketatu hartan
handinahi zuriaren garaikurra
izatea zela bere benazko halabeharra.

Ez zitzaiokeen bururatuko,
santeroen erretaula gisa, apainduraz
bete bulego baldar ordenatu hartan
zurikeria hantustearen garaikurra
bilakatzea izango zela bere
begiespen esekizko existentzian
isilean gordetako madarikazioa.

Guayasaminen koadroari
halakorik ez zitzaion bururatu
kaobazko mahai haren aurrean
eseritako aurpegiak begiztatu
ahal izan zituenean baizik.

Guayasaminen koadroaren
azal aratzaren gainean,
Chimborazoren magaleko
hareatza hotz eta idorrean
mokor eta lastozko etxola alboan
ehortziriko alpakazainaren
kontakizunak entzun bezala
erretratatu zituen lokatzak.

Hogeita bost belaunaldidun gau luzean
amalurra gaubeilatu zutenen,
inbaditzaileen hilkortasunaz
jabetu orduko askatasun
zaintsuagatik oldartu ziren
kitxua suhar haien deiadarra
jasotzen zuten kontakizunak
entzun bezala, urratuki,
erretratatu zizkiolako lokatzak.

Guayasaminen koadroari,
ozeanoen bestaldean,
aurpegi itxuragabetu haietan,
Garzon epailearen larderiaren
ezaxolakeria jasotzen zuten
aurpegi torturatu haietan
islatuta sentitzen zela
konturatzen hasi ez balitz,
ez zitzaiokeen bururatuko,
hantuste zuriaren garaikurra,
garaikurren artean, ez zela besterik,
bulego zabal moketatuko
horma batean zintzilikatua.

Idiek oroipenetatik tiratzen dute

Idiek probalekutik at, akuiluaren ziztada odoleztatuak
orbaintzen zaizkienean, oroipenetati tiratzen dute
lokatzetan altzairu zorroztuak generabiltzan inketan
kanpobatallako sasitzan estali txaboletan
aragi joko iniziaziokoak ahurrez topatzen
fantasiazko eremuek erakartzen gintuzten
irimoko gurutzeak noiz bere ardatzaren inguruan bira emango
kataloxarekin etxeko leihotik begira ez ginen ausartzen gerturatzera
zabaldu zirelako lizarriturrin amabirginak eta lehoiak
agerraldietaz ari ziren esamesak
andereñoaren adierazpenak mozten zituzten gure algarek urrunean
pasiotar batzuk sotana gerrian altxata gerezi lapurren atzetik
deiadarka batean zuhaixka adarretatik uxatzen begiztatu orduko
ez zen halakorik ordea udaberri partean gabaz futbol zelaian
harrapatzen gintuztenean lasterketatan biluzik eta hola eta halaxe
igaro genuen karrozak birrintzetik karrozak eraikitzera doan bitartea.

bikote baten kanbibentziazko lehen hilabetea adina
buruhauste liskartsuen su-proba bilakatzen zen lagunartearentzat
gainditu gero trink txirikordaturiko loturadun gihar
sozialetan metamorfizatzen zuen kuadrila
bizitza osorako batuz edo zehatz esanda
ezkontzaren sakramentuak sakabanatuko gintuen arte
ez zen ez erraza karrozak egitea
oholak iltzeak erremintak pladurra eta eskaiola aurkitu beharrak
delinkuentzi txikiaren esperientzi kitzigarria eraman gintuen
zerrategi eta etxegintza obretan dirulaguntzak askibetetzen ez zuena lortzera
gaurkotasunez kotxea azpikeriaz furgoneta prekaritateaz eskarga
autoritate txapelgorri etorr berriek altoa eman eta delituaren mikatza erakutsi arte
azaldu behar izan zitzaien uda l eko hirigintza batzordeak eraikuntza planak
helburu aitorrezin horri begira proiektatzen zituela eta are
obren hasiera karrozenarekin sinkronizatzen zuela aparejo barietate zabalaga

izan genezan
sorkuntzaren mesederako, igeltso mendiak egurra egitura erraldoiak akerbeltz
eta mitologiako pertsonai ugari hazten ziren tailer hustuan
figura poliformen baratza mikologikoa hain iradokitzailea
teilape horetan artistikoaz gain ikerketa historiko antropologikoa egin zitekeela
egozten diguten esentzialismoaren sinplekeria bere kabuz erortzen utziko lukeena
izaera propioa edukitzekotan erretratatu nahi denaren emaitzan ez ezik
asmazioa kuadro tridimentsionalean haragitzen duten mailukada eta pintzelkadetan
aldamio uztartuen gain esku anitzek ipinitako zertzeladetan egon daiteke gordeta
urbanizazioaren atomizazio anonimotzailearen aurkako gotorlekuetako bat
hain ahalmentsu hain bizigarri lubakirik ez duela behar terrenoa irabazteko
ez bada noski afari-merienda dotore bat zerrautsetan esku zikin eta zapirik gabe
costa vascako otorduek ez liokete itzalik egingo berorrek agian ez du sinetsiko
baina egon badaude larrua jotzeko koltxoi berezirik behar ez dutenik bagaude.

ea maitia herrira noa gastronomi lehiaketa dago eta, zezen-barrabilak saltsan
kozinatzera emakumezkoak pilotalekuko suen inguruan agertzen hasi zirenetik ez du
behin ere hutsik egin, ez nazazu esna itxaron izozgailuan kroketak dituzu
generazio erdi beranduago irekitan dagoen baratxuriak bilduko ditu atzera
etxebizitzak ardurak utziko dituzte akaso ezkontide eta seme-alabak ere bihar
etzi etzidamu zahartzaroraino dirauten lagunak egitea erraz suertatzen
zitzaieneko garaikideekin egoteko
eltzeetan azenario piper tipula eta banitate apur bat borboka ardo txuriaz atondu
usain sofistikatuak zeharkatzen ditu segapotoko melodiak, bestaldean dagoen presoak ongi daki
egokiera hori dela bost minututan zenbat lagunekin mintzatu ahal errekorra hausteko egokiena
ni ondo bai nik ere sagardoa izkutatuta daukat, gran erreserba, bost egun barru
isolamendu zigorra amaitutakoan kideekin batera ohorezkoa harrapatuko dugun mozkorra

berarentzat gordeko du ondoko ziegan VIHak jota dagoen preso mehar batek zangoak
koltxoiaren gainean izara eta mantatan bildu dituela eta bere inpotentziari su eman
ondo pasa eta gaiztoak izan, gure herrian doluak bezainbeste errespetatzen dira festak.
goizeko seiretan ilara dardarati bat marrazten da txokolate beroaren zain
santabarbarako ermitaren altzoan automobilaren baleztak ikuskatzen egon diren amoranteak
eta dantza batean diharduten kulunkariak
betizuetarako indarberritzen presente ausente bezain
inork ez du galdetuko zerk bultzatu zaitu parranda eten
eta bikorrak saiestearren egurrezko koilaraz eragitera
inork ez du galdetuko zergatik bolondresa den oholtzen muntai
eta desmuntai lanetan erraldoiak zamatzean abesbatzen armonian
dantzari bertsolari trikitilari txistulari taldeen osaketan
zergatik da taulatu gainean aurkezle zergatik da zerbitzari
gazteleku eta txoznetako txandetan zergatik aztoratzen gaituzte txalapartaren erotikaz
orkestraren zuzendaritzaz jabetu ahal izateko zein edabe
edaten du jaiei amaiera emateaz arduratzen den zeremoni-maisuak zein
be l arrez
apailatzen du tabernaz taberna jendetza abesten eta dantzan txistu eta danbolin soilaz jartzeko
herritik urrun preso daudenak topa egitera ekar ditzan erratza sorta konjuratzeko
etxez etxe banatzen den egitarauaren erdia lutu txuriaz jantziko litzateke beraiek gabe
berorrek ez du sinisten berorre taloitegian du konfidantza egin beza bada aproba estilografikaz
markatu bitza irabazi asmorik gabe esistentziaren programazio solidario beze l a
abiatzen diren ekitaldiak norberak bere herriko jaiak ditu gogokoen bere
herriko jaiak baino norberaren jaiak direnez.

oinetakoak bezainbeste kamiseta du zipriztindua ez ditu hamazortzi urte

izango
gau gogoangarriaren arrastoa aterpetzen dio aurpegiko irriño ezabaezinak
dultzaineroek oilarrei atseden eman orduko lurretik bost zentimetro gora doa
etxerako bidean ume andana korrikan grutzatu du buruhaundiengandik ihesean
esperantza bihurri batek atzetik tentuz hurbilduta jazarleari ostikatu dio orkatila
ume hauek puxika haizebete batuzk ez beste izan dezatela erasotzaile
hontzaren desioa
sakon eta laburra loaldia ez zaio axola, jai osteko kontaketan are lo ordu
gutxiago are harroago
amak bazkaltzera esnarazten duen arte, aitonak abegitsu ze motel basokada bat
ardo
oharu al zarete goizean baserritarrez jantzita zebiltzan alkate eta alkateordea
mezetara sartzeko jaka eta armani atorraz edertu direla ordubetez
beranduago berriro baserritarrez agertzeko alproja gauek naturalak batere
amonari egunak emandakoaren gainberatua uzteko agintzen dio karrozen
desfilearen oihartzunak
kaleetan zehar idiek okasio berezietarako uztarri artiletsuaz apainduta
izan ginenaren garenaren eta izan gogo dugunaren almanaka garraiatzen dute
mantso mantso denborak etorkizunerako errak sedimentatzen dituen
abiaduran.

Aranjuez, 2004ko Irailean

Joxe Blanco Gómez
1967
Laudio

2001. urtean atxilotu eta espetxeratu zuten

C.P. Bonxe (Lugo)
27.153 Bonxe (Lugo)

Marine eta Gizotsoa

Gorbeian, Orozkoko mendietan badago Araneko Harri izeneko leku bat. Oderiaga eta Nafakorta mendien arteko lepoan hilarri bat dago zera diñona: "Araneko Harri. Otsoak neskatoa jan egin zuen". Izan ere, Orozko aldean bada kondaira xelebre eta bitxia, Gorbeiako mendi-lepoari izena ematen diona, duela urte asko, bertatik pasatzen zen neskatoa otsoak jan omen zuenekoa. Holaxe diñosku kondairak, baina zer da benetan gertatu zena?

Zubiaurren, Orozkoko auzo nagusiaren gain-gainean, Arnaurri ibaia pasa eta mendi magalean eskeigita, Arane baserria zegoen, eta bertan Mariñe neskato ausarta eta polit askoa bizi zen. Txikitan, soroetan gora ta behera ematen zituen egunak, olgetan eta etxeko beharretan laguntzen. Urteak joan urteak etorri, neskatila liraina bihurtu zen, jolasak albo batera utzi eta beharrean hasteko garaia iritsi zitzaion. Etxean neba-ahizpa asko zirenez, baten batek etxetik alde egin beharko zuen lan bila, familiari diruz laguntzeko, eta Mariñe neba-ahizparik nagusiena izanik, berari suertatu zitzaion.

Amak komentatua zion Zuia aldean Jauntxoak bizi zirela, eta etxe handi eta jauregietan beti neskame baten falta izaten zuten. Beraz, hara abiatu zen gure Mariñe, Zuia aldera, Murgiako jauntxo baten dorretxera, non neska zintzoa zela oharturik, jauregiko lanetan laguntzaile hartu zuten.

Garai hartan, Orozko eta Zuia artean ez zegoen errepiderik gaur bezala eta menditik, Gorbeian zehar zihoan gurdibidetik joaten zen. Gabonak iritsi zirela, Jauntxoak etxera joateko baimena eman zion Mariñeri, egun batzuk pasa. Urte haietan, otsoak oraindik baziren Gorbeian, eta hori zela eta, mendiko gurdibidetatik beti lagunduta joatea gomendatzen zen, are gehiago neguko elurteetan, otsoak goseak amorratzen egoten baitziren. Hala ere, gure Mariñek, etxera bueltatzeko irrikitan, berehala hartu zuen etxeko bidea, bakar-bakarrik.

Burbonako basoa atzean utzi eta Oderiagako maldetatik zihoala, gauza ikaragarria gertatu zitzaion; ez zuen otsoekin topo egin, ez, baizik eta izaki beldurgarriago batekin. Aspaldi, Aititeri entzunda zizkion izaki hauei buruzko

esamesak: Gorbeiako kobazuloetan bizi omen ziren izaki beldurgarri batzuk, gizotsoak; baina ez zegoen beren erasoen berri zuzenik eta azken urteotan gizotsoei buruzko aipamenik ez zela entzuten.

Esan bezala, Gizotso handikote eta basatia agertu zitzaion Mariñeri eta neskatila ikaratu egin zen, baita lasterkan hasteko gogo bizia sortu ere. Baina Gizotsoak, itxura beldurgarria izan arren, ez zuen neskatilari kalte egiteko inolako asmorik; gizotsoak, berez, oso maitagarriak baitira: goi-mendian ez dute norekin hitz egiterik, bakar-bakarrik ematen dute bizitza eta norbait ikusten dutenean, ziztuan abiatzen dira eurengana, laguntza eta berriketa eske.

Holan gertatu zen orduan ere eta Mariñeren izua desagertzen joan zen Gizotsoaren asmo zintzoak agertzearekin batera. Gizotsoak, irribartsu, gaztainak eskaini zizkion, eta Mariñek onartu. Gizotsoak keinuka hasi zitzaion, zeozer adierazi nahian edo; Mariñek ulertu eta keinuen bidez ere erantzuten saiatzen zen.

Horrela, Mariñek gizotsoen bizimodu bakarti eta aspergarriaren berri izan zuen, baita itxura beldurgarri haren atzean izaki eskuzabal eta xarmangarria izkutatzen zela konturatu ere. Orduak joan zitzaizkien Oderiaga eta Nafakortako mendi lepoko harri handi baten gainean, keinuen bidezko berriketa ederrean.

Gizotsoak bere kobazuloa erakustera eraman zuen Mariñe; pozez zoratzen ari zen, Gizotsoa benetan begikoa zuelako. Euren arteko harremana estutzearekin batera, Mariñe maitemintzen ari zen Gizotsoarekin; etxeko bizimodua ahaztu eta berarekin, bere Gorbeiako kobazuloan bizitzen geratzea erabaki zuen Mariñek.

Beraz, kondairak eta Araneko Harriak kontrakoak esan arren, Mariñe, Araneko neskatila, ez zuten otsoek jan, baizik eta Gizotso ezagutu, berarekin maitemindu, Andraotso bihurtu eta betirako elkarrekin bizi ziren, zoriontsu. Geroztik, Gorbeia aldetik, otsoenak ez diren ulu alaiak entzuten omen dira Orozkoko haranean.

Ziega hutsari begira
(Joxe E.-i, nire tokaiori)

Gaztetan espetxearen gorria
ezagutzeko zori txarra.
Gaztetan euskal borrokalari presoekin
elkarbizitzeko zori ona.
Tartean, Joxe,
beste bihotz handi bat,
herri honek eman duen
giza altxor ugarietakoa.
Borrokaren latza ...duinaren ederra.
Urte mordoxka pasa da,
baina gerrak bere hortan,
atzera ere espetxean.
Urruneko presondegia,
bakarka moduluan,
lehenengo graduan,
hogei ordu txaboloan,
hau serioa da!
Eta bortxatzaileak patioan.
Afalostean aurreko moduluko leiho batetik
ahots ezagun bat euskaraz ari da,
"ze, ez nauzu ezagutzen ala??"
La oxtia, Joxe da!
hau lotsa,
hogei urte giltzapean
eta ze oxtia egin dugu guk urte guzti hauetan?
Hogei urte giltzapean,
hamar Lugoko putzu zikin honetan,
bakarka moduluan,
lehenengo graduan,
hogei ordu txaboloan,
zelan da posible zutik mantentzea?
buruari tinko eustea?

hori eredua!
Etsaia galdua da,
Joxek erakutsi digu
irabaztea posible dela.
Goizean goiz bere ahotsa leiho joka:
"Joxe, banoa!"
Mendekua azkenik amaitu da,
aspaldi zenuen garaia,
gora zu eta zu lakoak!
Amorratuta dabiz txakurrak:
"euskaldun hauekin ezin da"
azaldu ezinezko poztasuna,
hutsa, eta era berean, betea,
nere bihotz puska bat ere libre da,
sentimenduak nahasian,
harrotasuna;
ez dakit negarka ala oihuka hastea,
zure txaboloko leihora behin eta berriz begira.
baina ez zaitut berriro ikusi gura
Piriniotan ez bada,
amets gaizto luzeegi hau
lehenbailehen ahantz dezagun esperantzaz.
Gauean irratian:
Joxe kalean da!
Euskal Herria gaur
askeago eta ederragoa da!
(eta ostean, kartzelariak galdetu zuen:
"Eta horrek guztiak merezi al du?"
Hori zure arazoa da,
zeure buruari egiozu galdera
gu zuen eskutan preso bai
baina libre gara.
Zu, aldiz, hemen ustelduko zara)

Julen Larrinaga Martín
1967
Bilbo

1992. eta 2001. urtean atxilotu eta espetxeratu zuten

C.P. Madrid II
Carretera de Meco, km. 5
28.800 Alcalá de Henares, Madrid

La Fortaleza Imperial

La Fortaleza (que algunos llaman Prisión) ha sido construida como una obra perfecta de la ingeniería y de la audacia matemática: todas las galerías, en número formidable, parecen converger de forma rigurosa hacia un único punto (que nadie conoce pero que todos suponen central) y los extraordinarios muros, en lugar de reducir y de acotar el espacio, lo multiplican prodigiosamente en patios, contrapatios, estancias, corredores y simetrías fabulosas. Atravesado un muro hay que recorrer unos mil metros hasta encontrar el siguiente. Este nuevo muro también se puede atravesar, pero ya a uno no lo abandona la incertidumbre de si no ha vuelto a cruzar el primero en sentido contrario. Este tipo de hechos, que se repiten con asombrosa frecuencia en todos los ámbitos, muestran sin ningún género de duda que toda la construcción responde a un plan determinado y que nada ha sido dejado al azar. El problema, entonces, es determinar verosímilmente quiénes y por qué dieron inicio a esta construcción.

Diversos historiadores han escrito que en la construcción de la Fortaleza participó inicialmente un pequeño grupo de obreros y que ya luego, con la marea de los años, la cifra se expandió hasta alcanzar la cantidad de cientos de miles. "En todo punto – y aquí la cita es textual – se superaron en magnitud, asombro y mano de obra los trabajos de las pirámides de los antiguos faraones". Estos historiadores acomodaticios, que únicamente manejan escritos y referencias oficiales, citan que la obra comenzó en un punto del Imperio y que luego fue lentamente expandiéndose con sus legiones de capataces, ingenieros y peones hacia afuera como la onda de una piedra en las quietas aguas de un estanque. Aquí y allá, según avanzaban los trabajos, los diferentes grupos de trabajadores se alejaban los unos de los otros en todas las direcciones hasta perder contacto entre sí. En ese punto la velocidad de la obra se atenuaba peligrosamente, los ingenieros dudaban por falta de órdenes concretas y los trabajadores, detenidos en el horizonte, sentían el vértigo de lo infinito. Pero entonces, en esas épocas críticas, llegaban en larga formación nuevos contingentes de trabajadores e ingenieros alzando picos y palas

al cielo, y todo el mundo prorrumpía de repente en vítores y cantos porque estas nuevas energías aseguraban la pervivencia de la misión imperial. Esta versión, digamos, es la oficial y la que documenta impecablemente la historia. Todavía hoy podemos imaginar un colosal ejército de trabajadores allá en la vertiginosa periferia avanzando inexorablemente hacia el exterior. Hay gente que todavía hoy día escala a los altos tejados de torres y minaretes buscando en el difuso horizonte algún resplandor, algún brillo ó signo que informe sobre el estado actual de la Construcción.

Otras versiones niegan por supuesto dichas disquisiciones. Argumentan un proceso inverso: primero fue un muro circular de radio incalculable y ya luego todos los trabajos convergieron razonablemente al centro estricto y geométrico. La idea es extraordinaria en sí misma y basta una idea extraordinaria en la mente de los hombres para que perviva de un modo tenaz, como un poderoso astro en el firmamento; no importan entonces las dificultades, no importan los fracasos parciales ni siquiera las derrotas severas, porque las diversas generaciones se sucederán unas a otras de modo incansable en la persecución de dicho sueño. Cientos de miles de trabajadores, acaso millones, fueron movilizados y distribuidos con asombrosa precisión por los arquitectos del Imperio a lo largo de las vastísimas planicies del continente. Cada grupo de operarios debía alzar un muro de diez mil metros de longitud en levísimo arco y la unión de todos los muros parciales debía formar un círculo de dimensiones incalculables, una muralla circular bella y perfecta. Delimitado así el espacio, todos los trabajos posteriores se trasladaron al interior, avanzando imparablemente hacia el centro desde todas las direcciones a la vez. La naturaleza de la obra exigía cada año un menor número de trabajadores e ingenieros sin afectar ni a la velocidad ni a la calidad de la construcción. Los menos fueron trasladados a otros puntos del Imperio (si es que realmente había otros puntos fuera de la Construcción) y los más simplemente perecieron en el prodigioso laberinto de muros, galerías, patios simétricos y torretas afiladas que se extendía como un océano en todas las direcciones. Generaciones enteras perecieron ordenadamente y con ellas, tristemente, todos los secretos de la Fortaleza.

Esta última versión está lujosamente prohibida; esta versión contradice con abundancia lo dispuesto por el Consejo Imperial (que significa contradecir los principios de la lógica); esta versión ha sido declarada falsa por eruditos enmascarados. No hay, sin embargo, una explicación exacta y comprensible de por qué es una versión falsa. A lo más, hay días en que cuatro ó cinco guardianes irrumpen bruscamente en la estancia general con la mano en el cinto y la mirada hosca, escrutando severamente nuestros rostros. Se produce entonces un repentino y pesado silencio hasta que uno de los guardias coloca un edicto en la pared y, mirando fijamente en derredor, grita con voz grave: "¡Esto es así! ¿Hay alguien que quiera formular una queja?". Luego, como todos permanecemos callados, se marchan con ruido de tacones y en el semblante cuadrado el gesto adusto de la misión oficial bien cumplida. Sólo en ese instante volvemos a las tareas interrumpidas, con una normalidad que acaso tiene algo de enfermizo ó de razonable.

Un día mi amigo Karl arrancó el edicto de la pared y exclamó que quería formular una queja. Al instante, el jefe de los guardias hizo venir más guardias, que ya de cerca vimos que eran jueces ó acaso soldados. Hubo un cierto trajín, se movieron mesas y sillas y pronto Karl estaba ya sentado frente al tribunal. Uno de nosotros, elegido al azar por los guardias, tenía por misión ejercer de escribano, si acaso Karl era capaz de explicar con palabras la naturaleza de su queja. Tras unos momentos interminables e incómodos, durante los cuales podía escucharse con total nitidez la respiración firme de los guardias, la voz de Karl sonó metálica y diminuta y las últimas frases resultaron ya del todo inaudibles. Aun con todo, en el aire de la sala había cierta expectación, que aumentó de tono cuando los inmóviles miembros del tribunal juntaron levemente las cabezas para hablar en voz baja, casi con siseos. (Desconocemos en todo punto de dónde vienen estos jueces, con una altura que supera con creces la media nuestra; está claro que son jueces imperiales, porque hay algo inconfundible en el tono y en el porte y sobre todo en la mirada implacable, pero tampoco han dicho nunca que posean un mandato imperial). Luego, de repente, todos callaron y un ayudante del Juez Principal se levantó y con voz grave anunció: "La queja ha sido desesti-

mada", y bruscamente a continuación procedió a leer con rapidez la sentencia que castigaba a Karl. El resto abandonamos la estancia con lentitud pero con un íntimo alivio por salir de la sala.

Que yo recuerde sólo una queja ha sido admitida en nuestro pabellón. Ocurrió hace muchísimo tiempo; aquella vez una pequeña delegación expuso un discurso frente a la mesa del tribunal, produciéndose una larguísima deliberación que duró casi todo un día. Finalmente, frente a nuestros rostros agotados por la espera, un soldado anunció: "La queja ha sido estimada". Está prohibido gritar en esas ocasiones, pero nuestros ojos y nuestras sonrisas gritaban mientras nos abrazábamos y estrechábamos la mano con secreta convicción. Mientras, en ceremonia breve no exenta de pompa, el Juez Principal cogió el edicto y tachó una coma de su texto para volver a clavarlo en la pared, entre la expectación popular. Porque, en efecto, nos acercábamos al edicto y en una de sus líneas aparecía una coma tachada. No pudimos entender con plenitud la naturaleza de dicho cambio porque la mayoría de las veces, por no decir todas, los edictos están redactados en un idioma bárbaro e incomprensible, pero todos salimos muy animados de la sala y durante el resto del día el humor fue inmejorable. Pero de ello ya casi nadie se acuerda. Más bien, hoy me suelen preguntar: "¿Volveremos a encontrarnos con Karl?", y yo les contesto que no porque Karl ha sido enviado a otro sector y porque los sectores y pabellones de la Fortaleza existen en número incalculable, de modo que si alguien pudiera escribir en una pizarra frente a nosotros el número exacto de pabellones que conforman la Fortaleza no podríamos entenderlo, pues de lo contrario caeríamos inmediatamente desmayados en un vértigo de cifras. De todas formas, ¿para qué intentar pensar en cómo es la Fortaleza? Nos basta saber que vivimos en ella y que acaso es imposible abandonarla. He oído, sin embargo, historias que la vinculan en forma, naturaleza y objetivo a los círculos infernales ideados por Dante, en cuya primera muralla un cartel sobre el portalón exhorta a perder toda esperanza a aquel que lo traspase. Asumir dicha teoría significaría no obstante asumir al menos dos hechos: el Imperio se ha rebajado a plagiar a Dante; la Fortaleza es un ente perfecto, implacable e imperecedero. ¡Cuántas veces habremos dis-

cutido estos hechos en fogosas reuniones y conversaciones! Es cierto que poco ó nada se sabe sobre el origen de la Fortaleza (y en realidad, poco ó nada también sabemos del Imperio) y el terreno queda así abonado para todas las especulaciones y teorías posibles. Es también indudable que somos un pequeñísimo punto frente a las dimensiones fabulosas de la Fortaleza y que la Fortaleza misma es a su vez otro punto diminuto dentro del conjunto de planes e intenciones del Imperio; semejante distancia y vértigo existe entre todo ello que hace que demos por sentado que la Fortaleza ha de ser un engranaje perfecto, y que en una alta sala imperial se rigen con detalle todos los destinos y caminos, y que si el Imperio quisiera, el hilo invisible que sujeta y da fuerza a mi brazo mientras escribe podría romperse y mi mano caer, muerta y fría, sobre el papel. Estas ideas tienen un arraigo notable en la población y por eso es tan difícil transmutarlas. La criatura humana, tan amante de la perfección, quiere y necesita que todo lo que rodea y da forma a su existencia (sea ésta mísera ó espléndida) tenga un sentido y responda a los designios de una instancia superior todopoderosa y perfecta. En los círculos infernales de Dante hay una perfección subyacente y un persistente sentido común: los castigos se reparten antes de entrar y a cada reo se le asigna un círculo ó lugar que, de un modo estudiosamente atroz, es el contrapunto moral a la falta que se quiere castigar: los iracundos y violentos arden en ríos de lodo y sangre, los falsos heresiarcas son fuegos fatuos sobre sus tumbas huecas. Hay, pues, una mente suprema que sostiene y gira todos los engranajes, hay un sentido, una forma de lo cabal que lo impregna todo. La Fortaleza y el Imperio lo son todo, como un sol abrasador, y esa es la idea fija que pervive en nuestra mente. Como cuando leemos esas historias ó noticias sobre pueblos bárbaros que han intentado tomar y destruir la Fortaleza. Allí lejos, en el lado sur, hordas que codiciaban las murallas lograron traspasarlas en su punto más meridional, irrumpiendo como una vigorosa marea. Pero luego, asombrados y asustados por las dimensiones y por la perfección geométrica de sus formas, sin saber muy bien qué hacer en el interior de la Fortaleza, huyen sin destruirla ni saquearla, temerosos de su sola presencia magnífica, temerosos de su solo nombre. ¿No son estas noticias una simple confirmación del fabuloso poder imperial? ¿No son estas

leyendas – que cualquier niño ó anciano te puede relatar – el mejor ejemplo de que la Fortaleza ha de ser una obra perfecta e imperecedera?

En mi opinión estos hechos parecen sólidos, pero hay algo sin embargo que desde hace tiempo no me deja dormir, que me persigue como una sombra inquietante. Acaso la creciente y vívida sensación de que todas las noticias y advertencias que llegan desde la Corte Imperial , desde el Centro de la Fortaleza, son viejas y remotas, tan viejas y remotas que ya no sirven. Los altos guardias de mandíbula cuadrada es cierto que van y vienen, que nos imponen su insoportable mirada escrutadora, pero hay algo errático en su proceder de autómatas; y si se mira bien, en la mayoría de rincones poco soleados hay como un musgo bruscamente selvático; y aquí y allá en los muros, el óxido de las alambradas se convierte en polvo terroso si se toca con fuerza en los dedos. Examinemos sin vértigo ahora la siguiente posibilidad: una orden es emitida por el Consejo Imperial y tiene el grave problema de que ha de llegar a todos nosotros, pues la Fortaleza es ya inmensa y ha de recorrer una formidable distancia entorpecida de caminos laberínticos, muros y galerías inacabables. Pero la orden ha de llegar, así que el Consejo de Sabios, espoleado por el carácter titánico de la empresa, ha dispuesto que un mensajero parta sin dilación en cada dirección posible. Pero cada dirección pronto se bifurca en más direcciones porque la Fortaleza es como un gigantesco tapiz de hilos entrecruzados, y entonces el Consejo Imperial ha tenido que disponer que en cada punto de bifurcación esperen nuevos mensajeros para copiar el mensaje y correr raudos hasta las siguientes encrucijadas. Realmente uno aquí ha de asombrarse ante la poderosa imagen de una red inmensa de mensajeros avanzando como un viento. Las bifurcaciones y encrucijadas se suceden, la redacción de copias también. Pero entonces, en éste y en aquel otro punto también, un mensajero, acaso por la impaciencia, acaso por la tensión de la labor vertiginosa, desliza un error en la copia. Ese leve error no tiene importancia; puede ser el simple cambio de una letra, ó a veces incluso la omisión completa de una palabra. Pero el mensaje apenas se ha alejado unos kilómetros del centro de la Fortaleza y todavía hay más bifurcaciones, y más mensajeros

como un viento, y más errores sobre el error. Ya han pasado luego muchas jornadas de camino y la orden imperial, cuando no resulta ininteligible, es diferente en cada lugar que se entrega, y todavía hay miles de mensajeros raudos como el viento acercándose ya a los aledaños de las fronteras con el imperativo mandato mutando a cada momento. Podría ocurrir, y esto era realmente un prodigio, que la orden imperial llegara intacta a un destino, a un lejano pabellón de la zona norte, que no es más que un diminuto punto en el mapa de la Fortaleza. Esa orden que había atravesado prodigiosamente todo un camino de dificultades había llegado por fin a su destino tal y como el Imperio lo había concebido en su origen. Pero había pasado ya tanto tiempo que carecía de sentido. Es más, posiblemente en ese mismo instante, la Corte Imperial ya estaba redactando otra orden que contravenía la que acababa de llegar. Finalmente, pensemos en el resto de órdenes imperiales todas ya diferentes, todas ya ilegibles y viejas, llegando triunfalmente a cada uno de los pabellones y sectores de la Fortaleza. Y pensemos también en la cantidad de órdenes que el Gobierno Imperial ha pretendido mandar en el plazo de un año…

Hemos de asumir que éste podría ser muy bien el funcionamiento de la Fortaleza, y que con el paso de las edades y de las generaciones la distancia con el Consejo Imperial no sea ya meramente geográfica. El Consejo Imperial ha concebido un prodigioso diseño de ordenación de la población, el Consejo Imperial ha ordenado todo un plan de acciones, pero nada de eso ha llegado a nosotros en dichos términos. Sólo vemos a los guardias, a jueces con grado de Teniente (cuando los hay) y toda una colección de edictos amarillentos. Sorprende entonces comprobar que a pesar de dicha realidad todos los pabellones y sectores funcionen con una sincronía y con una homogeneidad a todo punto perfecta, como si un poderoso e invisible hilo de hierro rigiese nuestras voluntades y destinos, como si la mera idea de la existencia de la Fortaleza bastara para imponer orden y silencio. Algunos contrabandistas que he interrogado en noches ocasionales han referido oscuras e inquietantes historias; afirman (pero en realidad nadie lo ha visto con sus propios ojos) que desde las torres más altas de las zonas del Sur puede verse cómo

la arena de cansados desiertos ha invadido sectores y pabellones enteros. De ser ciertos, todos estos hechos parecen converger con obstinación hacia una conjetura que rápidamente será considerada falsa y herética: el Imperio se ha extinguido; no hay ya Consejo Imperial, aunque las normas, las advertencias y los edictos sigan llegando, como todavía puede llegarnos también la luz vieja de una estrella que hace tiempo ha desaparecido del espacio sideral.

Karlos Apeztegia Jaca
1964
Iruñea

1992. urtean atxilotua.

C.P. Huelva II
Carretera de la Rivera
21.610 Huelva

Giltzapean euskara ere legez kanpo

Kultur eta hizkuntza aniztasuna bizi-bizia omen dago Espainian. Galiziera, katalanera eta euskara Espainiako hizkuntzak direla harrotasunez aldarrikatzen dute, era honetan garbi egiaztatzen baita espainiarrak ez direla zenbaitek uste duten jende itxi eta ezjakin hori, ezezaguna zaiona mesprezuz errefusatzen duena. Beraz, euskarak ere Espainiako kultura aberasten du eta Espainian herritarrek ulertzen dute kultura ezberdinekiko begirunea ez dela hitz hutsen kontua, egunerokoan egintza zehatzen bidez erakutsi beharreko zerbait baizik, eta espainiarrek gaztelera ez diren beste hizkuntzekiko begirunez jokatzen dute, jakina. Horiek ere kultur altxor baliotsuak dira, batez ere euskara, denetan hizkuntzarik zaharrena, eta espainiar guztiok ongi asko dakite hori, aniztasun eta begirunearen kultura zeharo txertatua baitago espainiarren baitan. Ez da berriro ere gertatuko garai batean bezalaxe, euskara debekatua egon zela eta hilarrietan zeuden euskarazko testuen ordez erdarazkoak ezinbestez jarri beharra zegoela, diru zigor garrantzitsua ordaintzearekin batera. Ez, garai beltz horiek ez dira inolaz ere itzuliko, aspaldiko amets ilun bat besterik ez baitira. ZP-k ere euskara, galiziera eta katalanenaren koofizialtasuna eskatu du Europan, gainerako hizkuntzekin batera, eta inortxok ere ezin du ukatu Espainiak euskarari (beste hizkuntza guztiei bezalaxe) agertzen dion begirune zintzoa. Edo hauxe da espainiar boteretik zabaltzen den mezua, behintzat. Mezu ustela ote? Baliteke!

Huelvako espetxean telefonoz euskaraz hitz egitea debekatua dago, legez kanpoko hizkuntza bihurtu baita 2003ko azaroaz geroztik. Zer gertatu zen, bada, 2003ko azaroan?

Espetxe honetako segurtasun zuzendariordeak euskal preso politikoak gogoan ditu etengabe eta, egun batean, espetxerako bidean bere barnerako hitz eginez zera pentsatzen ari zen, "Zer egin ote nezake nik hiltzaile madarikatu horiek ederki izorratzeko? Zer egin ote nezake nik min gehien hartzen duten tokian gogor jotzeko?". Egun horretan bertan, isolamendu eremura agertu zen eta bertan zeuden kartzelariei zorrotz agindu zien egun horretatik

aurrera euskal presoek ezin zutela euskaraz hitz egin telefonoz, eta gazteleraz egin behar zutela aurrerantzean.

Huelvako espetxe berri ireki zenetik (1996. urtetik, hain zuzen ere) telefonoz euskaraz hitz egin ahal izan da beti, horretarako ez baita inoiz arazorik ttikiena ere izan. Euskal preso politikoen telefono bidezko solasaldiak grabatzen zituzten garai hartan, gaur egun bezalaxe, eta euskarazko grabaketak itzultzera bidaltzen zituzten, baina euskal presoei ez zieten inoiz euskaraz egiteko eskubidea ukatu. Dena den, hauek iraganeko kontuak dira gaur egun.

Segurtasun zuzendariordea gizon eskasa da, eta zitala, espetxe zaharrean zerbitzu buru izan zena, baina espetxe berria ireki zenean norbaitek erabaki zuen segurtasun arduraduna izanen zela. Beharbada, euskaldunekiko betidanik agertu duen "Begikotasun" sakona ardura garrantzitsu horren arrazoi nagusia izan liteke. Kartzelari askoren ustez, aldiz, gizon eskasa izateaz gain, zerbitzu buru izateko ere ez zuen aparteko dohainik, baina aitabitxi garrantzitsua lortu omen zuen nonbait eta zuzendariaren arduraren parekoa den erantzukizuna eman zioten, askotan handiagoa izaten dena, hainbat espetxetan segurtasun arduradunak zuzendariak berak baino botere handiagoa baitu.

2003ko otsailean "Euskaldunon Egunkaria" indarrez itxi zuten, baina hori ez zen inolaz ere euskara eta euskal kulturaren aurkako erasoa, ezta pentsatu ere. Halakorik bururatzea ere! Garai hartako barne ministroak garbi asko azaldu zuen "Egunkaria" ixtea euskara indartzeko ekimen garrantzitsua zela, eta denek badakite Acebes-ek ez duela inoiz ere gezurrik esaten, espainiar zintzo eta kristau garbia baita. Hori dela eta, Acebes-ek ez du inoiz ere gezurrik esan, jakina.

Beraz, Acebes-en ekimenak lorturiko arrakasta ikusita, Huelvako espetxeko segurtasun zuzendariordeak bertan gauza bera egitea erabaki zuen. Kartzelariei euskaldunek telefonoz euskaraz egitea zeharo debekatua zutela jakinarazi zienean, Kartzelari lotsagabe eta artaburu batek euskal presoei azalpen bat eman beharko zitzaiela aipatu zion zuzendariordeari, neurri

berria zela eta. Zuzendariordeak emaniko erantzuna guztiz zehatza izan zen: "Neronek agindu dudala eta kitto!". Jakina, azalpen "mamitsu" hau eman eta gero zera gaineratu zuen, euskal presoek telefonoz euskaraz egiten baldin bazuten solasaldia moztu beharko zitzaiela une horretan bertan, zalantzarik agertu gabe.

Ezin da ukatu, hortaz, kultur aniztasuna eta gaztelera ez diren gainerako hizkuntzekiko begirune garbia bizi-bizirik daudela Huelva aldean. Ez, euskararekiko garai beltzak aspaldiko kontu zaharrak baino ez dira, inoiz ere itzuliko ez diren garai ilunak.

Garai ilunak ez dira berriro itzuliko, baina 2003. urteko azaroaz geroztik Huelvako espetxean guztiz debekatua dago telefonoz euskaraz hitz egitea, hauxe omen baita espetxe honetan egin daitekeen gaiztakeriarik handiena, jakina. Espetxeko arduradunek euskal presoei ez diete debeku honen arrazoia azaldu, ezta azalduko ere, halakorik ez dutela merezi zeharo sinistuta daudelako. Telefonoz euskaraz hitz egitea debekatua dago eta gazteleraz egin beharra dago telefonoz hitz egin nahi bada. Eta kitto!

Halako batean denboran atzera egin dela ematen du, hogeita hamabost urte inguru atzera, denboran zehar bidaiatzeko makinaren beharrik gabe, 1969. urtera itzuli izan balitz bezala, urte hartako egoerara itzuli baita ezustean. Hori bai, inortxok ere ez dezala pentsa honen atzean euskara eta euskal kulturaren aurkako ezkutuko asmo txarrik dagoenik, oker ibiliko baita, jakina.

Kartzelari batzuei nabaritzen zaie biziki gozatzen dutela euskaraz ezin dela hitz egin esaten dutenean, "en español" egin behar dela esaten baitute, hitzak doinu berezi batez azpimarratuz, baina honen atzean ez dago euskararekiko gorrotorik, ezta pentsatu ere! Beste batzuk, aldiz, "toleranteago" azaltzen dira eta euskal presoek zein hizkuntza egiten duten berdin zaidala diote, baina haiek jaso duten agindua bete behar dutela ezinbestez ("Niri agindu didate gazteleraz egin behar duzula"). Zenbaitetan euskaraz egitea zure eskubidea dela onartzen dute, baina ez dizute eskubide hori gauzatzen utziko ("Euskaraz hitz egitea zure esku-

bidea da, baina egin ezazu gazteleraz. Bestela, deia bertan behera utziko dizut"). Ezin da ukatu zenbait kartzelarik duten "tolerantzia" bikaina denik, ezta?

Telefonoz euskaraz hitz egitea legez kanpoko ekintza bihurtu da Huelvako espetxean, eta katua eta saguaren arteko jokoaren antza hartu du kontu honek, kartzelaria telefonoz ari den lagunarengandik urruntzen denean euskaraz egiteko aukera sortzen baita, ez duelako garbi entzungo zein hizkuntzatan hitz egiten ari den. Dena den, ez da komeni ozenegi hitz egitea. Kartzelaria telefono ondotik urruntzen ez bada, gazteleraz egin beste aukerarik ez dago. Eta "joko" hau hasi zenetik hilabete luzeak joan dira dagoeneko.

Euskal presoei beraien senitartekoekin euskaraz hitz egitea debekatu diete, beti euskaraz egin duten senitartekoekin (ama, aita, anai-arrebak, neska-laguna, seme-alabak...) eta telefonoz haiekin gazteleraz egitera behartu dituzte. Deien iraupena motza da oso, 5 minutukoa, eta hau gutxi balitz, euskaldunek euskaraz hitz egitea guztiz debekatua dute.

Behin, euskal preso bat 3 urteko bere semetxoarekin hizketan ari zen telefonoz, euskaraz, haurrak ez baitaki gazteleraz, eta kartzelariak gazteleraz egin zezan agindu zion. "Aizu, nire semearekin ari naiz eta ez daki gazteleraz. Nolatan nahi duzu berarekin hitz egin dezadan?" erantzun zuen euskal presoak. "Esaiozu zure semeari gazteleraz ikas dezan" izan zen kartzelariaren erantzuna. Kartzelariaren jarrera gaiztoa ikusita, euskal presoak zera esan zuen, "Ez, ingeleraz ikas dezan esanen diot, hizkuntza hori gaztelera baino mesedegarriagoa suertatuko baitzaio". Kartzelariak ez zuen oso gustuko izan erantzuna, baina deus ere ez esatea erabaki omen zuen. Euskal presoaren seme ttikiak ez du ulertzen zergatik ezin duen euskaraz egin bere aitarekin, baina kartzelariari bost axola zaio.

Beste behin, beste euskal preso batek telefonoz hitz egin behar zuen bere abokatuarekin, eta euskaraz egin zuen abokatuarekiko harremana ez baitago komunikazioen kontrolpean. Beraz, euskaraz lasai ederrean

ari zen. Halako batean, kartzelaria ondora agertu zitzaion eta oso era zakarrez (ia oihu bizian) gazteleraz egin zezan agindu zion. Euskal presoak zera erantzun zion, "Aizu, nire abokatuarekin hitz egiten ari naiz, abokatuarekiko nire harremana ez dago zuen kontrolpean eta euskaraz egin dezaket berarekin. Ez badidazu sinisten, modulu buruari galdetu eta berak argituko dizu harreman mota hau ez dagoela kontrolpean". Kartzelariak ez omen zuen gehiegi sinistu euskal presoak emandako azalpena, baina hala ere zalantza sartu zitzaion eta bere buruzagiari galdetzea erabaki zuen. Zenbait minuturen buruan kartzelaria itzuli zen txakurtegitik eta lehenagoko bere jarrera zakarraz desenkusatu nahirik edo, euskal presoari honela mintzatu zitzaion, "nik ez nekien hau, abokatuarekiko zure harremana ez dagoela kontrolpean. Begira, ni galiziarra naiz eta nire senideekin galizieraz hitz egiten dut. Hortaz, euskaldunek hizkuntzarekiko duzuen sentimendua ulertzen dut".

Bai, kartzelariak ederki ulertzen du euskaldunek euskararekiko duten lotura eta horrexegatik biziki gorrotatzen du euskal jendea. Ez du aukerarik galtzen euskal preso politikoekiko gorrotoa garbi agertzeko eta honen iritziz Francisco Franco Bahamonde XX. mendeak eman duen pertsonaiareik bikaiena da. Hori dela eta, euskal preso politikoak "Franco txiki" deitzen diote, euskaldunek sorterriarekiko duten lotura Francisco Francoren moduan ulertzen duelako. "Franco txiki" euskal preso politikoen galerian txistuka sartzen da beti, bere kantarik gogokoena txistuka ari dela, "Cara al Sol" izenekoa. Euska presoek ez diote batere jaramonik egiten bururik gabeko arlote irrigarri bat iruditzen zaielako. Gainera, behin baino gehiagotan barre ederrak egiten dituzte "Franco txiki"ren kontura. Izugarri gaizki txistu egiten duela esan beharko lioke norbaitek. Agian horrexegatik erabaki zuen kartzelaria izatea, artista izateko ez zuelako balio. Batek daki!

Hala ere, kultur eta hizkuntza aniztasuna indartsu dabil Espainian eta euskararen aurkako gorrotoz beteriko jarrerak iraganeko kontu zaharrak besterik ez dira, jakina. Ez, garai beltz horiek ez dira inoiz itzuliko. Gainera, ZP-k euskararen koofizialtasuna eskatu du Europan. Orain Huelvan espetxeratuta dauden euskaldunek telefonoz euskaraz hitz egiteko eskubidea dutela aldarrikatzea besterik ez zaio falta. Hain da maitagarria ZP!

Nire lana egiten ari naiz

Hauxe da Huelvako isolamendu eremuko kartzelari ugariren ahoan entzun daitekeen esaerarik ohizkoena, eta kartzelari horiek euskal preso politikoekiko "begikotasunik handiena" agertzeagatik nabarmentzen dira gehienetan.

Bidegabekeriaren bat burutzen dutenean haiekin eztabaidan egiten bada, hauxe da beti ematen duten erantzuna: "Nire lana egiten ari naiz". Baina, zein da zehazki "langile" hauen egitekoa? Harrokeriaz jokatzea, begirada eta aurpegi gaiztoak agertzea, erantzun zakarrak ematea, alferkerian jardutea, lan-orduetan alkohola edatea, presoak iraintzea eta umiliatzea, inolako beharrik gabe oihuka aritzea, presoak jipoitzea eta abar. Hauxe da, gutxi gora behera, "langile" porrokatu hauen egitekoa eta esaera ospetsua errepikatzen ez dira inoiz aspertzen: "Nire lana betetzen ari naiz".

Jakina, Argentinako "Escuela Mecánica de la Armada" (ESMA) delakoan ezkertiarrak torturatu, erail eta desagerrarazten zituzten horiek ere haien "lana" egiten ari ziren. Argentinan ezkertiarrak hegazkinetatik itsasora bizirik botatzen zituzten horiek ere kontu bera esaten zuten harrotasunez: "Gure lana egiten ari gara". Txilen atxilotutakoak torturaren ondorioz erail eta gero ibaira botatzen zituztenak ere haien "lana" egiten ari ziren. Europan (Euskal Herria) 80ko hamarkadaren hasieran 27 euskal abertzale erail zituzten GAL-ekoak ere haien "lana" egiten ari ziren. Intxaurrondon ere, Galindo eta haien "lana" (Mikel Zabaltza) egiten aritu dira hainbat urtez. Gaur egun ere, Marineak haien "lana" egiten ari dira Guantanamon, baita Irak-eko espetxeetan ere, eta harrotasunez aldarrikatzen dute haien "lana" egiten ari direla.

Esan beharrik ez, demokraziak honelako langileen "lana"-ren beharra du bizirik irauteko, demokrazia estoldetan ere defendatu beharra dagoela garbi esan baitzuen aspaldi politikari espainiar famatu batek.

Espetxean ere demokraziak bere burua defendatu behar du, eta urdinez

jantziriko "langileen" egitekoa zeharo beharrezkoa da, euskaldun zitalek ezin baitute hondatu espainiarrek hainbeste lan eginda nekez lortutako demokrazia ederra, Euskal Herriak bere geroaz askatasunez erabakitzeko eskubidea kontuan hartzen ez duen "demokrazia ederra". Hori dela eta, kartzelariek ere harrotasunez aldarrikatzen dute haien "lana" egiten ari direla, estoldetan ezkutuan eta lekukorik gabe burutzen den "lana".

Musikaren soinua goxoa ez omen denean

Euskal preso politikoa Huelvako espetxera ekarri zuten iaz Andaluziako beste espetxe batetik, eta berarekin ekarri zuen lehengo espetxean batere arazorik gabe izan zuen harmonika txiki bat, baina Huelvan harmonika izatea debekatu zioten "segurtasun arrazoiak " argudiatuta, bestelako azalpenik eman gabe.

Badirudi Huelvako espetxean harmonika txikia oso arriskutsua omen dela, Irak-en aurkitu ez dituzten suntsiketa masiborako armak baino askoz arriskutsuagoa, jakina. Egia esan, euskal presoak ez zuen inoiz uste izan harmonika txiki bat horren arriskutsua izan litekeenik, baina Huelvako espetxeko arduradun jakintsuek garbi esan zuten: "Hau oso arriskutsua da".

Madrileko epaile bereziaren ustez, espetxeak ezarritako debekua guztiz zuzena da eta harmonika izateko azaldu zaizkion alternatiba guztiak zeharo baztertu ditu besterik gabe. Torquemada berriak bere iritzia garbi ezagutarazi zuen: "Harmonika txikia oso arriskutsua da".

Euskal presoak ez du ulertzen debeku horren funtsa, bere asmo bakarra musika pixka bat egitea besterik ez baitzen, baina horretarako ez omen dago eskubiderik Huelvan.

Euskal presoaren ustez, "arrisku" bakarra ondoko ziegetan dauden beste euskal presoei buruko mina sortzea litzateke gaizki joz gero, baina ezin da esan euskal presoak oso gaizki jotzen duenik.

Beharbada, harmonika zer moduz jotzen duen zehazteko froga edo azterketa moduko bat egin lekioke, eta emaitzaren arabera harmonika izatea baimentzen ote zaion erabaki liteke, euskal presoa froga horretarako prest bailegoke.

Baina ez dago deus egiterik. Espetxeko arduradunek erabaki dute harmonika oso objektu arriskutsua dela, eta ezerk ez du erabaki irmo hori indarrik gabe utziko, harmonika txikia oso arriskutsua baita, esan beharrik ez.

Ziegan egoterik ez

Huelvako espetxean ziegan gelditzea zeharo debekatua dago, patiora ateratzea derrigorrezkoa delako, espetxeko zuzendaritzak halaxe erabaki baitzuen. Hortaz, ziegan patiora atera gabe gelditzea Huelvan egin daitekeen gaiztakeriarik handiena omen da eta espetxeko arduradunek ez dute inolaz ere halakorik onartzen. Eta gogor zigortzen dute ziegatik ateratzeari uko egitea, ziegan 14 eguneko bakartze zigorra emanez, hau ez baita ahuntzaren gauerdiko eztula, ez horixe.

Huelvako euskal preso politikoek itxialdia egin dute behin baino gehiagotan eta ziegatik patiora ez zutela atera behar jakinarazi bezain laster espetxe arautegiko 72. artikulua ezarri diete, espetxean zerbait larria gertatzen denean indarrean jartzen dena. Beraz, matxinada bortitza gertatzen denean, espetxeko egoera normala arrisku bizian jartzen denean, presoen edo kartzelarien bizitza arrisku bizian dagoenean edo presoen aldetik oso jarrera bortitza eta arriskutsua nabarmentzen denean indarrean jartzen den artikulua da, presoak dituen eskubide guztiak bertan behera uzten dituen artikulu gogorra.

Presoari 72. artikulua ezartzen zaionean, ziegan dauzkan gauza guztiak (arropa, liburuak, irratia, telebista...) kentzen dizkiote eta ziega erabat hutsik gelditzen da, presoak jantzirik daraman arropa besterik ez duela. 72. artikulupean dagoen presoak ezin du bisitarik izan, ezin du telefonoz hitz egin, ezin du gutunik bidali (ezta jaso ere), ezin du irratia entzun, ezin du erosketarik

egin eta ezin du inolako kontakturik izan inorekin, eta egoera honetan 72 orduz egon daiteke. Hitz gutxitan esanik, 72. artikulupean dagoen presoa guztiz bakartua dago.

Huelvako espetxeko arduradunen ustez, ziegatik patiora ez dela atera behar esatea arrazoi nahikoa omen da presoari 72. artikulua ezartzeko, zeharo onartezina omen baita presoa ziegan gelditzea berak halaxe nahita.

Espetxeko zuzendaritzak dio presoa ezin dela ziegan gelditu eta patiora atera behar duela nahi ta nahiez halaxe agintzen zaionean. Legeak, aldiz, zera dio, presoak ziegan gelditzeko eskubidea baduela hala nahi izanez gero, patiora ateratzea presoaren eskubidea baita, eta ez da inolaz ere betebeharra. Honez gain, legeak esanikoaren arabera, presoari ezin zaio zigorrik eman ziegan gelditzeagatik. Baina hau bost axola zaie Huelvako espetxeko arduradunei eta patiora atera nahi ez duen presoari 72. artikulua emanen diote lehenik, eta gero 14 eguneko bakartze zigorra.

Hauxe da Huelvako euskal preso politikoei behin baino gehiagotan gertatu zaiena, itxialdia egiteagatik 72. artikulua ezarri baitiete, eta haien eskubide guztiak indarrik gabe gelditu dira. Lehenago ere ez zuten eskubide gehiegirik, baina apur hori ere desagertu egiten da.

Euskal presoek ziegan gelditu behar dutela esatea aski omen da espetxeko zuzendariaren iritziz preso baten aurka har daitekeen neurririk latzena indarrean jartzeko, espetxe honetan patiora ez ateratzea ekintzarik gaizto eta arriskutsuena omen baita, segurtasuna erabat urratzen duena, jakina! Eta hau ezin da zigorrik gabe utzi, esan beharrik ez.

Bitxiena zera da, Madrileko espetxe zaintzako epaitegi bereziaren jarrera, ziegan gelditzea presoari dagokion eskubidea dela onartzen baitu, baina presoa ziegan gelditzen denean zigorrik handiena ematea bidezkoa dela dio. Ai ene, gure Torquemada "kuttuna" ez omen dabil burutik ongi, agian gehiegizko lanaren eraginez edo. Batek daki.

Espetxean entzuna

Orain zenbait hilabete txundigarria iruditu zitzaien albistea entzun zuten euskal preso politiko batzuek. Isolamendu eremuan horretaz hizketan ari ziren leihotik:
–"Aizak, entzun al duk albistea? Gontzal Mendibilek erdarazko diska bat egin dik martxoaren 11ko erasoetan hildakoen omenez!"

–"Gontzal Mendibil, Zeanuriko kantaria? Ez diat ulertzen. Hori ez al zen ba HASIkoa izan?"

–"Bai, HASIkoa izan zuan aspaldian, baina orain EAren inguruan omen zebilek"

–"Hau duk hau! Eta non gelditu dira bere aspaldiko kanta abertzaleak? Honek ez al zuen garai batean zera kantatzen: "Kapitalismoak dakarren katai ta zapalketa izan dadila guretzat indar askatzailea"? Jakina, orain beste garai batzuk omen dituk, ezta?"

–"Bai, beste garai batzuk omen dituk, edo horixe duk batzuek esaten dutena, behintzat".

–"Ez diat ulertzen, motel. Madrilekoa gogorra izan zela bazekiagu denok, baina hortik torturatzaile eta zapaltzaileen mezuekin hala edo hola bat egitera alde ederra zegok. Politikari ustel eta gezurtiek noiz egin dute Euskal Herriari dagozkion eskubideen alde? Sekulan ez! Eta horiekin bat eginik agertzea zeharo sinistezina iruditzen zaidak, benetan".

–"Bai, egia duk eta horixe duk Espainian entzun nahi dutena, terrorismoaren aurkako mezua, eta Espainian "terrorismo" hitza erabiltzen ditek Euskal Herriaren aldeko borrokaz aritzeko".

–"Eta noizko martxoaren 11 eta gero Espainiako espetxeetan mehatxatu, beldurtu eta jipoitutako euskal preso politikoen omenezko diskoa? Eta noizko espetxean bizitza galdu duten euskal preso politikoen ome-

nezko diskoa? Eta noizko espetxerako bidean bizitza galdu duten gure senideen omenezko diskoa? Eta noizko Euskal Herrian tortura pairatu duten guztien omenezko diskoa? Eta noizko Euskal Herriaren aldeko borrokan hildako guztien omenezko diskoa? Euskal herrian disko asko egitea bazegok nahi izanez gero, jakina!"

–"Mendibilek ziok martxoaren 11n Madrilen gertatu zena oso gogorra izan zela berarentzat eta horrek eragindako sentimenduak azaldu beharra izan duela".

–"Bai, eta Lasa eta Zabalarena ere ez al zen gogorra izan berarentzat? Haien senitartekoei galdetu besterik ez zegok. Horiek ez al zuten kantatxoren bat edo merezi? Bai, egia duk, Euskal Herriak ez dik inolako egoera gogorrik ezagutu martxoaren 11 baino lehen, edo horixe duk zenbaitek sinistu nahi dutena, eta ez zegok inolako diskorik egin beharrik, jakina.

–"Irak-en torturatzen duk, baina gurean ez duk halakorik gertatzen, ezta? Bai zera!"

–"Gainera, diskoa erdaraz egitea erabaki dik eta badakik, hizkuntza hori ez duk inoiz indarrez ezarri inon. Halaxe esan zian orain zenbait urte Espainiako erregeak eta erregeak ez dik gezurrik esaten, ezta? Filipinak dituk gaztelera ezarri ez zuten leku bakarra, bertako jendeak tagaloz hitz egiten jarraitu zuelako"

–"Beharbada Espainiako merkatuan txokoren baten bila zebilek edo. Auskalo! Berak jakinen dik, baina niri ulertezina iruditzen zaidak honen jarrera, benetan."

–"Gainera, euskaldunoi sekulako egurra eman zigutean martxoaren 11 eta gero. Espainiako agintariek hasieratik bazekitean euskaldunek ez zutela inolako ardurarik eraso horietan, baina gezurra nahita erabili zitean Euskal Herriaren aurka egiteko, beti bezala, eta guk espetxean larrutik ordaindu diagu gezur horren ondorioa. Orain hau besterik ez genian behar".

–"Gogoan daukak Ibarretxeren hitzaldia, martxoaren 11ko goizeko 9ak aldera egin zuena? Lotsagarria, hi! Holako "abertzaleak" izanda Euskal Herriaren askatasuna gertu zegok. Bai zera!"

Halako batean, kartzelariak burua agertu zuen leiho batetik eta "goxo-goxo" mintzatuz zera esan zuen:

–"Como no os calleis de una puta bez os voy a meter un parte. Y a ver si hablais en español, que estamos en España".

–"Entzun al duk artaburu horrek esanikoa?"

–"Bai, hau beti bezala zebilek. Gu izugarri "maite" gaitik".

–"Beno hi, geroago jarraituko diagu".
–"Bai, gero arte."

Le tour de France

Txirrindularitzarekiko zaletasuna oso hedatua dago euskal preso politikoen artean eta gehienak txirrindularizale amorratuak dira. Beraz, telebistan ikus daitezkeen txirrindulari lehiaketa guztiak arreta handiz jarraitzen dituzte, Euskal Herriko txirrindulari itzulia dela, Italiako giroa dela eta abar; baina proba hauetan guztietan bada beste guztien gainetik bereziki nabarmentzen den bat: Frantziako txirrindulari itzulia ("Le tour de France").

Hortaz, "Le tour de France" dugu euskal preso politikoen artean ikusminik handiena sortzen duen txirrindulari lehiaketa, batez ere Pirinioetako etapak, hauexek baitira euskal preso politikoentzat garrantzirik handiena hartzen dutenak.
Pirinioetako etapak biziki garrantzitsuak dira euskal presoentzat, mendiak

euskal herritarrez beterik agertzen baitira, eta ikurrinak, "Euskal Presoak Euskal Herrira" mezua aldarrikatzen duten ikurrak eta errepidean euskaraz egindako mota ezberdinetako margoketak ikusteak poz handia sortzen du euskal presoen artean.

Beharbada Pirinioetako etapa horietara Euskal Herritik joaten diren guztiek ez dute zehatz-mehatz jakinen giltzapetutako abertzaleentzat zein garrantzitsua, atsegina eta goxoa den irudi horiek ikusta. Ikurrinak, "Euskal Presoak Euskal Herrira" dioten ikurrak eta honelakoak ikustean euskal preso gehienek sentitzen duten zirrara era egokian azaltzerik ez dago, baina irudi horiek indar izugarria ematen diete une horretan telebistari begira dauden euskal presoei, Tourreko Pirinioetako etapetan Euskal Herria indar handiz eta bizi-bizirik agertzen baita, eta horrek euskal presoek pairatzen duten bakartze egoera puskatzen du. Eta hau euskal zaletuei eskertu behar zaie.

Pirinioetako etapa horietara joaten direnek jakin behar dute euskal preso politiko ugari ere haiekin bat eginik daudela une horietan. Beraz, urtero euskal preso politiko gehienak tourreko Pirinioetako etapak noiz iritsiko diren zain egoten dira, Euskal Herriarekin bat egiteko aukera paregabea baita.

Azkenik, esan egin behar da kartzelariei etapa horietan agertzen diren ikurrinak eta "Euskal Presoak Euskal Herrira" aldarrikapena ikusteak tripako min ederra eragiten diela, eta hau ere euskal zaletuei eskertu behar zaie.

Euskal Telebista Huelvan

2003ko apirilean albiste bitxi bat agertu zen "EL MUNDO" egunkariaren Andaluziako gehigarrian, orrialde osoa hartzen zuena: "Los presos de ETA de la prisión de Huelva solicitan al Juzgado de Vigilancia poder captar las emisiones de Euskal Telebista". Beraz, albiste honek esanikoaren arabera, Huelvako euskal preso politikoek espetxe zaintzako epaitegiari Huelvan Euskal Telebista ikusi ahal izatea eskatu omen zioten, baina Huelvako euskal preso politikoek ez dute inoiz halakorik eskatu.

Izan ere, nondik aterako zuen kazetari ondratuak halako artikulu luzea idazteko mamia? Hau da hau bitxikeria! Huelvako espetxeko kartzelariak zintzoak dira oso eta ez zuten inoiz gezurrik esanen euskal preso politikoak nolabait kaltetzeko asmoz, ez horixe! Hau guztiz ezinezkoa da, benetan!

Artikulu luzea sinatu zuen kazetaria ere zintzo askoa zen eta ziurrenik ez zekien artikulu horretan esanikoa goitik behera gezurra zenik, jakina! Nondik iritsiko litzaioke kazetari zintzo eta ondratuari egiaren itxuraz mozorrotutako gezur hura? Nondik iritsiko litzaioke?

Hau da hau kontu bitxia! Euskal presoek ez diote inoiz eskatu espetxe zaintzako epaitegiari Euskal Telebista ikusi ahal izatea, baina "EL MUNDO" egunkariak gezurrezko albistea argitaratu zuen eta demokrazian ez dira honelako gauzak gertatzen. Gainera, garbi dago kartzelariek ez ziotela gezurrezko informaziorik eman kazetariari (kartzelariek ez dute inoiz ere gezurrik esaten, Acebes-ek bezala) eta garbi dago kazetariak ere ez zekiela artikulu horretan idatzitakoa gezurra zenik, gezur hutsa zela jakin balu ez baitzuen idatziko, jakina!

Gaur egun ere, denbora dexente igaro ondoren, inortxok ere ez daki nondik atera zen informazio hori, Huelvako kartzelariak eta "EL MUNDO"-ko kazetaria mixerable, zital eta gezurti hutsak direnik esaterik ez baitago. Beraz, nondik aterako zen gezur hutsa besterik ez zen informazio hori? Agian inortxok ere ez omen du inoiz ere aurkituko galdera honen erantzuna. Auskalo! Batek daki!

Joel Sistiague
1977
Ustaritze

2002. urtean atxilotu eta espetxeratu zuten.

Seine Sain-Denis (Villepinte)
Avenue Vauban
93.422 Villepinte Cédex

EUSKAL PRESOAK
ETXERA

ASK
ALDA
SUNA

EUSKAL
HE A

Juan Ramón Rojo
1970
Irun

1992. urtean atxilotu eta espetxeratu zuten

P. P. Valladolid
47.071 Villanubla
(Valladolid)





Xabi Larrea Bolibar
1947
Bilbo

Iheslaria. 16 urte etxetik kanpo.

Gernikara!!!
(El primer Aberri Eguna despues de la derrota del 37)

Era el domingo 7 de abril de 1963, tenía entonces quince años, volvía a casa a media noche, enamorado y caliente, se había acabado el baile de "la plaza". Volvía enamorado de mi diosa Mari Jose. Había estado bailando con ella, arrimaditos, lo que para mí era lo más próximo al Paraiso. Sentía en mi cabeza sus ojos, su olor, su pelo y en mi salva sea la parte, sus tetitas. Es por eso que digo, iba, enamorado y caliente cuando, al llegar a la plaza del Marqués, -así la llamamos- ví las cuartillas esparcidas por el suelo, sembradas entre las losas.



¡Hostias macho, la Resistencia!

Eran hojas en blanco y negro, impresas en lo que lo luego llamaríamos vietnamitas.

La doble cruz era la que entonces llamábamos en Balmaseda "la bandera de Euskadi", que más tarde supimos se llamaba "ikurriña" y de la que sabíamos que era roja, verde y blanca, sin aclararnos bién qué aspas eran las verdes y cuales las blancas.

Cogí la hoja del suelo, furtívamente, como quien roba fruta ajena. De golpe se me olvidó mi Mari Jose y se me bajó la hinchazón.

Allí estaba escrita una consigna, resumen, guiños cómplices, historias contadas a media voz sobre terribles represalias, muertos, cabezas rapadas, aceites de ricino, "cara al sol con la camisa nueva", ¡viva España!, "Guernica ha sido incendiada por las hordas rojo-separista en su retirada".

Releí el comunicado, una y otra vez. Toda la historia estaba allí condensada:

"Domingo 14 de abril todos a Gernika".

Casí no dormí en toda la noche.

Así que el lunes, fuí a hablar con Gotzon.

Gotzon era primo-hermano de mi ama, obrero honesto. Yo sabía por mi familia que era de la Resistencia, que había estado detenido y que le habían hecho mear sangre. Calculo que tendría por entonces unos treinta años.

Nada más verle, sin un buenos días, le espeté la consigna, como si él no la supiera.

-Gotzon, el domingo hay que ir a Gernika! Yo quiero ir.

Al escucharme hablar así se sonrió y me contestó:

- Bién, iremos un grupo. Hay que coger el tren de las cinco y media de la mañana y tomarlo en marcha, porque sino, la Guardia Civil nos puede detener en el andén.

El sábado 13 de abril, comuniqué a mi tía mi decisión:

-Tía, mañana es el día de la Patria y voy a ir a Gernika.

-Ni pensarlo -me contestó-, tienes 15 años y la política es para los políticos y para los que comen de ella.

-Tía, yo voy a Gernika -me reafirmé, y así, pensando en que me tenía que levantar a las 4,45, me fuí pronto a la cama. La tía se quedó en la cocina refunfuñando no sé qué cosas sobre los falangistas, requetés y el cabrón de Franco y sobre que ella no me daba permiso para meterme en follones de los que nunca se saca nada limpio.

El domingo señalado me levanté puntual. Era un día típico de abril, hacía fresco y a veces chumisneaba.

La primera sorpresa fué encontrarme dos inmensos bocadillos y una bota de vino sobre la mesa de la cocina, uno de tortilla de patatas y otro de carne con pimientos. Era la forma en la que la tía me daba su apoyo y su permiso. Toda una contraseña.

Salí hacia la estación. ¿Cuántos seríamos? Al llegar ya ví a Gotzon. No nos saludamos "por si aca". Le ví saltar al tren en marcha, y a otros tres más por el rabillo del ojo, yo también salté. Eramos cinco.

Atravesamos las calles del Casco Viejo de Bilbo; me sorprendió la soledad y el ruido que hacíamos con el andar decidido. Nunca había estado allí tan temprano. Llegamos a la estación de Atxuri: el tren para Gernika salía a las siete y media. Tomamos un café con leche y dos bollos en la cantina, había bastante gente en la estación. ¿Cuántos irían a Gernika? ¿Quiénes sería los txakurras? A buen seguro no el grupo de mujeres con niños que hablaban euskara de Bermio. Los mendigoixales de kaiku y

txapela parecían improbables. Todos los demás eran sospechosos, menos los cinco de Balmaseda.

Los vagones de los antiguos trenes vascongados eran de lo más parecido a los vagones de las películas del oeste, así que nos situámos en los balcones de hierro que había entre coche y coche. El tren arrancó. Los mendigoixales empezaron a cantar: "Gernikako arbola...", "Ikusi mendizaleak...." y otras canciones con segundas, en clave de pueblo genotizado. Me pareció que íbamos muchos hacia Gernika.

En Zornotza subio más gente. En el tren no cabía un alfiler.

En el paso a nivel de Autzagane, desde la carretera, los coches nos saludaban; Gernikara, Gernikara! gritaban.

Llegamos a Gernika, sobre las nueve treinta de la mañana; el pueblo se estaba despertando; un jeep de la Guardia Civil atravesaba la plaza semidesierta, así que nos fuimos a la misa de la Casa de Juntas, ya que era el sitio más seguro.

Por aquel entonces yo solo sabía cuatro palabras en Euskara. En la misa una mujer empezó a cantar, no entendí casí nada, pero sus ojos saltaron en lágrimas y yo me contagié.

A la salida de misa ya había gente en la plaza. Los bares estaban abiertos más pronto que de costumbre, para protegernos.

-Kontuz, dokumentazioa eskatzen dabe!

-Kontrolak dagoz!

-Gernika itxita dago.

Nos comunicaban en voz baja desconocidos que se nos cruzaban en la acera.

-Vamos hasta el control -dijo Gotzon-, y los cinco nos dirigimos hacia el primer control, a kilometro y medio de Gernika en dirección a Múgika.

El espectáculo era asombroso. Cientos de personas dejando el coche en las cunetas, ya que no les dejaban pasar, se dirigían hacia Gernika, caminando por las veredas de la carretera.

Paramos al lado del control, y fué cuando les ví venir. Sus siluetas aumentaban descendiendo por un camino de monte desde un grupo de baserris. Un viejo muy viejo y un niño de unos diez años. Llegaron al control. Un txakurra mal encarado les espetó:

- Documentación.

La contestación se me quedó grabada para siempre.

-Yo vivo allí -dijo el viejo señalando su baserri- ¿y tú? - remató.

-No se puede pasar a Gernika sin documentación -contestó el picoleto, desábrido.

El viejo miró a su alrededor. El niño miraba a su bisabuelo. Nos vió y nos preguntó amablemente:

-Euskaldunak zarie?

-Bai - le respondimos.

Tras escuchar nuestra respuesta le dijo a su biznieto.

-Zoaz hoiegaz, ikusi Arbola, zintzo izan eta etortzerakoan ikusitako guztia kontatu.

Así anduvimos con el chaval por un Gernika abarrotado.

Al mediodía una multitud esperaba las doce campanadas delante de la Casa de Juntas. El carillón daría comienzo con las notas del Gernikako Arbola, que todos cantaríamos.

26 años despues del bombardeo, los acusados de quemar Gernika volvíamos a nuestra casa, y los que verdaderamente la arrasaron ponían controles como si fueran los amos de nuestra tierra. El carillón nunca

llegó a a sonar, pero comenzamos a cantar, una voz primero, otras despues y todas las voces al final, y el niño que nos acompañaba cantó muy fuerte.

Bajamos a la plaza y comímos en un bar todo lo que cada uno traíamos de casa, incluidos los bocadillos de la tia.

Regresamos al control. El viejo estaba sentado en una piedra a la orilla de la carretera. Nos saludo agradecido, el niño paso la muga y juntos, despacio despacio, como habían venido, se dirigieron a su baserri. Allí vivían desde siempre, lo que no sé es de dónde vendrían los txakurras del control.

(En homenaje a Iñaxi Zeberio, muerta en Gernika, cuando se encontraba copada. También ella mamó de las raices del árbol que extiende y da sus frutos a todo el mundo, también de ella sabemos dónde vivía, lo que no sabemos es de que mierda de raices maman los que la mataron. Es seguro que no de las del Arbol Santo.)

Xabier Balerdi Ibarguren
1968
Donostia

1992. urtean atxilotu eta espetxeratu zuten

C.P. Herrera de la Mancha
Apdo. 77
13.200 Manzanares (Ciudad Real)

Jon Irri Urdin

Gogoan dut Jon ikusi nuen lehenengo aldi hura. Ez zegoen bakarrik. Beste kide batzuek laguntzen zuten. Nekearen arrastoa nabarmena zen haien aurpegietan. Baina Joni, akiduraz gain, halako poz bat antzematen zitzaion, indar alai moduko bat esango nuke. Hura barruan ezin gorde eta irribarre zabal batean azaleratzen zitzaiona.

Gaizki-ulertu bat medio, ezin izan genuen une hartan lasai hitz egin. Bagenuen aurreko lanik. Sortu zitzaizkigun arazoei irtenbidea bilakatzeko astia baino ez genuen izan. Eta gaitz erdi. Loaldi luzea behar zuen Jonek, baita haren lagunek ere. Apenas egin genizkion hitz batzuk elkarri. Eta loak nola hartzen zuen ikusi nuen ia. Ondo gogoratzen dut, agurtzerakoan, sendo eman geniola elkarri bostekoa. Orduko hartan baino ez genuen halakorik egin.

Handik egun batzuetara topo egin genuen berriro. Hamaika topaketaren lehenengoa. Taberna baterako egin genuen hitzordua. Ohi bezala, pixka bat lehenago ailegatu nintzen. Eta kaletik pauso lasaian nireganantz etortzen ikusi nuen. Atseden luzea, eta beharrezkoa, hartu duenaren aldartea zekarren. Neke arrastorik ez. Eta irribarre hura, ezagutu nueneko bera.

Irribarre natural hura berezkoa zuela konturatu nintzen orduan. Baina, aurrekoan ez bezala, irriaren iturburuaren berri jakin nuen une hartan bertan. Irribarreak, irribarre zabal eta gozo hark, sorburu urdina zuen. Begietan. Begi bizi-bizi haietan. Haien adierazkortasuna! Haietantxe jaio eta ezpainetara hedatzen zitzaion Joni berezko imintzioa. Gripea baino kutsakorrago zen imintzio hura. Atx.

Ondo gogoan dut eta hondo, horrela ikusteak barru-barrutik poztu ninduela. Badira lehen mementotik begietatik sartzen zaizkizun pertsonak eta baita, azal ezin daitekeen era batean, akaso seigarren zentzumen misteriotsu hori tartean dela, lehendabiziko unetik, ezagutzeaz batera erraietan itzala uzten dizkizutenak. Horiek, zer esanik ez, bakanagoak dira. Jon bigarrenez ikusi nuen arratsalde hartan, beste pertsona-klase bat ere

bazegoela jakin nuen: sailkapenaren bi aukerak bere baitan bat eginik biltzen dituena. Horrelakoa baitzen Jon, begietatik sartu eta barruan aztarna uzten zekiena. Kariñoz betetako argia.

Garagardoa eta tabakoa ez ziren biok genituen afizioen artean munta gutxienekoak. Ezingo dugu munta handia esan, baina garrantzitsuak ziren. Zenbat arratsalde trago eta kearen inguruan! Gustura sentitzeko hain gutxi behar genuen. Eta, bestalde, aukera urri beste ezertarako. Ahal genuenarekin ederki moldatzen ginen, ordea. Garagardo-zurrutada bakoitzari, zigarro-atxiki bakoitzari bezala, etekin guztia atera eta solasaldi luzeei ekin. Garagardo hotzaz barrua berotu eta giro ketsu lausoan ideiak argitu. Zenbat ordu hizketan! Aberatsak ginen.

Sublimatzen ari naizela pentsa lezake inork. Bego. Norberak daki memorian duenaren berri eta hauxe esango dut soilik: ez dago sublimatzerik sublime dena.

Batzuetan, esaldi artean bizitzak berak bere burua azaldu nahi duela antzematen da. Jarioaren artetik esanahi berezia duen hitz bat, edo esaldi oso bat igual, itzuriko da. Eta ez entzunarena eginagatik ere, sakonean barneratuta geldituko da informazio txiki hori. Aurrean dugun mintzakidearen zertzelada humanoa. Jon eta bion arteko komunikazioa sendotu zen hitz artean hitz-erdika hitz egiten ikasi genuenean. Zenbaitetan, hitz-erdi batek hitz osoak baino askoz ere gehiago adieraz baitezake.

Mantso-mantso gertatu zen. Urduritasunaren ondorioz, batzutan. Esan nahi eta ezinaren kausaz bestetan. Hitz egiteko eta, batez ere, elkar ulertzeko, bide propioa garatu genuen. Isilpeko akordioa. Adostu gabekoa. Joni atsegin zitzaion. Baita niri ere.

Mugak genituen, hala ere. Lagunen arteko solasaldietan gai zehatz batzuk aipatzerik ez izatea baino etsigarriagorik ez zitzaidan bururatzen artean. Gerora, benetan etsigarriak direnen berri nahi baino hobeto jakingo nuen. Jon galdu genuenean.

Bitxia zen komunikazio hura, bere murritzean. Gai batzuk "debekatuta" daudenean, hitz batzuk, ezinbestean, tabu bilakatzen dira ere. Hitz bakoitza, esan baino, lauskitzen genuen. Sagardogile trebatuenaren antzo. Baina, nahitaez, iragan ezin genuen marrarekin talka egitea ekidinezina zitzaigun. Gazte ginen, gazte... keinuka eta imintzioka hasten ginen orduan, bukatu gabeko esaldia bukatu nahian, isildutakoa adierazi nahian, abaguneak derrigortutako tabu haiei pikutarako txartela eman nahian. Eta keinuetan, hitzetan ez bezala, gordetako sentimendu askoren isla ikusi ohi da, are berorietarako beste biderik ez dagoenean.

Kontsolagarri eskasa zen, eskasa zenez, baina behin ere ez genuen amore eman. Saiatu behar! Ezagutu nuenetik esanahiz beterik zegoela pentsatu nuen Jonen irri urdin hura.

Behinola, kafetegi pinpirin batean tragotan ari ginen egun batez, isileko erabakiari jarraiki adostutako arauetako bat antzarrak ferratzera bidali zuen Jonek. Aitzakia ñimiñoenaren zain beti, sake hari erresto egin nion nik berehala. Galde-erantzun laburra izan zen; haize freskoaren parekoa, aitzitik.

Zer oparituko ote niokeen, bada, neska bati? Ezin izan nion ezer zehatzik esan. Baina ituan ezin denean ahalik eta gertuen saiatzen garenez, bada, ezezagun genuen erantzunerantz hurbildu ginen biok hala edo nola. Neska pixka bat ezagutuko zuenez, lortuko zuela Jonek handik edo hemendik pistaren bat. Lore-sorta ederra irtenbide dotorea zela, nolanahi ere. Zaldiko-maldiko batean bezala jira eta bira ibili ginen gaiaren inguruan, harik eta esan genezakeen guztia esanda zegoela iruditu zitzaigun arte. Zer oparitu zion azkenean? Sekula ez nuen jakin hori.

Aurrera zihoan denbora tai gabe.

Hitzordu ugari izan genuen, gustuko ez genuen giroko tabernatan beti. Betaurrekodun ikasle gazte parea... baina ederto moldatzen genekien, eta edozein giro nazkagarriren baitan parentesia egin eta geure kasa egoteko gai ginen. Erne betiere.

Presak edo urduritasunak edo kezkak jota ikusi nuen Jon behin baino gehiagotan. Irribarre urdin hura behin ere galdu gabe, haatik. Eta egiaren erdia baino ez nuke esango, beste askotan, alai eta pozkor topatu nuela isilduko banu. Bizi-gogoaren paradigma zen Jon.

Hamaika pasadizo konta nezake, zein baino zein bitxiago. Kable bat hortzez ebaki eta zartako elektrikoa jaso zuenekoa bezala, edo ahoa bete euskal pastizaz hizketari ekin eta pastel-apurrak entzuleon gainera solidarioki zipriztindu zituenekoa, kasu. Baina oroipen eskukada bat baino ez dut atxiki memoria-ariketa honetan. Bestela ere, badut nori kontatu hemen ez direnak.

Jon ikusi nuen azkenaurreko egun hartan taula baten gainean nengoen dantzari. Gogoan dut, ondo gogoan, txapel gorria eskaini niola. Jendez mukuru zegoen plaza, Jon hondoan zegoen. Jendetza artean lagun anonimoa. Pentsatu nahi dut zubi moduko bat sortu zela gure begien artean. Pentsatu nahi dut eskaintzaz ohartu zela, horrek poztuko zuela, eta oihuka-txistuka-txaloka eta animuka zebilen jende andanaren zarata artean, eztarritik atera zitzaidan "Aupa Jon!!" ozena entzutera iritsi zela. Badaezpadako pozaz etxeratu nintzen gau hartan.

Handik gutxira, oso gutxira, azken aldiz ikusi nuen. Ez zegoen bakarrik. Beste kide batzuek laguntzen zuten. Jon bai, baina ezagututako irribarrearen itzala baino ez nuen ikusi. Ondo gogoan dut, eta hondo, bai, urdinik ez Jonen begietan.

Eskola batean ikusi nuen azkenekoz. Jon Irri Urdin boluntarioa.

Oskar Barreras
1974
Bilbo

1997. urtean atxilotu eta espetxeratua.

C.P. Castelló
Camino de Pozuelos
16.071 Cuenca

Al mal tiempo, mala cara

Iginio Malaspina acudió a la entrevista de trabajo vestido con sus mejores galas. Serio y con aspecto tranquilo, aguardó turno en una sala de reducido espacio, atestada de jóvenes que optaban al mismo puesto y con el aire viciado por el humo de cigarros que, en histérica sucesión, consumían, nerviosas muchas de las personas aspirantes.

Iginio no fumaba. No tenía en verdad más vicio que la rutina de sentarse cada tarde en un banco de la plaza, a dar de comer a las palomas; así que, pronto, la cantidad de humo que infestaba la estancia comenzó a afectarle, irritándole los ojos.

Su aspecto era ya de por sí gravedoso. Alto y bien formado, intimidaba al acercarse con su rostro ceñudo y serio, solemne, casi diríase enfadado. Su pelo era negro y lo llevaba pulcramente recortado, peinado a un lado. En su pálido rostro, destacaban poderosas unas cejas bien pobladas, rectas, tocantes entre ellas. Bajo éstas, una nariz que cae a plomo. Sus ojos eran grandes y tan negros y brillantes como el pelo, un negro profundo y sin fin. La barbilla ere fuerte, cuadrada, y dos pequeñas orejas se intuían más que verse, escondidas entre el breve pelo, tan pegadas al cráneo que no ere posible distinguirlas mirándole de frente. Y como colofón, en contraste con el blanco y negro general, unos labios, sutiles pero carnosos, magistralmente definidos y de un rosa violáceo. Unos labios que atraían las miradas como imanes la viruta, sin que nadie pudiera decir si era por el cálido encanto que esa boca poseía o por el rechazo inicial que generaba la fría severidad de sus demás facciones. Unos labios que defraudaban a quien de ellos se prendara, pues únicamente separábanse para pronunciar palabras pausadas, tranquilas. Jamás escuchose una risa brotar de ellos, ni siquiera insinuarse una sonrisa.

Iginio Malaspina había recorrido todas las consultas de pediatría de la comarca en su más tierna infancia. Acompañado de su padre y de su madre, fue llevado en procesión de un despacho a otro. Personajes ilustres y mediocres lo estudiaron, realizándole toda clase de pruebas y aná-

lisis; mas no encontraron evidencia médica que explicase la triste seriedad en que la criatura se hallaba de constante sumida.

Cuando se hubieron convencido que tal seriedad en nada afectaba a su salud y que la ciencia nada explicar podía, cambiaron de estrategia sus familiares y, en lugar de buscar el origen de la falta de alegría, decidieron luchar contra ella atacándola de frente: revistas, libros y cine de humor, del mejor, sin reparar en gastos; visitas al circo y a los parques infantiles más renombrados. Hasta un grupo de payasos contrataron en una ocasión para actuar, en exclusiva para él, en el jardín de casa. No obstante su buen hacer y lo extenso de la actuación, los payasos terminaron por marcharse derrotados. Con la vista fija en sus grandes zapatos, negáronse a cobrar por el trabajo realizado pese a lo mucho que sudaron con sus números y cabriolas, ofendidos en su dignidad profesional por haber sido incapaces de arrancar una sola sonrisa a aquella diabólica criatura; quien, sin embargo, asistió absorto a la actuación, con los labios sellados pero con un brillo de deleite en sus ojos de niño que ante todo el mundo pasó inadvertido.

El tiempo transcurría y la persistencia se tornó imperante. Lejos de conseguir arrancar de su hijo una risa o cualquier mueca de alegría, fueron sus mayores asumiendo la situación, viéndose arrastradas poco a poco al mundo de melancolía que el pequeño Iginio proponía. La casa adquirió un algo de monástico. Sumergida en un silencio sepulcral, empleábanse las justas palabras, siempre en tono bajo, cercano al susurro; nada de gritos, música o risas. Cuando alguien visitaba aquella casa, sonrojábase culpable al escuchar el sonido de sus propios pasos sobre la madera pulida.

Así las cosas, no es difícil imaginar que Iginio tuviera una infancia solitaria. Los niños y niñas que llegaban a pisar aquella casa, se resistían a volver, confundidas e intimidadas por el ambiente que allí se respiraba. Intentaron fomentar las visitas organizando fiestas infantiles, pero pronto desistieron. La casa se imponía. Y fuera de ese ambiente claustrofóbico, tampoco resultaba sencillo compartir los juegos con un niño que

hablaba poco y no reía jamás; incapacitado para cualquier muestra de alegría, extraño resultaba verle entre el grupo, incordiando a un anciano que pasea calmoso su bastón, o corriendo mientras competía por un balón, con la misma energía y vigor que el resto, pero con la impresión, el rictus de quien contempla la muerte por vez primera estampado en el rostro. Poco a poco, niñas y niños, con esa cruel sencillez que caracteriza su selección natural, fueron alejándose de él, hasta quedar completamente solo. Empezó entonces a ocupar el tiempo tras las clases, sentado frente al televisor, asistiendo impasible a la programación.

Trató de hacer amistades en su adolescencia y, por qué no, conseguir alguna cita. La extrema palidez, en contraste con el rosa de los labios y el intenso negro del pelo y de los ojos, con su brillo melancólico, le otorgaban una belleza extraña, exótica, resultando atractivo a no pocas personas. Pero Iginio Malaspina pronto vino a descubrir que, en esos primeros momentos en que se traba una amistad o se consigue una cita, jugaba un papel importante, crucial, el humor, el comentario ingenioso, la sonrisa oportuna. Y él carecía de todo eso, por lo que su vida social limitábase al contacto estrictamente necesario con sus compañeras y compañeros en horas lectivas.

Siguió solo en su juventud y la falta de amistades u otras distracciones redundó en beneficio de sus estudios, obteniendo unas calificaciones dignas de mención.

Tras licenciarse en la facultad de periodismo, comenzó inmediatamente a trabajar como becario en la redacción de un periódico.

Pero sus aspiraciones estaban puestas más alto: en la televisión. Soñaba con tener su propio programa de televisión. Su sueño era dirigir un programa íntimo, sin estridencias: un plató a media luz y una mesa en la que poder departir con importantes e ilustres personajes, realizar sagaces entrevistas que fueran después muy comentadas.

Con esto soñaba él, pero con los pies en la tierra. Sabía que para llegar,

primero tenía que entrar. Así que no se lo pensó demasiado cuando oyó lo de la prueba para presentador del parte meteorológico en una cadena de televisión. Se dijo que no daba el tipo para el puesto. Veía a esos presentadores del tiempo cada día en la pantalla, tan joviales, luciendo risueños sus bronceados, y no columbraba cómo podía parecerse a ellos. Difícil lo tenía. Pero aun así había que probar, nada se perdía con hacerlo; presentar el tiempo no estaba entre sus planes iniciales, por lo que un fracaso no tendría por qué suponer una especial decepción y, además, le serviría para ir conociendo la dinámica de las pruebas de selección, el mundo de la televisión.

Cuando por fin le llegó el turno, todo se desarrolló de una forma mecánica, impersonal. Entregáronle una cuartilla con unas pocas frases, extracto del parte de esa misma jornada, disponiendo de apenas treinta segundos para memorizarla. Colocado frente a una cámara y tras declamar brevemente sus datos personales, recitó el contenido de la cuartilla lo mejor que supo.

Al abandonar el edificio, se sintió hondamente defraudado. No sólo no albergaba esperanza alguna de conseguir el trabajo, sino que, en dos horas de asfixiante espera y escasos dos minutos de audición, nada había tenido ocasión de conocer o aprender sobre ese mundo soñado en que él depositaba sus ilusiones y aspiraciones.

Esa noche, sentado frente al televisor en la soledad de su minúsculo cuarto alquilado, acabó por perder toda esperanza de lograr el puesto mientras observaba, indignado, al emperifollado Adonis repetir alguna de las frases que él había memorizado inútilmente horas antes, vaticinando, sin perder la encantadora sonrisa, un tiempo de lo más desapacible para la jornada venidera. Convencido de que en nada se asemejaba él a esa clase de presentador, asumió, con la entereza que le daban los muchos años de rechazos sistemáticos, que el trabajo no sería suyo y que habría de buscar otro camino para alcanzar su gran objetivo. Acostose sereno, en paz consigo mismo, aunque no por ello sin renegar, una noche más, contra aquella sociedad idiotizada, obsesionada con el aspecto físico y

que sobrevaloraba la apariencia de felicidad hasta el extremo de exigir jovialidad a la hora de realizar tan desagradables anuncios ¿Qué había de divertido en una noche con temperaturas bajo cero? ¿qué de alegre en la posibilidad de ventiscas y fuertes nevadas? Y así se durmió, otra noche más, profiriendo silenciosas maldiciones, calmadas imprecaciones convertidas, a fuerza de ser repetidas noche tras noche, año tras año, en efectivo ritual, eficaz reclamo del sueño, como quien reza sus oraciones o recuenta su imaginaria cabaña lanar.

Pasados tres días, recibió Iginio una llamada en la redacción. No disponía de teléfono en el sucio tabuco que habitaba; disponía de casi nada, en realidad: un televisor y poco más: nada de distracciones que le desviasen de su objetivo final. Pasada la alarma inicial al escuchar su nombre de labios de la telefonista de la planta en que trabajaba, no salía de su asombro al descubrir la procedencia de la llamada, sorpresa que no hizo sino aumentar al atender al contenido de la misma. Tras visionar todas las pruebas realizadas por las aspirantes, habíase realizado una pequeña selección de quienes, siempre según su nada humilde criterio profesional, podían tener alguna posibilidad. Resultando estar su nombre entre los elegidos para una segunda prueba más en profundidad, rogábanle, con una seguridad rayana en la prepotencia, se presentara esa misma mañana, en media hora a más tardar, en los estudios del canal en cuestión. Como si a una llamada suya y con sólo mencionar el nombre de la emisora, esperasen que la gente abandonara inmediatamente su quehacer, cualquiera que éste fuera, para echar a correr. Que fue, precisamente, lo que Iginio hizo.

Angelek hori bera uste baeban be, ez eban bat be gustoko izan morroi harek erabili eban tonalidadea... ze eskubide eukan ezezagun harek bere familiari buruzko gorabeheretan sartu ahal izateko?

-¡Pues no! –erantzun eutson jarraian-. Ni lo uno ni lo otro; ni creo que "Gochone" sea más feo que Angeles ni al revés. Son los dos igual de bonitos. Ni tampoco es manía de mi mujer. Lo que pasa es que yo soy español, y ellas, mi señora y mis tres hijas, son vascas. Yo hablo en castellano, y ellas, como es de ley, piensan, hablan y se llaman en vascuence. ¿Algún problema?

-"Horijoketa, Anjel!!" –esan eutson bere buruari Gotzonek.

Ez, ez eban egundo imajinatu horrelako speech jarioren bat bere zaharraren barrenetatik atara izango ahal leitekenik.

Funtzionarioak dana dala, Angeleren aurpegira ezta begiratu eginik be, jarraitu eban tekleatzen.

-Lugar de nacimiento: Orozco, provincia de Vizcaya. Fecha: 30/02/68.

Txerren eta adu txarraren ironiak!! Gotzone mundura jaio zan 1968 bisurteko zezeilaren 29an. Erregsitro Zibileko idazkariak hala ta be, bezperako mozkorraren biharamuna kendu barik edo, zezeilaren 30a idatzi eban jaiotze agirian. Eta 13 urte, 10 hilabete eta hogeita lau egun belua-

go, han ziran, beste burokrata gogaikarri baten aurrean ditxosozko fetxagaz bueltaka.

–Un momento, por favor -eten eutson barriro Angelek funtzionarioari-. Es que hubo un error en la partida de nacimiento. Ella nació un 29 de febrero... era un año bisiesto. El 30 está mal, puesto que ni siendo bisies...
–¡Pero bueno, ya está bien de puntualizaciones! Y qué va a hacer el señor purista si está mal -kendu eutson berba mekanografoak, abotsa zatartuz- ¿Me va a sacar otro documento compulsado y tocapelotas que autorice el cambio?
–No, no creo que sea necesario porque es evidente que no hay 30 de febrero que exista. No pued...
–Pues con evidencias o sin ellas, acá dice 30 de febrero del 68. Y si no hay impreso que lo desdiga, así se va a quedar -esan eban, arazoa amaitutzat emonez, funtzionarioak.
–Pero...
–No hay pero que valga -esan eban eztabaidan parte hartuz, polizia linarestarrak-, ya ha oído bien... aquí dise treinta de febrero y en treinta ze va quedá. Acá zomo' ju'to': ni un dia má, ni un dia meno'. Y ali'eren que me e'tan hasiendo una cola que llega ya ha'ta Baracardo.

Eta hala itzi behar izan eben komisaldegia, Gotzone Guinness liburuan edo National Geographiceko orrialdeetan agertzeko modukoa zen espezimen bitxi bihurtuta: mapetan agertzen ez dan herrian eta egutegitan existitzen ez dan egunean jaiotako kriatura. Angelek ezer gitxi ulertu eikean. Zergaitik peroztu, zergaitik zakartu ete jakozan poliziak? Indokumentazinoa, Inkomunikazionoa, Intolerantzia, Inposizinoa eta "in" aurrizki pribatibo orori darion ondorena zan komisaldegiko kontua. Angelek ulertu ezin ebanak... injustizia eukan izena... eta izana.

Ondo ulertze, txarto ulertze, ezin ulertze, eta sasi guztien gainetik... eta laino guztien azpitik, narraska jabilku bizitza petrala. Zoroa, kapritxosoa, ultramodernoa... anglofonoa: on eta off posizinotara jotzen dauan etengailu tipikoa, interruptore topikoa balitz bezala. Egun batzuk on line jartzen gaitue errezegi, hurrengoek errezago off side itziko gaituelarik. Out, outsi-

der, lehiakide, depredadorearen american way of life liberala da erregea... in... insolidarity, injustiziaren lurraldean. On, egunak joan, off, gauak etorri, out, in... inkomunikatuta, inkonprendituta sentitzen ziraruan Gotzonek etxeratzean belutu jakon zapatu eguerdi hartan. Ama Boise kafetegira, beharrera joanda gero, alabak deskonjelatutako kaneloiak laban sartu eta gelaraino hurreratu zan. Gaileta fabrikatik ailegatzear zan aitarentzat bazkaria prestatu, Boltsako broker-ak baino stressanteagoak ziran ahizta txikerrak, Nagore eta Jule, zaindu... kokoteraino zan bizimodu hartaz Gotzone.

Gelan naretasuna aurkitzen eban gitxienez: Kapera Sixtina, deskonpresino ganbera zan eta berarentzat logela. Horman eskegita zan poster-ari begirakune luzea dedikatu eutson, serorek, santujaleek Pantokratorrari zuzentzen dautsoen debozino, jaurespen begiraden parekoa. Aspalditik eukan gatibatuta Gotzone Zopa Poteak Campbell lata haren irudia, kultura barriaren ikonoa, underground, grunge edota itxuroski desitxuratuen belaunaldiarena. Bat batean konturatu zan gaztea ez ekiala ezer askorik obra magnetizatzailearen egileari buruz... Entziklopedia hartu eban eta bilatzen hasi zan... Warhol, Andy... bai, pop artearen adierazlerik nagusienetako bat... Pittsburghen jaioa... Badaezpada sukaldera joan zan Gotzone, kaneloiak labetik atara eta aluminiozko papera jarri eutsen gainean, hoztu ez eitezan. Ahiztak nasai egozan telebistako marrazki bizidunen eragin hipnotikoaren pean...

Gelan atzera barriro, munduko bola hartu eban oraingoan, lurraren irudikapen esferikoaren bola. Eta Livingstone Doktore eskoziarra bailitzan, geografia ezezagun hareik esploratzeari ekin eutson: atzamarrek Sarah maitalearen bular kilikagarrietan legetxe labain egin eutsoen hotzagoa zan plastikozko azal hartan zehar be. Hatz mamiak erliebe haietan gelditu eta orografia artifizialaz gozatzen ziran, Sarah goxoaren titiburu naturaletan gelditu eta gozatzen ziran legetxe... Bere estasi partikular hartatik atera eban bilaka ebilen uria aurkitzeak... Pittsburgh, irakurri eban... Pennsylvania, Estatu Batuetan. Ohio ibaiaren ibarrean. Eta XIX. Mendeko kolonoek egin eben antzera, mendebalderago eroan ebazan begiak, Laku Handiekaz tupust egin arte. Eire eta Huron lakuen artean Detroit iraku-

rri ahal izan eban... uri itzela emoten eban. Mapa laga eta entziklopediara jo eban barriz, Livingstone galduari bila ebilkion Sir Stanley galestarra bailitzan. Livingstone doktorea ete zaralakoan nago... Eureka! Detroit... Michigan, EEBB... Izenak jatorri frantsesa eukan. Itxasartea zan haren esangura, itxasartea edo kasu hartan lakuen arteko igarobide estua. Detroit... bizitza puta honen kontraesan galantak: kulturaren abangoardia -hango Rennaisance Center-en argazkiari begiradatxu bat emoterik baino ez egoan- iruditu jakon kosmopolis hari "estua" izena emon eutsoen, eta bera, Gotzone Linares morokil jalea, jaio zan munduko sehaskarik ostendu eta ahaztuenari "Zabaleko" ostera. Zein ulertu ezinak izan leitekezan antroponimoak, gentilizioak, toponimoak eta mundua bera bere osotasunean be! Are ulertezinagoak bere kezka "unibertsalak" amaren zalantza "aldeano xinpleen" alboan. Zelan kontau eikion bada Arte Ederrak ikasteko asmoa eukanik, zelan esan gizonezko lagun minik ez zanik, andrazko laguna baizik... Sarah izena eukana. Sarahrenganako, genero femeninoarenganako guraria eriola eta bere sexualitateari. Sarahk, sexu femeninoak asetzen eban eta bere barneko su hori. Zelan hori guztiori kontau, ama bere euskera "modernoa" ulertzeko gai ez bazan be... Hala ta be, gerora modernidadearen pandemiak, minbiziak, ama eroango ebanean, damutuko jakon alabari Bittorigaz gura besteko berbaldirik ez izanarena. Amaren su lama amatatu zanarako Gotzone ezezagun perfektua zan ta harentzat.

Angeleri iges egin eutson telefonoak atzamarren artean, osagileak emazte gaixotuaren diagnostikoaren barri emoteko deitu eutsonean. Ze zapore mingotsa dekon firu telefonikoak tragedia dakaranean: bularreko minbizia, metastasia, eta ulertzen ez ebazan hainbat berba mediku. Eta halatxe, hilabete labur baten buruan Bittorik, Angelen laranja erdiak, linarestar haren munduaren existentziaren erdiak, oxigenoz, tutuz eta morfinaz gainezka labain egin eutson -telefonoak lez- atzamarren artean. Eta gaixotegiko azken terminologia mediku, berba fisiko ulertezinei, senitartekoen, auzokoen, fabrikako beharginen eta abadearen berbontzikeria jarraitu jaken: esperantza, etsipen kristaua... eta ulertzeko gatxak be egiten jakozan hainbat hitz metafisiko gehiago. Out... bizitzaren interruptoreak off adierazi eutson Bittoriri, Angelen azken Victoreia goxoari. In...

injustizia, bai, hau mundu gordin eta injustua!

On, egunak joan, off, gauak etorri... eta halako baten eskuan eukanak -edalontzi batek orduko hartan- irritst egin eutson Angeleri atzamarren artean, laranja erdiak ospa egin eutsonean legetxe, polizia bere etxean goizaldean izan zala jakin ebanean. 90ko bagila hartan, edo Bittoriren osteko 3. urtean -Angelek bere egunak Bittori hil baino aurretiko edo ondorengotan bereizten ebazan eta- ederto jotzen eban eguzkiak. Goizeko txandan zan beharrean gaileta fabrikan aste hartan. Etxetik bostak baino lehen urten eban. Bere Gotzone ez zen gau horretan etxeratu. Fakultateko ikaskideekaz, hippy eta ganorabakoen trouppe haregaz geratuko zan ba, azterketa sasoirako "arte obraren" bat aurkeztearren ziur ondo. Beharlekuan amaitu ondoren, hirurak aldera bueltan zan Angel Bilbo sargoritsuan. Etxera joan baino lehen, betiko lez, Zentro Mantxegotik pasau zan. Betiko baltza eskatu, eta han entzun eban, kamareroaren agotik, nahi irratiak nahi telebistak zabaldu ebela polizia, egunabarra aldera, Angelenean izan zala... Gotzoneren bila ei ebiltzan baina ez eben etxean topatu. Angeleri barriz etorri jakon mundua gainera: lehenengo Bittori, eta orain Gotzonerena... fundamentu gitxiko Bellas Artes edo dalako karrera hori ikasten egoteaz ostean, mutilekaz ibiltzen inoiz ez ikusteaz, eta Sarah neskatila haregaz etxeko ingurumarietan eskutik oratuta -artega askatzen ebezala eskuak Angelen presentziari usaina hartu orduko- ebilela ez ikustearren itsuarena lantzean behin egin beharraz ostean... "Jesus, Maria eta Joxe, beti jan eta beti gose, lesbiana omen izango zen alaba bohemioa?" Bai, hori guztiaz osterantzean proskritoa ei zan be Gotzone. Aitak ulertu ezin eikean gerra horrek erdian harrapatu bide eban alaba. Aitari bardin eutsolako gerrilariak edo terroristak kalifikatzea legez kanpo ziranak. Bera bakarrik bere familiak arduratzen eban... Beno, familiak eta bere Atlético Madrid sakrosantuak, jakina. Bai, mundua arras bidebakoa izan eitekean... baina idealismoarekiko konpromisoa futbol zelaira bakarrik mugatzen eban Angelek. Horrela, hain zuzen, inotsien "El Pupas" bere Atlético kuttunari: Ayala, Leivinha, Pereira, "Panadero" Díaz eta horrelakoak, Robin Locksleykoak izan ziran eta Real Madrid, Gobernuaren kluba, ahalguztidunaren ondoan. Horrela hustutzen ebazan, hain zuzen be, Angelek bere fobiak, bere ezintasunak, jendarte injus-

tuarenganako amorrua: futbol epailea eta haren zuhaitz genealogikoaren aurka, koltxoneroen partidu bakotxean. On... Aleti forever, you' ll never walk alone. Eta hurrengo astelehenean fabrikan, enkargatua aurrez aurre izan orduko, dan danari esango eutson men... amen... off.

Bai, Angel arean be larritzen ez eban laberinto ulergatxak Gotzone harrapatu eban bete betean. Baina oraingo honetan ezin eban haizeratu, ez, bere betiko esakuntza: "Zerbait egingo ote zuen horrek, polizia bere atzetik izateko..." Ez, oraingoan bere odolekoa zan balizko gaizkina... eta bere Gotzonek ez eban merezi -ezelan be, erruduna izango balitz behorrenbesteko lintxamendu mediatikorik... Ez, bere Gotzonek ez sikeran... ezta -ondo minduta sentitu zuen- gainerako guztiek be, beharbada.

Dana dala, "zer galduko ote zitzaion bataila haietan txoriburu horri?" Angelek zentro erregionaletik urten eban eta etxera igo zan di-da baten: Atila eta haren hunoak pasatu izana irudian. Bikiak, Jule eta Nagore, ondoko pisuan egozan, etxekoneko Maiteren jagoletzan. "Eta Gotzone, non? ...noiz? ...zergatik?

Naturala danez egunek on, gauek off egiten jarraitu eben. Naturala danez laprastadez betetako bizitza desnaturalean osterabe egin eutson laprast zer edo zerk Angleri. Koilarak oraingoan, eguazten bateko afari baten. Bittoriren osteko zortzigarren urtea zan, Gotzoneren exodotik bostgarrena. Angelen egunak azkenez une gomutagarri horreik markatzen ebezan. Telediarioko aurkezleak alabaren izena agoskatu baizen arin irrist egin eutson hatzen artean koilara zoperoak, zeinak mahaiaren kontra errebokatu eta gero, alfonbarn behegaineratu zan.

Hirugarren biderrez, iges egiten eutsola barren munduak edo mundua etorkiola gainera. "Gotzone Linares... ustezko terrorista, 90etik bila eta atxilotzeko agindupean... detenitua izan zen atzo Toronton (Kanada)... 115, Lake Street eta 721, Winnemucca Boulevarden arteko building batean..." Toronto, non arraio zegoen hori? Nagore eta Jule, txikerretan marrazki bizidunekaz jazotzen jaken lez, telebistatik adimena kendu ezinik ebiltzan, ahizta nagusiari buruzko albisteagaz azken honetan. Aita altxatu

eta munduko bola kontsultatzera joan zan, zarraparra, lehen Gotzone eta gerora Juleren gela bihurtu zanara: Kanada... Kanada... Toronto! ...aurkitu eban azkenez. Ontaro lakuaren ertzean egoan, Laku Handietako eskualdean. Lakuen inguruan bertan Cleveland, Milwakee, Chicago... Detroit... eta antzeko uriekaz be topo egin zalarik. Hori bai muga urrutia, urrutiegia, alabak aurkitu ebana! West-a, Amerika... "demonio, nere neskatxarekin!"

Goibela, ospela zen Kanadako seguridade handiko espetxe federal ha be, espetxe oro dan lez. Batzutan astiro astiro emoten dauz Gotzonek hormatzarren artean kabitzen diran urrats urriak, denbora soberan izango baleu lez. Eta beste askotan arinari emonez dabil patioan karraka, buelta ta bueltaka, denbora faltan izango baleu lez..."Zelan egongo ziran aita eta ahiztak? Zelan... non zara, Sarah?"

Angel ikasia zan ordurako Zentro Mantxego eta Etxe Jienenseaz aparteko tabernataz, bestelako giroaz gozatzen. Arrazoia eukien, zer arraio, alabek eta Sarahk: lehenengoa, logikoa zanez, norberaren sustraiak ziran, gaztelau zahar batek egundo ezin izango eban ahaztu Gartzela Barria... eta Mantxa, zer esanik ez dago be! Baina ardiek bazkan diran larredikoak izaten amaitzen dabenez, zer edo zelako esker ona zor eutson bere iparreko mugari, Euskal Herri arraro horreri. Bai, Nagorek inoanez, azken baten aita, bera, Euskal Alcarriako herritarra zen. Udan, aurrezki kutxan ebazan ogerleko apurrak atara eta Atlantikoz haraindiko Kanada horretara joango ziran, Gotzone behingoz ikustera.

Eta oraindino ez ekiala, oraindino ezin ebala ulertu zelan deabru hasi zan gaueskolan helduentzako euskerazko klaseak hartzen. Baleiteke Gotzoneri -berari bisitan joango jakozan uda hartan- aitaren agotik entzun ahal eizan lehen berbak euskerazkoak izatea eskeini gura eutsolako... baleiteke Zabalekori, Bilbori, Bittoriri, eta bazka emoten eutson bedardi euskaldunari aspalditik bueltatu behar eutsen zorra legez sentitzen ebalako edo. Batek daki! Harritu egin eben Angel bere sentimentu eta sentsazino barriek: Rediós! Bere familiaz, bere Aleti Madrilez haratago ziran arazoekaz kezkatzea be posiblea zan eta.

96ko udan, Bittoriren ondorengo bederatzigarren urtean, Gotzoneren osteko seigarrenean -six, six, six, the number of the beast-, alkar ikusi ahal izan eben -azkenean be!- Gotzonek, Angelek eta gainerako familiak. "Zein ederra dagoen!", iruditu jakon zalantza izpi bagarik Angeleri. Zurbila baina enkantuz beteta... ule laburra joanean lagatako estetika ei zan... "ai, Bittorik ikusi ahal badeza alabaren adats horail luzea!", jarraitu eban aitak bere baitan. Gotzoneren begirada urduri zan, presondegi federaleko lokutorio kadengarrian, batengandik bestearengana saltoka: emakumetuak ikusi ebazan umeak lez gomutatzen ebazan ahiztak... ai Sarah, beti baizen era-kargarria, begi berde, ule beilegi eta bazala hamar bat urte oparitu eutso-zan arrakadekaz... Eta aita... zahartua ikusi eban Angel ostera.

–Kaixo "Gotxone"! Zer moduz, ongi al zaude alaba?

Aitari euskeraz egiten entzuteak ikutu ebazan Gotzoneren barrenak... "amak entzun ahal badagi!" ...eta instanteek segundu, segunduek minutu, eta azken honeik ordu emoten daben horreitako lapsus baten geratu ziran aita eta alaba, alaba eta aita, bata bestearen begietan untzetuta... Zein goxoa litzateke Amerika, West-a baino sartalderago mugaren bat existitzea... zein atsegina, txori migrariek V bat egiten dabenean lez, lati-tude deskubritu bakotarantz abiatu ahal izatea... zein pozarren legokez, bai, inor inoiz bila ibiliko ez jaken territorio baten egongo balitzaz. Zein zorionekoa inork sekulasanta aurkitu ahal izango ez ebazan mugaren batean egotea!

Kronika honetan halan ta be, hegazti euskaldunetaz gagotzuez, eta danontzat jakina danez, ez dago V-rik euskal lagi zaharreko alfabetoan. Zein zoragarria litzateke dana dala, kaiolak, infernuak, betiko atzean itziko leukezan txori edo aingeruen hegaladirik, migraziorik balego... zelango zoramena aire zabalean, zerupe libre eta biluzian on, off side, in-justizia, in-solidaritate, in & out zarratu guztiak erretzerik, birrintzerik... ezerezte-rik baldin balego!

Manu Azkarate Ramos
1963
Tolosa

1986. urtean atxilotu eta espetxeratu zuten eta 1992. urtean, bere osasun egoera larriagatik libre utzi. 2004. urtearen hasieran, mendeku politika zela medio, berriz espetxeratu zuten. Egun, baldintzapeko askatasunean aurkitzen da.

LA REME : Una Menguele cualquiera

Es ella, Remedios, actual subdirectora médica de la prisión de Alcalá-Meco, la máxima autoridad sanitaria dentro de este recinto. La Reme, mujer esquiva donde las haya. Rehuye dar la cara y acostumbra a mover sus hilos desde la sombra. Se dice de ella que algo tiene que ver con Antonia, la madre de Manolo Peralta, el ordenanza (léase «machaca») de esta «Enfermería» de Cumplimiento.

Manolo, el machaca por excelencia, es la persona impuesta por la Reme para supervisar este departamento. Su hombre de confianza. Un narcotraficante, a su vez hijo de una de las grandes distribuidoras de coca y caballo en Alcalá de Henares. Mujer en activo, como el hijo, durante los permisos que va pillando gracias al sinfín de hojas meritorias que acumula, o que «observa buena conducta», o que «se halla plenamente preparado para su reinserción en la sociedad» y gracias a no sé cuántas milongas más. Toda una joya el hijo de la Antonia

Al lado de Peralta, el skin Lucas. Lucas, el tonto útil de la historia es un personaje cinematográfico. De esos que si uno no lo conociera en primera persona, pensaría que sólo existen en las películas. Es el prototipo de macarra, de chulo de barrio; pequeño de estatura física (quizá por ello anda siempre de puntillas?) y menor aún de estatura mental. Un encefalograma plano que no sabe lo que es hablar normal: sólo chilla, berrea? Un lleno de complejos que pareciera buscar consuelo con su bravuconería patológica. Hombre de gimnasio (¿u hombre para el gimnasio?) que le gusta marcar musculitos hasta la ridiculez: hasta para servir la comida con el cazo tiene que inclinar el brazo 90 grados.

Lucas, cabeza cuadrado, se enorgullece de su xenofobia. Con un curriculum consistente en matar a un negro y malherir a otro (por eso, por ser negros), este ultrasur acérrimo odia por igual a un negro, a un árabe, a un gay, a un gitano que a un vasco, y arremete contra ellos verbal o físicamente tan pronto como puede, a sabiendas de que tiene las espaldas bien cubiertas, y que en un apuro ya vendrán los carceleros a sacarle las castañas del fuego, como ha ocurrido en alguna ocasión. Que pre-

sume de la SS que lleva tatuadas en su espalda y pasea sólo por la sombra porque no quiere que su piel blanca se oscurezca. Como suena.

Pues bien, este individuo, uno de los agresores de Pepe Rei cuando permaneció en esta prisión, es junto con Revuelta,el otro hombre de la Reme de esta enfermería. Un tonto, sí, pero un tonto peligroso.

Y, entre los tres, bajo la tutela de la dirección, deciden nuestras vidas (por decir algo) dentro de estos muros de enfermería. Deciden a quién se le da el alta y a quién no. Siempre priorizando las cuestiones reglamentales sobre las estrictamente higiénico-sanitarias. Así, por ejemplo, se traslada el 11-M a un preso social solidario porque está sometido «a malas influencias» mientras amenazan al resto con mandarles al módulo o con las 7 plagas de Egipto si siguen hablando con el vasco.

O hablan y deciden entre ellos, antes de que lo haga la Junta de Tratamiento, que el vasco no se haga ilusiones, que no va a salir a la calle. Y dejan de servirme la comida para que lo haga yo, relegándome al último lugar y siempre y cuando al machaca le parezca, queriendo humillarme con ello. Y cambian de actitud cuando perciben que lo único que logran es hacerme un favor, que para el hijo de la Sagrario, la comadrona, más que una deshonra es todo un honor que un skin no le sirva la comida.

La Reme, junto con algún carcelero, es quien incita, empuja (¿dirige?) a sus machacas fielecillos para «darle una paliza al vasco» el 11-M. Pero luego, ellos, por si acaso, incitan al conjunto de presos sociales que, como en la clandestinidad, se ven obligados a tejer una red de solidaridad que me permite sentirme más arropado que nunca.

Son ello los chivatos, los comemierda, los correveidile de los carceleros. Los que hacen sus trabajos sucios, incluido el de pegar palizas. Los que lo vendieron todo por unos días de permiso, una libertad condicional adelantada o simplemente el visto bueno para su trapitxeo. Y enfrente, nosotros, los presos con mayúsculas. Presos muy enfermos, presos locos o en fase terminal.

Ayer se suicidó uno. Quedamos en vernos algún día, en otras circunstancias, donde no exista ninguna Reme en ninguna prisión de Alcalá ni de Irak, donde Auschwitz y Mengele sólo formen parte de un mal sueño.
-

(Gara 2004.06.03)

Olatz Caminos Uribe
1977
Bilbo

2000. urtean atxilotu eta espetxeratu zuten

C.P. Alacant
Apdo. 5050
03.71 Alacant

Bakarlekuko bakarrizketa

Presoa zelda bazterrean,
bakarrik mintzatzen bezala.
Baina ez,armiarma bati
galdetzen dio "Noiz arte?"
J. Sarrionandia

Lehenengo agerraldia (eta bakarra)

(Euskal preso politiko bat bere ziegan. Ziega oso zaharkituta eta herdoilduta dago. Inork ez luke esango duela hogeita bost bat urte igeltsero batzuek ezerezetik altxatu eta formatu zutenetik, Amalurra bera baino zaharragoa baitirudi, munduaren sorreratik bertatik zuhaitzak eta hodeiak eta ziegak existituko balira bezala. Argi bakarra 40 watt soil dituen bonbilla bat, sabaian bertan, goialdean. Bonbillak argi horixka, kutsatua barreiatzen du ziegan zehar. Ziegako mahai gainean –leku pribilegiatuan- flexo bat.

Presoa isolamenduan dago eta egunean hogei ordu ematen ditu ziegan. Leihotik sartzen den argia da orduen joanaz ohartarazten duen elementu bakarrenetakoa. Eszenografiak mugatuta, fokuak erabiliko dira eguna eta gaua simulatzeko. Gauean ezin da ilargi-gaztarik proiektatu, leihotik ikusten den zeru zatian ilargia inoiz ez baita ageri. Ziegan ohe bat ere badago, lurrean iltzatuta; ezin da mugitu. Konketa eta komuna higatuta daude eta komun publikoetako ohiko zabarkeria dute agerian, behin eta berriro garbitu arren atondu ezin daitekeena. Atea bikoitza da; ohiko ateaz kangrejua edo kantzela ere badu, burdinazko langez osatutako bigarren ate bat.

Presoa emakumezkoa da. Ez du axola ile urdinak dituen edo gaztea denentz, nafarra edo bizkaitarra den, ilehoria edo beltzarana; emakumea da eta giltzaperatua dago. Zahar zein gazte, gogoz kontra dago ziegan eta egunero bizitza sortzen du ezerezean.

Ziega da eszenatoki bakarra antzezlan osoan zehar. Presoaren beraren jarduna da orduek aurrera egiten dutenaren seinalerik garbiena. Eszenatokia

nekagarria da, zaharra, astuna, iluna, ez du interesik. Hamar minutu igaro direnerako ikusleak nekatuta egon behar du ikusten duenaz. Interesa duen bakarra emakumea da; berotasuna ematen dio inguruneari. Ikusleak galdetu behar dio bere buruari nola egiten duen emakumeak hogei orduz alaitasuna, itxaropena, interesa bizirik mantentzeko, maitasuna ereiteko, edertasuna sortzeko.

Emakumeak publikoari hitz egiten dio zuzenean, aurrez aurre. Ez dago bitartekaririk presoaren eta une batez, estreinako eta azkeneko aldiz, ziegakide dituen ikusleen artean.)

Presoa.- Arratsaldeon denoi. Atzean zutik zaudetenok, arren, pasa zaitezte aurrealdean hutsik dauden butaketara, neronek esango dizuet lekua non daukazuen, aretozainak greban daude eta. Gutxi kobratzen dute; badakizue halako lanak oso esker txarrekoak dira. Itzali mugikorrak, hori bai. Ez dut ezer teknologia berrien kontra, baina telefonoak ziega batean joko balu, hotsa lekuz kanpo legoke. Txakur-zaunkak, itsuentzako semaforoen txorrotxioak eta eliz dorreko orduroko kanpaien oihartzuna ere burmuineko zoko galduetan ditugu gordeta, memoriaren zirrikituetan itsatsita, baina ziega batean ez dute izate propiorik gugandik at. Barkatuko didazue lotsagabekeria, egokitasunaren, literaturaren eta batez ere teatroaren legeak hain muturluze haustea, alegia. Pertsonaia beharko nuke izan, egoki jantzi eta makilatu eta antzezle-papera egin. Baina, izan ere, lege zentzubakoak urratzeagatik nago hemen eta badakizue ohitura errotuak kentzea zein zaila den, lelokeria berdinak behin eta berriro egiten baino ez dakigu. Aspertzen bazarete, ez dizuet leporatuko, ni neu ere sarritan gogaitzen bainaiz uneoro paisaia bera ikusteaz, katilua betiko lekuan, kaseta metro erdi ezkerretara, komuna ohetik metro eta erdira, zarama-poltsa liburuen ondoan. Patioa eguneroko egunerokotasunean, batzuetan ohiko baino garbiago. Alabaina, istorioan gehiegi barneratzea ere ez zaizue komeni, egidazue kasu. Antzezpen bakoitzaren buruan ikusle frankok ez du aretotik irten nahi izaten, enpatiagatik edo. Azkenerako aretozaina etorri behar izaten da eta ikuslea amarruren baten bidez aterarazi: dela sute imajinarioren bat, dela kotxea osten ari zaizkiola aparkalekuan, dela emaztea erditzen ari zaiola. Horrexegatik diot, hain zuzen ere.
Baina barka iezadazue berriro, ez dut asko luzatu nahi, ez gaitezen hitzau-

rre potoloetan galdu. Jarrai dezagun eta goazen harira, antzerkia antzerki denetik funtzioak aurrera egin behar baitu.

Kartzelan gaudela aitatu ote dizuet? Edozein hiri zein eskualde galdutako espetxe batean. Eta kartzelan eguna ez da egun, borroka bat da. Goizean goiz esnatzen naizenean lehenengo datorkidan sentimendua tristura da, dolua, oinazea, larritasuna. Zerk sortzen didan ez dakit. Gauean, loak hartu baino lehen, agur esaten diet sentimendu okerrei, esaten diet "zoazte, ez itzuli", nire buruari esaten diot bihar beste egun bat izango dela, ezer ez dagoela erabakita, munduak gu harritzeko gaitasun mugagabea duela. Baina begiak ireki bezain pronto ohartzen naiz sentimendu garratzak ez direla joan, betikotu egin direla, entzungor egiten didatela. Begi bat ireki eta pospolo-kutxan esnatzen naiz, lurpeko hilkutxan. Izan ere, aterik zabaldu ezin eta bada hilobi estuagorik? Bizirik lurperatzen gaituzte eta hamar pare zangok indarrez zanpatzen duten lur berria gaineratzen digute egunero. Estaltzen gaituen lurra kendu ahala berriro jaurtikitzen digute, pultsu amaigabe bezain nekagarrian. Goizean goiz begi bat ireki eta dena dago estu, jaurtikitako lur berriaren zapore mikatza ezpainetan, lurraren usain heze eta sarkorra sudurzuloetan barrena. Mugitu beharrean hasten naiz, harramazka, lur ongarrituari haginka, harea azazkal beltzetan, ubeldurak ukondo eta belaunetan, zauriak oin puntetan, estalduraren kontra borrokan, airea hartzeko ahaleginean, etsi-etsian. Lurrazaleko haize garbia dut helburu nekagarri, behin eta berriro, egunez egun, urtaroz urtaro, beti egun berdina errepikatzen ariko balitz bezala, denborak aurrera egingo ez balu bezala. Uneoro norberaren burua defendatzen egon beharra baino eginbehar neketsuagorik ez dago, zin dagizuet.

Bizirik lurperatzen gaituzte mamuen eta zizareen bazka bilakatu gaitezen. Eskuak zimurtzen ari zaizkit, konkortzen ari dira, itsusten. Arintasuna galdu dute; ez dakite maitatzen, ez dakite maitearen azalean behera irristatzen, maitearen larruazalaren zirrarak sentitzen, harri bilakatzen ari dira. Ezpainak lehortzen eta pitzatzen ari zaizkit, musu hezeen egarri. Nire bularrek eta sabelak oparotasuna galdu dute, logelako argi-itzalean erakutsitako behinolako plazer-dardarak ahaztuta dituzte aspaldi. Zimeltzen ari naiz, baina ez dute uzten maitatzen gauean. Eguzkia gurpil ahul bat da eta arrasto sako-

nak uzten ditu airean, arrakala mingarriak bitsezko hodeietan. Astiro egiten du ibilbidea, eta nekatzen denean atseden hartzen du kaminoan, zain dituenen amorraziorako. Ziegan ispilu lizundu bat dago, baina ez diot inoiz hurbiletik begiratzen, itzultzen didan irudiak izutu egiten nauelako. Arrotz hirotu bat leiho batetik begira dudala iruditzen zait, eta arrotz horrek begizuloak ditu zizelkatuta eta sufrimenduaren eta bakardade suntsigarriaren arrastoa begi-ninietan. Arima gorputzetik at sentitzen dut, ziegatik noraezean hegaldaka ibiliko balitz bezala eta ispilura begiratzean harekin bat egingo banu legez. Arima hegalariak gorputza beste norbaitena bailitzan arakatzen, begiratzen dit, sabai urrunetik, eta hauskortasuna dakusa, ziega bat eta funanbulisten gisan soka mehe baten gainean orekari ozta-ozta eusten dion emakume bat. Dena kendu nahi didate, neure gorputza ere ostu nahian dabiltza. Arima gorputzari atxikitzen saiatzen naiz temati.

Irratia piztu eta sintonia atsegina bilatzen dut, musika onaren notak entzun arte, eta dantzari ekiten diot, bizitzari indar guztiekin deitzen diodan bitartean. Gorputzaren mugimendu leunak leihoko kristalean islatzen dira, olatuen gisara, eta aireak gozatzen ditu antzina begi desiragarriren batek dastatzen zituen soin-itzalak. Ene begiek ez dute malko isuritzeko gogorik, negarrik ez egiteko, egiteko bezainbat arrazoi sakon badagoelako. Haurra nintzenean ikasi nuen hori, gogokoen nuen liburu eder batean. Liburu burutsu hartako protagonistak negar egiten zuen erremolatxa jatean, malko larroxkak isurita. Ume hark atsegin zuen malkoen zapore gazia, eta negar-oldea hasten zenean, malkoak flasko txiki batean hartzen saiatzen zen, gerora gordeta izateko. Baina lanean hasi bezain pronto, negarra zapuzten zitzaion, nahikoa delako asmo, gogo, amets edo arrazoi soil bat, deuseza izan arren, dolua desagerrarazten laguntzeko. Ezin dizuet gezurrik esan, baina. Egiazki nire begiek negar egiteko gogo bizia dute askotan, egunero ez esatearren, nahiz eta eguneko une txiki, oharkabe, ia ziztrin batean izan. Baina ezin dute negarrik egin, malko tanta potoloak isurtzea mundu honetako gauzarik zailenetako bat delako, barre egitea bezainbeste edo are gehiago. Malkoak, mina sakonegia denean, fosildu egiten baitira, gogortu, txingortu eta ez dira ageri. Buruan lekutzen dira eta beldur dira irteteko, behin irteten hasiz gero, agian uholdea geldigaitza litzatekeelako. Negarrak ur-azpiko sonata isilaren musikarekin gauzatzen dira, haurren garrasietatik arrunt desberdin, min

gorraren soinuarekin. Batzuetan begiak gogor-gogor itxi eta negar egiten saiatzen naiz, barrenak askatzeko beharrean, komunean banengo bezalako aurpegia ipinita. Baina alferrik ibiltzen naiz, malkoak ez baitira horrela irteten, barneko tekla berezi bezain mirakulutsu bat ikututa baizik. Halakoetan senak aurpegiera inozoari nolabaiteko etekina ateratzera bultzatzen nau, ispilura begiratu eta norberaren dramatismo patetikoaren lepotik barre pixka bat egiteko, besterik ez bada ere. Baina hura ere ezin; bat-bateko barre algarek oihartzun egiten dute lau pareta mutuen artean eta Jocker maniatiko baten irudia datorkit gogora.

Kartzelan eguna ez da egun, borroka bat da. Haatik, garrantzitsuena ez da borrokan ari naizela ohartzea, zeren edo noren kontra ari naizen baizik. Etsairik ez da kasik ageri, ez du gorputz definiturik, egunean zehar ia inor ez baitut ikusten. Bakardadea dago, isiltasuna dago, hormatzarrak daude, baina harresien kontra borrokatzea ez da metafora huts bat baino gehiago. Isiltasuna dago, baina ez dut jasaten, asaldatu egiten nau. Nire arnasahotsak ikaratzen nau eta esku-erlojuaren tiki-takak segunduroko mailukada ozena dirudi nire belarrietan. Oihu bat entzuten da urrunean, eta nor edo nor niri deika ari zidala iruditzen zait, neure izena argi bezain ozen ahoskatuta. Ez dakit garrasia nondik irten den, baina nigana datorrela dirudi eta izutu egiten nau. Azkenean ez da niretzat, ahotsaren jabe ezezagun bezain arrotzak ez nau inondik eta inora ezagutzen, ezta ikusten ere. Irudipenen menpe ote nagoen pentsatzen dut aztoratuta. Isiltasun beldurgarriari ihesi nabil uneoro; goizean irratia pizten dut esnatu bezain pronto, egun osoan zehar musika dago jarrita, eta gauean telebistako ahots nardagarri eta gogaikarrien beso zikinetan hartzen nau loak. Gaualdian telebistak argia ematen du, itsasargiek untziei bezala.

Egunean hogei orduz mundu fisikoak 15 m^2 neurtzen duenean eta esparru horretan norbera baino ez dagoenean, zein helburu du espetxeak suntsipen fisiko eta psikologikoa ez bada? Arras gaitza zait nigandik at irtetea, nire hitz-jario, nire bakarrizketa, nire pentsamendu, nire ahots, nire zirkulutik irtetea. Ez dezadan gehiago entzun, begiratu, ez pentsatu, harriak legez izan nahi dut; burua atsedenaren premia larrian daukat. Nire nia baino ez dut konpainia gisa, esku hauek, gorputz hau, eta neure burmuina. Ez dut

bakardadea jasaten, konpartitu nahi dut, hitz egin, eman eta jaso, hunkitu, entzun eta begiratu, ikutu, laztandu eta maitatu. Eldarnioa eta Eromena egunero hurbiltzen zaizkit ziegara, eskutik elkar helduta, irribarre gaiztoa ezpainetan. Beti ordu berean iristeko ohitura hartu dute, arratsalde partean. Ate joka hasten zaizkit batzuetan, burrunba lotsagarria eginda; besteetan buru zekenak leihotik erakusten dizkidate, mehatxu antzean. Hasieran oihuka uxatzen nituen, ikara eta izuaren menpe. Denetarikoak esan dizkiet aldendu daitezen, hemen ez zaiela ezer galdu, alegia, beste nonbait bilatzeko. Edonola zuzendu natzaie, hitz onekin, desesperazioak jota, erreguka, birao artean. Baina indartsuak dira eta haien etxean nago, haien besoetan kulunka. Neu eta neu bezalakoak nahi gaituztela esaten didate, beste batzuek bidea zabaltzen dietelako. Isiltasun eta bakardade estuaren lurretan ereindako haziak dira.

Itzalak handitzen ari dira, gaua iristear dago; azken zenbaketaren ondoren ez dabil inor korridoreetan. Zarata, musika eta ahotsak itzaltzen joango dira apurka, eta noizean behin isiltasuna urratzen duen oihu, intziri edo negarzotin bat baino ez da adituko. Mamuen eta ikaren orduak hasten dira orain, ez baikara ezer, ilunbetan higatzen diren haur izuak besterik. Loari etortzeko erregutuko diogu, gau sakonean abandona ez gaitzan, kezken eta atsekabeen esku utzita.

Pixkanaka aretoa husten joan beharko duzue, hemen amaitzen baita gure denbora. Bidaide izateari utziko diogu, nahiz eta agian leku berdinerantz abiatzen garen, hegazti eta ugaztun migratzaileek lurralde epeletara iristeko bide ezberdinak hautatzen dituzten bezala. Eguzkiak berotutako udalurretan aurkituko dugu elkar berriro.

Istorio hau idazten ibili nazen bitartean, zure heriotza jasan behar izan dogu. Horregaitik eskaintzen dotsut, Iñaki, zeuk baino hobeto inork ez dauelako jakingo utzi doskuzun hutsunea eta barru-itsaskia mosu banagaz zelan baretu.

Naiara Mallabia Sanchez
1982
Bilbo

2003. urtean atxilotu eta espetxeratu zuten

C.P. Madrid V (Soto del Real)
Carretera Comarcal 611
28.791 Soto del Real (Madrid)

Y si la tristeza me hace suya
y los recuerdos mueren en el olvido,
y si la luz da oscuridad
y los sueños no despiertan jamás,
y si mi mirada se va apagando
y mi sonrisa ha cambiado
y ya no soy la misma,
ni parecida.
Y si nos alejamos en la distancia
sin saber si volveremos
o si sabremos regresar.
Y si no hablo con la luna
ni me despierta el sol.
Y si el mañana me da miedo
y el presente no lo vivo,
ni lo respiro.
Y si este es mi último grito
que nadie puede escuchar.
Grito contra el silencio
que nos hace callar.
Grito contra el enemigo,
que no me pudo arrodillar.
Grito contra la distancia
y algún día se escuchará.
Grito contra la muerte
porque nada me pudo jamás,
pero si se apaga mi mirada
habré dejado de luchar
y entonces ella me podrá,
me podrá llevar.

- Bihotzez Oihane Errazkini.

Leihoa ireki eta
gaueko bakardadea
ozen arnasten dut
txaboloan bakarrik.
Zeru atzerritarrean
izarren bila nabil,
non daude?
non gaude?
Ez ditut aurkitzen,
ez naiz aurkitzen.
Malkoak errealitatean
isurtzen dira
itxaropenaren bila.
Oroitzapenak politak dira
baina gogoratzea hain tristea da.
Zuen faltak mina ematen du
eta denborak itzulirik ez du
Goizaldeko haizea
marmarka ari da
eta zuen hitz mutuak
nire bihotzera heldu dira.
Egunsentiak marrazten du
nire irribarrea eta
zuen argi izpiak dira
gogoratzen nautenak
askatasun bidean
elkarrekin gaudela.

- Bihotza eskuetan isilik eta beti ausart elkarrekin beti aurrera.
Maite zaituztet.

Ahí estás al otro lado.
Tu voz rompe el silencio
de la distancia,
mi mirada se enciende
y mi sonrisa vuelve,
te escucho tan cerca
que mi corazón se acelera.
Mi mirada se pierde
imaginándote.
Imaginando cruzar
una mirada.
Imaginando un abrazo
que nunca acabe.
Intento guardar tu voz
de aquellos que nos separan.
"Corte la llamada",
mi voz flojea y
mi sonrisa se acaba
cuando el silencio la apaga
y la distancia nos separa.
En silencio guardo tu voz
hasta el próximo mes,
hasta la próxima llamada.
Eutsi gogor eta ez ahaztu:
asko, izugarri maite zaitut.

-

Unairi.

Me busco y no me encuentro
entre estas cuatro paredes
que no asustan pero te pierden
en la locura de la cordura,
en la soledad entre la gente,
en los sueños
en los que no duermes.
No escucho mi voz y
mi mirada se está ahogando,
mi corazón no suena,
las paredes no le dejan.
No escuchan
estas cuatro paredes,
ni nada entienden y
la luz oscurecen.
He encontrado una esquina
entre estas cuatro paredes
que nadie ha buscado
y yo he encontrado.
Es una esquina
que no se puede doblar.
Te lleva lejos
sin poder moverte.
No es una esquina cualquiera
Ella es única y diferente,
me escucha y me entiende.
En ella puedo soñar
acostada en la realidad.
Es una esquina
que no levanta sospechas,
parece vacía y
dentro te llena.
En ella me escondo
y nadie me encuentra.

Amo a este esquina
que me hace llorar
y reír otras veces.
Cuando me apago
ella me enciende.
Cuando estoy en ella
me siento diferente.
Puedo escapar de
estas cuatro paredes.
Euskal Herria,
le puse de nombre
Estando presa
ella me hace libre
Es única y diferente
Es mi esquina
entre estas cuatro paredes.

- Para Aizeti. Cuando te he buscado me has encontrado tú. Maite Zaitut.

Sergio García Razkin
1971
Donostia

1991. urtean atxilotu eta espetxeratu zuten

C.P. Alcazar de San Juan
13.600 Ciudad Real

Epailearen aurrean

"Epailearen ahots harroa, aitatiarra bihurtu zenean, hautsi zen areto hartako aspaldiko ixiltasuna:

- "Escúcheme joven, lo peor para usted ya ha pasado y no tiene sentido prolongar esta situación... declare de una vez y terminemos con esto" - amaitu zuen epaileak.

- "De acuerdo" -bota zuen bapatean atxilo gazteak-, "de acuerdo, voy a confesar toda la verdad" -farfailatu zuen zailtasunez bere ahots torturatuarekin-, "asumo todas y cada una de las acusaciones que se me hacen en el atestado policial" -jarraitu zuen, epailearen begiak handitzen ziren bitartean -, "pero hay mucho más".

-"Adelante pues" -animatu zion epaileak, doinu iradokitzaile batez, alboan idazkariaren behatzak teklen aurrean erasorako prestatzen ziren bitartean.

- "Mi bautismo de fuego comezó hace mucho atacando un convoy militar extranjero causando numerosas bajas en Orreaga, Nafarroa. - hasi zen atxiloa... oraingo honetan doinu irmo batez-. "Posteriormente participé en varios episodios de la defensa y liberación del reino de Nafarroa, culminados en la batalla de Noain. Posteriormente, a las órdenes de Zumalakarregi, embosqué a numerosas patrullas de carabineros en Gipuzkoa y Nafarroa, para mas tarde cruzar la frontera, esta vez con Mátalas, y hacer descarrilar varios trenes. Posteriormente, y tras huir de prisión, defendí una barricada en la calle Urbieta de Donostia y posteriormente, tras resultar herido en el bombardeo de Gerni..."

-"Protesto señoría" -oihukatu zuen haserre ondo orraztutako fiskal gazteak-. "En mi opinión, señoría, el detenido pretende contextualizar en su favor los delitos cometidos, introduciendo para ello una idealización subjetiva de la historia que...".

- "Calle, calle!" -moztu zion atsekaberik ezkutatzen ez zuen doinu goxo batez epaileak-. "Señor Fiscal, está usted entrando en consideraciones que escapan a la competencia de este tribunal... Como ya he repetido innumerables veces a este Tribunal le interesan los hechos, y sólo los hechos! -oihukatu zuen epaileak-. "Y ahora siga por favor con su declaración, joven. Y por favor, recuérdelo, cíñase estrictamente a los hechos" -esan zuen epaileak.

-" De acuerdo" -onartu zuen atxiloak-... después de curar mis heridas. y ya en el año 59, nos reunimos un grupo de supervivientes y planeamos...

(Oihane eta besteen omenez)

Samina ozeano bihurtzen zaigu
Udaberri gazte bat
Iluntasunaren belzturan
finitzen denean...
orduan bibolinaren doinu tristeenak.
Baina,
zuen ahotsen azken urradurak
izanaren tragikotasuna janzterakoan
geuretzako maitasunezko astinduak
gauzatuak dira iada...
infinitorainoko bidean.

Estanis Etxaburu Solabarrieta
1961
Ondarrua

1987. urtean atxilotu eta espetxeratu zuten.
Aurten Kaleratua.

Espejo mágico ceutí

(Para Emilia, "la amama de los presos").

Represento ternura colorida,
claridad del alba
que refleja sentimiento y solidaridad.
Todo lo que tú, "Ayla",
ofreces con tus ojos,
con esa mirada
que llega a cada corazón.

Jondalar

(Poema encontrado en el reverso de un espejo, fruto de una tierna historia de amor entre una anciana, Emilia, la decana de Ataramiñe, y un joven preso político vasco. En el anverso, junto a los escudos de los seis herrialdes vascos y el mapa de Euskal Herria, figura también, como si estuviese en el corazón de nuestro pueblo, el dibujo de un retrato de Emilia, de septiembre de 1936, cuando contaba veintidos años de edad).

EGUN ASKO JUAN DIRA
AGURTUZ GEROZTIK
BAINA ILUSIOAREKIN
GU BETI AURRETIK
HERRIKO ETA ETXEKO
SENTIPENAK BURUTIK
AGUR TA ONDO ZAINDU
NERE BIHOTZETIK
HELDUKO DA EGUNA
IKUSTEKO HANDIK

Oihane Errazkin
Andorra 1973
Paris 2004